



# ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 30



## 59. BAZTANDARREN BILTZARRA IGANDEAN

Igande honetan, uztailaren 17an, ospatuko dute baztandarren besta haundia.

Horren harira, azken 15 urteotan Baztandarren Biltzarra elkarteko

kide den Elisa Almandoz lekaroztarrarekin bildu da TTIPI-TTAPA. / 52

VALLEDEBAZTAN.COM

# Hemen da Euskarabentura

Euskarabenturak Lesakan, Zugarramurdin eta Amaiurren geldialdia eginen du. 128 gazteen artean eskualdeko hiru daude. / 8

### SINADURAK



LUCIA  
ETXEBERRIA  
ARANAZ / 3



AITOR  
AROTZENA  
ALBIZU / 3



FERNANDO  
ANBUSTEGI  
GOÑI / 4



NAHIA  
SENPER  
MAZIZOR / 4



**Julian  
Iparragirre**  
ren  
ibilbideari  
errepassoa / 10



**Marina Claver**  
aranoarrarekin  
lehengo eta oraingo  
Aranoko festez / 44



JM ONDIKOL

**Tiburtzio Arraztoa**  
Nafarroako Pilota  
Jokoen Kultur  
Elkarteko kide / 62



ZOKKETA / 72

Ongi pasa bestak!

## BERAKO BESTETAKO MENUA

**PARTEKATZEKO HASIERAKOAK:**  
Patea  
Otarraixkak  
Gula-entsalada

**BIGARREN PLATERA AUKERATZEKO (txingarretan erreta):**  
Lupia  
Urraburua  
Entrekota  
Ahate-paparra

**POSTREA:**  
Sorbetea edo whisky-tarta

**Ardoa, ura eta ogia**

**PREZIOA**  
**28€**  
BEZ-a berriz

**IKULU OSTATUA - Uralde karrika, 6 BERA • T. 664 36 64 47**

## LANDA IRAUNKORTASUNA

Klima-erronkari denon artean aurre eginez

Akonpainamendu teknikoak tokiko entitateentzat "Alkatetzen paktuak klimarako eta energiarako" lantzeko.

Aholkularitza energetikoa tokiko entitateentzat, enpresentzat, energia-komunitateentzat eta herritarrentzat.

Laguntza energia berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioak tramitatzeko.

Argitu zalantzak zeure lurraldean, eta ausartu ekimen iraunkorrenekin

**NAFARROAKO MENDIALDEA**  
Cederna Garalur  
Telefonoa: 697 65 56 64  
infoenergia@cederna.es  
www.cederna.eu

**ESTELLERRIA**  
TEDER Elkarte  
www.teder.org

**ERDIALDEA**  
Erdialdeko Tokiko Ekintzako Taldea  
www.navarramedia.es

**NAFARROAKO ERIBERA**  
EDER Partzuergoa  
www.consortioeder.es



NIRE TXANDA

LUCIA ETXEBERRIA ARANAZ

## Hizkuntzatik eraikitzea

Gerorren hitz egiteko modua arretaz aztertzea ariketa interesgarria izan daiteke. Konturatuko gara hizkuntza gizakion komunikatzeko sistema konplexu bat izatearekin batera, gure gizartearen eta kulturaren erakusleho bat ere badela. Garai bakoitzeko beharrek batera aldatzen doaz hizkera eta kontzeptuak, esaterako RAEk azkenekoz gehitu dituen hitz berrien artean *criptomoned*, *ciberacoso* edota *quinoa* daude. Eta berriak sartzen diren heinean badira zaharkituak gelditzen direnak ere.

Duela egun gutxi «zure laguna armairutik atera da» esan zidatenean hasi nintzen ordura arte hamaika aldiz entzun izan dudana esaldi hura lehenengo aldiz entzun izanen banu bezala aztertzen. Bai al da ba inor «armairu barruan» jaiotzen

denik? Esanen nuke bizitzan zehar gizarteak zurgin lan hori egin eta jende asko bultzatzen duela armairuetan ezkutatzera. Baina orientazio sexual guztiak normalizazio maila berdinetik tratatuz, armairurik gabeko mundu bat sortu dezakegu hizkeratik hasita. Gure hitz egiteko moduak errealitate bat islatzeaz gain, errealitatea bera eraikitzen lagunduko baitugu.

**«HIZKUNTZA GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ERAKUSLEIHOA DA»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

## Elkartasunaren burrunba

Sunbillako osasunaren aldeko egunean 12.000 euro baino gehiago bildu dituzte Saray eta MPS Lisosomales elkartearen alde. Lesakan ere, ralliesprinteko motor burrunba soinuak baliatzen ari dira ANELA elkartearentzat dirua biltzeko. «Denak gutti ematen du, baina biltzen den guztia mesede da. Guttirekin aunitz egin dezakegu» erran du *Jaliskok*.

## NABARMENTZEKOAK



**MATXUS PERUGORRIA**  
ZIENTZIALARIA



**OIHAN TELLETXEA**  
FUTBOLARIA

Gibelaren Ikerketaren Europako Elkarteak Etokizuneko Liderraren Saria eman dio Matxus Perugorria ikerlariari gibelaren ikerketan egindako lanagatik.

Sasoi ederrean dago Oihan Telletxea Sein Igantziko futbolaria. Ekainaren 22an 14 urtez azpiko Espainiako futbol txapelketa irabazi zuen Euskadirekin jokatuta.

## GIBELERA BEGIRA



2012-07-12 · TTIPI-TTAPA · 570 zk.

## Jabier Portu artzainarekin solasean

Jabier Portu *Kaule* Berako artzainarekin mintzatu zen TTIPI-TTAPA duela 10 urte mendian solte ibiltzen ziren zakurrek aziendari eragindako kalteen inguruan. Kaulek zioenez, aspalditik zetorren arazoa zen txakurren: «gure aitaxi-amatxiek ezagutu zuten, eta zoritxarrez gure bilobek ere ezagutuko dute». Horren aitzinean zerbait egiteko beharra zegoela nabarmendu zuen: «Zakurra mendira atera baino lehen hezi egin behar da eta jendea ez dago horetarako prestatua». Argi zioen ez zutela txakurra lotuta eramateko eskatzen, baizik eta «kontrolpean». Etorkizunerako soluzioa ere planteatu zuen: «Haurrei eskolan erakutsi beharreko zerbait da, arbolak zaintzeko erraten diegun bezala, gero haur horiek gurasoei erranen dietelako».



erran. eus



**Argitaratzailea**  
Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemaileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,  
Maidor Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Garmio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

**Fundazioaren Presidentea**  
Pello Apezetxea  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia  
**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatea.  
**2022ko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 42  
Leitza 33  
Hego Euskal Herria 50  
Ipar Euskal Herria, Europa 98  
Amerika eta Australia 147



## KOLABORAZIOAK

FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI

## Izan positibo

Izenburua irakurrita beharbada birus bat etorriko zaizue gogora, baina ez naiz gaurkoan birus bati buruz ariko, edo agian bai. Ez, bederen, azken bi urteetan pertsona guztien ahotan izan den balizko birusari buruz, ez. Dena den, birus hilgarri bat bezain kezagarria iruditzen zait bere zabalkundea, eta nire uste apalean, dagoeneko erabat zabaldua dagoen gaitza baita. Jendaratean arras barneratua, sistematizatua, nahiz eta dirudienez, hezkuntza arloan eta baita bertze hainbatetan ere azken urteetan zabalkunde hori eteteko eta joera aldaketa bat egiteko neurriak hartzen ari diren.

Aunitzetan ez gara konturatzen, erabat barneratuta dugunaren seinale, baina gaur egungo jendaratean ohikoa dugu akatsak, huts egiteak edota gaizki egindakoetan begirada jartzea. Ingurura begira jarriz gero, eta adi-adi jarriz gero, gure egunerokoan adibide aunitz aurkituko ditugu. Ez da gaur egungo moda bat, ez da bat-batean sortutako joera bat, ez, aspaldidanik barneratuta daukagun jokatzeko modu bat da, bizitzeko modu bat.

Ongi egindako gauzetan arreta jarri eta ondokoa zoriondu beharrean, akatsak bilatzen ditugu eta hauek nabarmendu. Bistan da ez duela mundu guztiak berdinduz jokatzeko, negatibotasunaren aldarrikapena baino, baikortasunaren

«ELKAR ZORIONDU  
DEZAGUN, ANIMATU  
ETA ELKARREKIN  
ERAIKI»

aldeko, positibotasunaren aldeko jende aunitz ere aurki daiteke gure inguruan, nahiz eta, zoritxarrez, nire ustez, guttiengo diren. Guttiengo horrekin topo egiteak, dena den, onura aunitz dakartzigu, aski da pertsona positibo baten ondoan egotea bere

begirada positiboak dakartzan onura eta pozak sumatzeko.

Egia da, bai, akatsak eginez ikasten dela, bai, eta akatsen bat egiten dugunean norbaitek jakinarazten badigu, hurrengoan akats bera ez errepikatzea suerta daitekeela, baina moduak eta moduak daude hori jakinarazteko. Gainera, beti akatsak edo gaizki egindakoak azalerazten baditugu, arriskua dago pertsona horrek akatsetatik ikasi beharrean, akatsek itoko duten momentua ailegatzea.

Irakaskuntzatik hasita, urte aunitzetan, eta gaur egun ere, batez ere ikasleen adinak goiti egin ahala akatsak zigortzeko joera dago, ongi egindakoagatik zoriondu eta goraiatzeko baino.

Egunerokoan ere halakoak gertatzen dira, batez ere jendearen aitzinean egiten diren gauzetan. Adibidez, boluntario lana eskatzen duten horietan. Jendeak bere denbora ematen du eta lan horren ondorioz bertze aunitzek onurak jasotzen dituzte, baina aunitzetan, lan hori kontuan hartu eta ongi egindakoak zoriondu baino, hobetu beharrekoak aipatzen dira, eta ez modu eraikitzailean, jendea minduz.

Denok gara pertsonak, zorionez inperfektuak, hortaz, akatsak egiten ditugu, baina aunitzez gehiago dira ongi egiten ditugun gauzak. Elkar zoriondu dezagun bada, elkar animatu eta elkarrekin eraiki!



NAHIA SENPER MAZIZIOR

## Prostituzioa legeztatu edo abolitu?

Gaur egun mahai gainean jarri den eztabaida dugu prostituzioaren egoera. Bi jarrera nagusi daudela erranen nuke.

Alde batetik, prostituzioa legeztatzearen aldeko ideia dago. Prostituzio baimenduaz ari gara, eta hori da, hain zuzen ere, prostitutaren baimena eta erabaki autonomoa eta pertsonala jarduera horretan aritzeko. Inork ez luke eskubiderik izan bere gorputza «erabiltzeko» libreki erabakitzen duen pertsona bat estigmatizatzeko, debekatzeko edo zigortzeko. Ondorioz, prostituzioa lan-jarduera libre eta baimendua denez, gainerako guztiak bezala arautu beharko litzateke.

Bertzetik, abolizioaren aldeko ideia dugu. Planteatzen den legegintza-neurri orok prostituzioarekin amaitzea izan behar duela helburu defendatzen du. Prostituzioa esklabotza modernoa dela dio –hortik datorkio abolizionista izena–, eta, ondorioz, hura desagerraraztearen alde baino ezin da borrokatu. Era berean, «erabaki askearen» argudioa arbuaitzen du, uste baitu, kasu gehienetan, prostituzioaren jarduera beharrak eragiten duela, norberaren gorputzaren gaineko balizko askatasun pertsonalak baina gehiago.

«NIK ARGI DUT,  
PUTERORIK GABE  
EZ LEGOKE  
PUTARIK»

Nik ez dakit zein den jarrera egokiena baina argi dut gizasemeen ardura handia dela. Pauso bat aitzinerat eman behar dute, ahotsa altxatu eta sexualitatearen ideia 'harrapakariaren' kontra egin eta berdinen arteko

sexualitate askea aldarrikatu beharko lukete. Nik argi dut, puterorik gabe ez legoke putarik.

## 11 GALDERA LABUR

KATTIN MADARIAGA APAOLAZA ARANTZAKO GAZTEA

# «Lagun onak egiteko aukera eman digu pilotak»

**Nola definituko zenuke zeure burua?**

Neska alaia, baikorra eta lagunkoia naizela erranen nuke.

**Zein dira zure zaletasunak?**

Gehienbat pilota eta bertso-larritza gustatzen zaizkit, baina lagunekin ere ikaragarri ongi pasatzen dut.

**Zergatik hasi zinen bertsoan?**

Gure eskolako zuzendaria bertsoan ibiltzen irakasten hasi zen ikasle batzuei, eta anaiak animatzeko erran zidan, atautxiri ilusioa eginen ziolakoan. Hortik aitzinera Estitxu-rekin segitu dut sei bat urtez.

**Hirugarren aldiz saritua izan zara Baztan-Bidasoko bertso paper lehiaketan. Espero zenuen?**

Ez nuen aunitzik espero, nik ere bertso eskolan dabilzianak ere maila ona baitute.

**Bertsoak idazteak ematen dizun askatasunaz aritzen zara bertsoan... Zer da zuretzako bertsoan aritzea?**

Erran nahi dudan hori modu ordenatu edo txukunago batean kontatzeko aukera bat da niretzat bertsoa. Kontatu nahi ditudan gauzak askatasun osoz kontatzeko aukera ematen du, baina nola kontatu pentsatzera ere behartzen nau.

**Bertsoez gain, pilotan ere aritzen zara. Noiz hasi zinen?**

Orain dela bostz-sei urte hasi nintzen Arantzako Pilota Eskolan. Orain Beran aritzen naiz.

**Hainbat pilota txapelketetan ibili zara. Zenbatero entrenatzen zara?**

Astean bi aldiz izaten ditut entrenamenduak, astearteetan



eta ortzegunetan, baina tarteak aitarekin eta anaiekin ere ibiltzen naiz.

**Nola ikusten duzu eskualdeko nesken egoera esku pilotan?**

Gutti gara oraindik, baina maila ona ematen ari gara eta hagitx gustura gabiltza. Gainera, gutti izanik lagun onak egiteko aukera eman digu pilotak.

**Zertan nahiago duzu aritu, bertsoan edo pilotan?**

Ezingo nuke bat aukeratu, bietan gustura nabil eta orian-

goz denetan ibiltzeko astia eta gogo daukat. Bertsoa eta pilota hagitx desberdinak dira baina biak dira ezinbertzekoak niretzat.

**Zein dira zure asmoak epe motzera?**

Lagunekin ongi pasatzea, udaz gozatzea eta hurrengo ikasturtean gustuko ditudan gauzekin segitzea.

**Eta epe luzera?**

Gustuko dudana ahalik eta gehien ikastea eta hortan segitzea.



## Udako merkealdia

1951tik

*Casa Cambra*  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak  
Mantelak  
Kuxinak  
Edredoi nordikoak  
Ohe estalkiak  
Maindireak  
Toailak  
Edredoi-azal nordikoak



## IRAKURLEAK MINTZO

### Mugak

#### UHAINA APEZETXE, AINARA GAZTELU ETA MIKELE ETXEKOLONEA

Badira muga ikusezinak munduan. Muga naturalak, erreka eta mendikateek zehazturikoak. Muga politikoak bai eta hesitutako mugak ere. Muga fisikoak. Mugek mugatzen dituzten pertsonak.

Eta ez zaigu bada kilometro aunitzetara gelditzen munduko mugarik desorekatuena. Hiru hesi handik eta lubanarro batek bereizten dituena. Ipar eta hego globalaren arteko mugetako bat. Balio eta baliorik gabeko bizitzen artekoa.

Alde batekoa hegazkina hartuta iritsi da Marrakecheko aireportura. 600 euroko i-phonea lepotik zintzilik duela, ohartu ere ez da egin milaka pertsonak bizitza galtzen duten muga gurutzatu egin duela. Bertze aldekoak, aldiz, kilometro luzeak egin behar izan ditu Ceuta edo Melillara ailegatu arte, eta hantxe aurkitu du bere burua Marokoko poliziaren errepresiotik ihesi, batzuei ikusezina zaigun sei metroko hesiaren parean. Bertze aldean sarbidea ukatuko dion Espainiako polizia zain duela.

Eta bai. Agian, biek dute pasaporte gainean.

Ekainaren 24an gertatutakoa ez da gertaera isolatu bat, Europak azken 20 urteotan aitzinera eraman dituen migrazio politika hiltzaileen bertze ondorioetako bat dugu hau. Europako sarbide legalen faltan, haien herriak utzi eta bizitza duin baten bila abiatzen diren pertsonak arriskuz beteriko

bideak hartzera eramaten dituena. Ezin dira aipatu gabe utzi, azken gertakari hauen kausa diren Maroko eta Espainiaren artean migrazio irregularra gelditzeko tratatuak, Frontex eta heriotzen gorakada.

*Caminando Fronterasek* eskainitako datuen arabera, 2021. urtean 4.175 hildako eta 229 desagertu egon ziren. Zifra hauek azken hamarkadetakoa larrienak dira.

Europara sartzeko atea gurutzatzeak, ordea, ez du bizitza bera ere bermatzen. Giza eskubideak hainbertze predikatzen dituen ongizate estatuen baturak badu eta hegorik. Badu eta Kantauri itsasoan isurtzen den mediterraneorik. Pandemiak geroztik, Frantziak ezarritako kontrol arrazisten ondorioz jada bederatzai baitira Bidasoa ibaia gurutzatzeko saiakeran hildakoak.

Europak, Afrikari urte luzeetan zehar dena kendu dien horrek, gotorleku bilakatu du bere burua. Kongoko Errepublika Demokratikotik ustiatutako koltanari edota urreari sarbidea ahalbidetu bitartean, deus gabe utzi dituen pertsonen mugimendua ekiditeko milaka oztopo ezarri.

## BOTA BERTSOA



**LOITZATE GOÑI ELORTZA** (BERA)  
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER  
LEHIAKETAN B MAILAN 2. SARIA

### D. B. H.

Doinua: Batetikan korrozka

*L.H akautu  
ta kursoz igota  
gutziz aldatu zaigu  
ikasteko mota,  
Oraindik ez dut lortu  
frantseseko nota  
bortz bat ateratzen dut  
baina asko jota,  
D.B.H-arekin  
goraino itota.*

*Euskara penkatu nun  
ta 4 bat gizarte  
gaixtakeriengatik  
ditut hainbat parte,  
Gaizki indako hoiek  
gauz txarra dakarte  
amak zigortu eta  
utzi nau aparte  
ikasten gelditu naiz  
sei terdiak arte.*

*Apunte eta fitxa  
goraino karpeta  
errekuperatzeko  
7 azterketa,  
pixkobat errazteko  
egin dut txuleta  
baina gorputza daukat  
nerbioz beteta,  
Eta ezin dut egin  
azken biderketa.*

### IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA  
info@ttipi.eus



948 63 54 58

# Zaindu maite duzun hori...

## kalko ustelak

### Zein da zuzena?

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

#### \*'Mila bortzehun' ala 'Mila eta bortzehun'?

1.500, 2.700 eta gisako zenbakiak tradizioan **eta**rekin eman izan dira euskaraz, eta Euskaltzaindiak sistema hori hobesten du:

- 1.500 > \*mila bortzehun > mila eta bortzehun
- 2.700 > \*bi mila zazpiehun > bi mila eta zazpiehun
- 1.200.000 > \*milioi eta berrehun mila > \*Milioi bat berrehun mila > milioi bat eta berrehun mila.

Ohitura hori salgaien prezioak eta kirol proben emaitzak emateko ere gorde da orain arte.

- **Kafea bat hogeita da** > Kafea bat eta hogeita da.
- **Hiru bat irabazi du Doneztebek** > Hiru eta bat irabazi du Doneztebek.

Baina mila zenbakitik goiti, **eta** kendu egiten da ondotik datozen ehunekoetan ere agertzen bada:

- Mila **eta** berrehun, baina mila berrehun **eta** bi.
- Mila **eta** laurehun, baina mila laurehun **eta** bi.

Zenbaki dezimaldunak erratean, unitateen eta dezimalen artean, **eta** edo **koma** erraten da:

- 4,20 €: lau euro **eta** hogeita (zentimo), lau **koma** hogeita euro.
- 5,65 m: bortz metro **eta** hirurogeita bortz (zentimetro), bortz **koma** hirurogeita bortz metro.

Laburbilduz:

#### ZENBAKIAK

1.500  
2018an gaude  
2,20 € d(ir)a  
2-1 irabazi dugu

#### OKERRA


\*mila bortzehun  
\*bi mila hemezortzian  
\*bi (euro) hogeita d(ir)a  
\*bi bat irabazi dugu


#### ZUZENA

mila eta bortzehun  
bi mila eta hemezortzian  
bi (euro) eta hogeita d(ir)a  
bi eta bat irabazi dugu

### Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak,  
proposamenak, azalpenak...  
Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

## Osatu bikoteak

Goibeldu  
Erauntsi  
Ortots  
Zizerkor  
Langar  
Garbi

Trumoi  
Zirimiri  
Oskarbi  
Lainotu  
Zaparrada  
Kazkabar

## Hemen da Euskarabentura

Uztailaren 1ean abiatu zen Euskarabentura espedizioa igande honetan ailegatuko da eskualdera. Lesakan, Zugarramurdi eta Amaiurren geldialdiak egingen ditu. 128 gazte ari dira espedizioan parte hartzen eta eskualdeko hirurekin bildu da TTIPI-TTAPA

### G. PIKABEA

Kamiseta laranja soinean, dagoeneko ibilbidearen erditsua egina izanen du Euskarabenturako *jzioquitarren* espedizioak. Jatorrizko izaera ibiltaria berreskuratuta, uztailaren 1ean hasi zen aurtengo Euskarabentura, «gazteen artean euskaren erabilera sustatu eta normalizatzeko, gazte euskaldunen sare berri bat sortu eta elikatze eta Euskal Herriko natura-ondasun eta ondasun historiko nahiz kulturalen transmisioa bermatzeko». Geroztik

2005ean eta 2006an sortutako 128 gazte edo *jzioquitar* Euskal Herrian barna dabiltza. Mautetik Getxorako bidea egingen dute 31 etapatan. Bidean 700 kilometro baino gehiago egingen dituzte, eta horietatik 500 oinez.

Hilaren 31ra bitarte Donejakue bideei segituz, Euskal Herriko zazpi hiriburuak eta 35 herri baino gehiago bisitatuko dituzte, baita UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatutako tokiak edota «Euskal Herriaren historian, ekonomian edota politikan garrantzizkoak diren

tokiak ere. Hala nola: Orreaga-Kolegiata, Añanako Gesaltzak, Arditurriko meazuloak, Zugarramurdiko leizea, Amaiurko gazteluaren hondarrak, Pasaia-Albaola Itsas Kultur Faktoria, Euskal Kostaldeko Geoparkea...».

**Lesaka, Zugarramurdi, Amaiur** Larunbatean, Tolosan, gurasoen bisita izanen dute eta igandean, uztailaren 17an, Oiartzundik eguerdi aldera Lesakara ailegatuko dira. Eguna bertan pasatuta, biharamunean, uztailaren 18an, gosalduta eta Lesakatik

Zugarramurdira joanen dira. 20 bat kilometroko bidea egingen dute oinez eta bazkaltzeko ailegatuko dira Zugarramurdira. Han leizea ezagutzeko eta sorginkeriaz aritzeko aukera izanen dute. Asteartean, uztailaren 19an, Zugarramurditik Amaiurrera joanen dira. Bertze 20 bat kilometro egingen dituzte oinez, eta arratsaldean, batetik, gazteluaren hondarrak bertatik bertara ikusiko dituzte eta bertetik, Asisko Urmenetaren bisita izanen dute Amaiurko batailaren 500. urteurren aritzeko. Asteazkeneko etapak Amaiur izanen du abiapuntu eta Baiona helmuga. Bidarria oinez joan eta handik trenean joanen dira Baionara.

Inoizko espediziorik jendetsuena da aurtengoa eta, 128 gazteen artean eskualdeko hiru daude: Olaia Garbalena Osinaga (Lekaroz, 2006), Unax Ordoiki Etxepeteleku (Lesaka, 2005) eta Saioa Lizarreta Insausti (Erratzu, 2006).

### «Gainerakoei Baztanen euskaraz bizi garelako erakutsi nahi diet»

OLAIA GARBALENA OSINAGA LEKAROKO GAZTEA

«Neska lotsati, mugitu eta nahirako alaitzat» du bere burua Olaia Garbalena Osinagak (Lekaroz, 2006). Lekarozko institutuan 4. DBH akitu berria du, eta heldu den ikasturtean «laborategiko eragiketen erdi mailako zikloa» egiteko asmoa du. Hori baino lehen, ordea, uda berezia izanen du aurtengoa, bera baita Euskarabenturako gazteetako bat. Dienez, ikas-bidaian jakin zuen hautatua zela: «Ez nuen espero, esperantza guti nuen. Harrituta gelditu nintzen, baina aldi berean arras kontent».

«Lagun baten bitartez» izan zuen abenturaren berri: «Lagun bat aunitzetan solastatzen zen eta behin zer zen ikustea okurritu zitzaidan». Ikusi orduko erabaki zuen bertze pauso bat ematea: «Aunitz gustatu zitza-

dan, eta saiatzea erabaki nuen. Kristoren aukera zela iruditu zitzaidan; batetik, nire adineko neska-mutikoak ezagutzeko, eta bertetik, Euskal Herriko hainbat toki ezagutzeko eta bertze euskalkiak ikasteko». Hala, «esperientzia bizitzeko ilusioz eta gogoz» mintzo zen abenturaren atarian.

#### Sormen digitala

Egunotan Euskarabenturan baldin badabil ez da nahi izan duelako bakarrik izan, *Zerginen, zer gara eta zer izanen gara* gaiari buruzko bere lana aukeratu dutelako baizik. «Hasmentan, marrazki bat egitea pentsatu nuen, baina marrazketan arras trebea ez naizenez, sormen digital bat egin nuen». Hiru urte edo alditan banatu zuen lana:



Euskarabentura hasi aitzinetik «ilusioz eta gogoz» zegoen lekaroztarra.

«Lehendabiziko urtea Ameriketako biziari buruz aitatziri egindako elkarrizketaren bideoarekin» osatu zuen. «Bigarren urtean bi lan egin nituen. Bat amatxi eta nire gurasoak ttikiak zirenean eta orain pentsatzen zutena konparatuz, eta bigarrena poema motz bat gaur egungo bizitzaz». Komiki batekin borobildu zuen hirugarrena: «urte batzuen buruan bizitza nolakoa izanen den erakutsiz».

#### Baztan eta Baztango mintzoa

Hilabeteko egonaldia «esperientzia zoragarria eta ahaztezina» izatea nahi du, eta «35 herriak eta hiriak ilusioz» hartu arren, bereziki Amaiur du begiz joa: «Baztandarra naizenez, ilusio handia egiten dit bertzeek bizi naizen ingurua ezagutzeak». Baztango mintzoa ikasteko aukera izanen dutela ere gogoratu du: «Baztanen euskaraz bizi garelako erakutsi nahi diet».





Batxilergoa bukatzean Harreman Publikoak eta Publizitatea ikasi nahi du.

## «Ez nuen itxaropen haundirik bigarren aldiz hautatua izateko»

**UNAX ORDOKI ETXEPETELEKU** LESAKAKO GAZTEA

Joan den urtean egin zuen Euskarabenturan parte hartzeko lehenbiziko saiakera Toki Ona Institutuko ikaslea den Unax Ordoki Etxepetelekuk (Lesaka, 2005). Saiatu ez ezik, abenturarako aukeratu zuten, baina koronabirusak eragotzi zion bidaia. «Esperientzia berriak bizitzea gustuko duen 17 urteko mutil gazte alaiak eta herrikoiak» aurten izan du iazko arantza kentzeko aukera, bigarren ez aukeratu izan baita Euskarabenturan eta hala, «Euskal Herriko txokoak eta bertako jendea ezagutzeko gogotsu eta ilusioz» abiatu du abentura.

Bi aukera paratu zizkioten mahai gainean: «lehenengo urtean egindako lanarekin berriz izena ematea edo berritik lan bat osatu eta horrekin izena ematea». Lehenbizikoa aukeratu zuen, «benetan adierazi nahi nuen mezua ikus-entzunezko horretan islatua zegoelako eta hainbertze denbora eskaini nion lan horrekin berriz ere hautatua izan nahi nuelako». Aitortu duenez, «ez nuen itxaropen haundirik. Iaz hautatu izan nintzenez, ez nuen berriz ere hautatua izateko aukera argi ikusten». Baina lortu du.

«Nire egunerokoarekin bat egiten duen gaia» landu du lesakarrak Euskarabenturarako, «azalean dagoen arazo bat ikus-entzunezko baten bitartez islatu nahi nuelako: Egungo gizarteak inposatutako estereotipoak gazte ororen helburu nagusi bihurtu direla argi utzi nahi nuen, sareen gehiegizko erabilpenak dakartzan ondorioak azpimarratuz eta nolabaiteko kritika eginez».

### Bizitza osorako momentuak

Hilabeteko egonaldian sorterriko geldialdia da «ilusio berezia» egiten diona, bistan da, «nire herria delako». Baina aldi berean «bertze modu berezi batean Lesaka ikusteko aukera» izan du. Gainera, «ikaragarriko ilusioa» egiten omen dio «espedizioen parte hartuko duten askok ezezaguna duten herri zoragarri hau ezagutzeko dutela pentsatzeak». Hortik harago, Euskarabenturak «euskaraz mintzatzeko, euskalkiak ezagutzeko, milaka txoko ezagutzeko eta naturaz gozatzeko» atea irekiko diola aipatu du. Bateko eta berteko, garbi du «nire hamazazpigarren uda berezia» izan dela. «Uste dut hilabete honetan biziko ditudan momentuak bizitza osoan gogoan edukiko ditudala».



Historia eta istorioak maite ditu Lizarretak.

## «Nire bizitzan behin bakarrik biziko dudan esperientzia izanen da»

**SAIOA LIZARRETA INSAUSTI** ERRATZUKO GAZTEA

«Euskal Herria ezagutzeko plan erakargarria» iruditu zitzaio-lako eman zuen Euskarabenturan parte hartzeko izena Saioa Lizarreta Insaustik (Erratzu, 2006). Aitzinetik herrikide bati esker ezaguna zuen abentura, «duela urte batzuk Erratzuko batek Euskarabenturan parte hartu zuelako». Hala egin zuen jizkiotiar izateko saiakera «historia eta istorioak» gustuko dituen 15 urteko gazteak.

Lekarozen DBH 4 egin du ikasturte honetan, eta heldu den ikasturtean institutu berean segituko du Batxilergoa egiteko. Aurtengo eskolak akitu aitzinetik jakin zuten aukeratu izanen zela, «Aste Sainduan» zehazki. Aitortu duenez, «alde batetik, poztu egin nintzen, baina bertze aldetik, pena eman zidan hilabete bat Baztandik kanpo pasatzeak». Edozein kasutan, segur da hilabete «berezia» izanen dela: «Nire bizitzan behin bakarrik biziko dudan esperientzia izanen dela uste dut».

Antolatzaileek proposatutako gaien artean, *Zer ginen, zer gara eta zer izanen gara* gaia aukeratu zuen erratzuarrak: «Leitzea eta idaztea gustatzen zaidanez istorio bat idaztea erabaki nuen, eta 1928an Bilbon kokatutako neska gazte batzuei buruzko istorio bat aurkeztu nuen».

### Eskualdea bisitatzeko gogotsu

35 herri eta hirien artean, «ez dago ezagutzea ilusio berezia egiten didan lekurik», baina gaineratu duenez, «inoiz egon ez naizen herriak ezagutzeko gogotsu nago». Horrekin batera, «eskualdetik kanpo denbora luze eginda, ilusioa egiten dit egun batzuk bertan pasatzeak», hau da, Lesaka, Zugarramurdi eta Amaiur aldean ibiltzeak. Bazterrak ezagutzetik harago, Euskarabenturak «esperientzia berria izateko eta jende berria ezagutzeko» balioko diolakoan dago, «aberasgarria» baita bere hitzetan «hilabete bat euskararen inguruan pasatzea. Auniz ikasiko dudala iruditzen zait».

Euskara aipatu du eta egunerokoan euskaraz bizi dela dio, «familia eta lagun euskaldunak ditut». Hain zuzen, alde horretatik bere ekarpena egin dezakeela uste du: «Egunerokoan euskaraz bizi ezin diren horiei nirekin euskaraz solastatzeko aukera emanen diet». Eta bueltan gainerako jizkiotarren aldetik «bertzelako errealitateak ezagutzeko aukera» izanen du erratzuarrak.

## «Suerteko sentitzen naiz oso bizimodu polita izan dudalako»

**JULIAN IPARRAGIRRE LUKANBIO** PILOTAKO ESATARI OHIA

20 urtez Euskadi Irratiko pilota aditua izan denak esatari lana utzi du. Baina pilota tarteko hori baino gehiago izan da. Besteak beste, pilotari afizionatua eta 16 urtez Leitzako pilota eskolako irakaslea

**G. PIKABEA** LEITZA

Kontentu sumatu dugu Julian Iparragirre Lukanbio (Arantza, 1949). «Suerteko» sentitzen da «gustuko bizia» egin duelako eta orain ere sasoiko dagoenez ez du atsegin duena egiteko eragozpenik. Haurtzaroko oroitzapen «politak» ditu, mutiko kozkorra zela Arantzako Bordalarrea auzoan edo frontoian emandako orduak bihotzean ditu. Lana tarteko Leitzara joan zen eta hantxe osatu zuen habia, eta han ere pozik. Arantzan zein Leitzan, hainbeste maite duen afizioari kontu dio beti: Pilota. Ate asko ireki dizkion afizioa izan da, gainera. Urte askotan afizionatuetan ibili zen, baita Nafarroako binakako txapela jantzi ere; Leitzako pilota eskolan hamasei urtez izan zen irakasle, eta hogeitau urte egin ditu Euskadi Irratian pilotako aditu. Oinatz Bengoetxearen debuta tarteko hasi zen esatari, eta bueltan-bueltan orain arte Iparragirren eskuetan izan den mikrofonoa Bengoetxearen eskuetara pasatuko da urrian. **Borda baserrian jaioa, bederatzidenetan laugarrena zara. Nolako haurtzaroa duzu gogoan?**

Polita. Bizia ez da erraza izaten horrenbeste senide diren familiar. Hainbeste ume baserri koxkor batean, handik bizia atera behar... Gurasoek meritu ikaragarria dute. Baserrian jatekoa bagenuen, eta goserik ez genuen pasatu. Orain ikusten hasita gogorra zela esanen du baten batek, baina garai hartan

holaz. Nik suerte ikaragarria izan nuen auzoan bertan, aitarren sortetxean, asko egoten nintzelako. Hiru ume bakarrik zituzten, ni baino gazteagoak, eta hango oroitzapen oso-oso onak ditut. Izeba Loreto niretzat bigarren ama izan da. Ume garaiko oroitzapen oso politak ditut, etxetik hasi eta osaba-izebekin eta lehengusuekin.

**18 urterekin Leitzako fabrikara...**

Bai, ordurako bi anaia Leitzara etorriak ziren. Paper fabrikari jendea behar zuten eta ni ere etorri nintzen. Fabrikak kanpotik etorritakoentzat jatekoa eta lo egiteko tokia jarri zituen. Aste guzian hemen pasatzen genuen, eta asteburuetan Arantzara joaten ginen. 18 urterekin hasi eta 60 urtera arte aritu nintzen fabrikari, eta oso gustura.

**Aldaketa handia izan zen?**

Ez. Baserriko semea naiz, baina baserriko lana ez zitzaidan sobera gustatzen. Egurra txikitzea eta holako lanetan aritzea bai, baina gainerakoa... Erraz egin nintzen fabrikako lanera. Suerteko pertsona izan naiz.

**Baina beti pilotaren bueltan...**

Bai, horri beti kontu diot. Ttiki-ttikitatik afizio handia izan dut. Askotan esan dut eta ez dut gezurrik esaten: eskolarako

**«ESKOLARA PILOTAN ARITZEAGATIK JOATEN NINTZEN»**

gogo gutxi izaten nuen, eta eskolara pilotari aritzeagatik joaten nintzen. Afizio izugarria nuen. Senide asko gara, zortzi anaia eta arreba, eta besteek ere badute afizioa, baina nik ez dakit nondik, pilotarako afizio ikaragarriarekin atera nintzen. Aurrenean Arantzako gorapean, eta gero frontoia egin zutenean frontoian, ordu pila pasatzen genituen. Eta Leitzara etorri nintzenean, fabrikari zortzi ordu egin eta denbora libre gehiago izaten nuen pilotari ibiltzeko, pilotari erosteko dirua ere bai... **Afizionatuetan ibili zinen...**

Oso berandu hasi nintzen. Leitzan eta Lekunberrin txapelketa batzuk egiten zituzten, eta hori apuntatu nintzen. Lekunberriko Guillermo Mazokzerbait ikusiko zidan, eta federazioko fitxa egin zidan. Askok lagundu zidan. 40 urtera arte afizionatuetan ibili nintzen. Fabrikari zortzi ordu egin, entrenatu, udan partida asko jokatu... Garai hartan txapelketa gehiago izaten ziren. Oso bizimodu polita izan dut, nire gustuko bizia egin dut. **Leitzako pilota eskolan hamasei urtez irakasle ere ibili zinen...**

Pilota utzi baino lehenago Leitzako pilota eskolan sartu nintzen. Ordurako Aurrera elkarteak

**«OSO BIZIMODU POLITA IZAN DUT, NIRE GUSTUKO BIZIA»**

asteburuetan gazte batzuk ibiltzen zituen, baina hiru gurasok pilota eskola sortzea pentsatu genuen, eta astean bi egunetan entrenatzen hasi ginen. Batek lanagatik berehalaxe utzi behar izan zuen, baina beste biek astero txandaka entrenatzen segitu genuen. Azken lau urteetan frontoiko lana neronek bakarrik egin nuen. Entrenamenduz ni arduratu nintzen eta beste lagunak federazioko bilerak, txapelketak bikoteak apuntatu... beste lan asko egin zituen. Oso gustura ibili nintzen, talde oso ona tokatu izanen zitzaidan niri hainbeste urte aguantatzeko. Oso oso esperientzia polita izan zen. Utzi behar genuenean, Aurrerak omenaldia egin zigun. Plaka bana eman zigun, eta oso polita izan zen. Baina omenaldirik politena gazteekin izan dudana harreman ona izan da. Nirekin pilota eskolan ibilitako gazteak gaur egun asko eta asko guraso dira eta batzuk pilota eskolan dabilta, eta hainbesteren artean inor ez zait agurtu gabe geldituko. Niretzat hori da politena. Ez dakit zenbat erakutsiko nien, baina haiekin asko ikasi nuen. Oso argiak dira. 10-12 urtekoek ez dute gezurrik esaten, gauzak zuzenean esaten dituzte, eta askotan hobe izaten da zeronez zer egiten ari zaren ohartzeko. **Leitzako pilota eskolatik goi mailako pilotariak atera dira...** Garai batean baziren batzuk: Iñaki semea, Aitor Bengoetxea, Ibai Bengoetxea, Abel Barriola, Oinatz Bengoetxea, Jon Jaunarena... Oso harro nago. Baina Abel edo Oinatz bezalako izarrei gutxi erakusten diezu. Beste askorekin askoz ere lan gehiago egiten duzu, baina horiek tartean izatea pilota eskolarentzat oso ona izan da. Semeak edo Bengoetxea lehengusuek ere profesionaletan jokatu zuten denbora gutxian. Baina ez da profesionaletan jokatzeko bakarrik. Afizionatuetan aritzea edo zure lanaren fruitua ikustea bera ederra da. Bestalde, beste bi edo hiru mutikorekin beti izan dut 'Horiek pilotari behar



Julian Iparragirre Leitzako plazan.

zuten' sentsazioa. Nire baitan esan izan dut horiekin ez nuela asmatu, baina tira, ez diet behin ere esan. Ez da erraza hainbeste urtetan horrenbeste ordur aritzea, baina gustura egiten duzunean... Hortik aparte ordu asko pasatzen nituen kanpoan, entrenamenduak zirela edo asteburuetak partidak zirela. Hori dena ongi joateko izugarri baloratzen dut familia. Andrearen eta seme-alaben babesik gabe ezinezkoa izanen litzateke.

**Leitzak lotura berezia du pilotarekin?** Boladakontua dela esanen nuke. Aipatu ditugun pilotari horiek baino lehenago, hor ziren Juan Mari Bengoetxea eta Miel Bengoetxea, gero erremontera pasatu zen Miel Zestau... Orduan ere baziren pilotari onak. Gaur egun pilota eskolatik pilotariak aterako diren? Leitzako pilota eskolako gurasoak lan handia egiten ari dira eta horrek poz ikaragarria ematen dit. Eta pilotarien artean, izenik ez dut esanen, baina badira zortzi-ha-

mar bat oso politak. Pilotan ez bada beste kirolen batean segi dezatela, Leitzan horretarako aukera badago eta. Ni garai batekoa naiz, eta estudioak aurrena izanen dira, baina hortik aparte, haurrentzako eta gazteentzako oso beharrezkoa ikusten dut kirola. Pilota eskolan ibiltzen ziren haurrek pilota uzten zutenean, beti horixe esaten nien, pilotan ez bazen kirolean segitzeko.

**Leitzan izen handiko neska ere badira pilotan: Agirre, Zabaleta...**

Bai, oso ongi ari dira. Iera Agirre nirekin ibilia da, eta akordatzen naiz Iera, Naiara Astibia eta Saioa Urkiola leitzarrak eta Irati Arozena goizuetarra nola etorri ziren. Denboraldi dezentetik ibili ziren nirekin, eta muti-

koekin bezala saiatu nintzen. Garai hartan neska gutxi izaten ziren, baina urte batean Umeen Eguneko partida batean lau neska jartzea erabaki nuen. Oso-osoa polita izan zen. Epaile aritu nintzen eta oraindik neska horiekin ateratako argazkia etxeko egongelan dut. Guraso eta mutiko batzuen aldetik kritikak ere izan nituen lau neska jarri nituelako pilotan, eta pixka bat ukitu ninduten, baina ez nintzen horiei begira gelditu. Intentzio on guziarekin egin nuen, eta neska horiek ikaragarri estimatu zidaten.

**Pilotarekin izan duzu loturak Euskadi Irratiko atea ere ireki zizun...**

Pilota eskola utzi berria nuen, eta Oinatz Bengoetxeak debutatu behar zuenean, Euskadi

Irratiko Iñaki Elortzak Oinatzekin pilota eskolan ibilitako norbait joateko eskatu zien Aurreira elkartekoei. Ordurako beste guraso batzuk sartuak ziren pilota eskolan, baina 'Hi ibili haiz Oinatzekin gehiena eta hik joan beharko duk' esan zidaten. Hala joan ginen Leitzako beste bat eta ni Labriterra Oinatzekin debut egunean. Partida eman eta kafe bat hartzera joan ginean, Iñaki Elortzak jaialdiko bigarren partida bien artean eman behar genuela esan zidan. Hala egin genuen. Partida bukatuta 'Nirekin hasi behar duk' esan zidan. Ordura arte Julian Retegi ibiltzen zen berarekin, baina Josetxo Lizartzarekin Telecincon ibiltzen zen Ogeta gaizkitu zenean Telecincora joan zen Retegi. Euskadi Irratian bat behar zuten. 'Nola hasiko nauk hirekin?' galdetu nion eta bi hilabeteko proba eginen genuela esan zidan. Bi hilabete horietan Euskadi Irratia nirekin gustura ez bazen etxera joanen nintzela esan zidan eta ni →

**«KIROLA OSO BEHARREZKOA IKUSTEN DUT HAUR ETA GAZTEENTZAT»**

**«BI HILABETE PROBATZEKO HASI ETA 20 URTE PASA DITUT IRRATIAN»**

→ ez banengoen gustura ni joanen nintzela. Bi hilabete probarekin hasi eta 20 urte pasatu dira. Asteburu batzuetan lan egiten nuen fabrika, baina lankideak oso onak nituen eta ez nuen arazorik izan. Pentsatu beharko dut zerbait ongi egin izanen nuela, gainerakoan bidualiko zidaten.

**Gustura ibili zara?**

Bai, oso gustura. Batzuek uste dute urte osoan ibiltzen nintzela, baina hiru txapelketetan aritzen nintzen: lau t'erdikoan, binakakoan eta buruz burukoan. Sei-zazpi hilabete izaten ziren. Udan txapelketa bereziren batzuetara ere joaten nintzen, Sanferminetako Torneoko finalera, Donostiako txapelketako finalera... Baina gainerakoan uda nahiko libre izaten nuen. Eta zer esanen dut kiroletako jendeaz. Lantalde izugarria da. Iñaki Elortzarekin 17 urte egin nituen, eta berak utzi zuenean erelankide oso onak izan nituen. Kepa Iribarrekin ibili naiz gehiena, Jon Altuna... Kiroletako jendea familia zoragarria da, giro ederra dute eta horko kide izatea ohore haundia izan da.

**Jendeak ikusten ez duen zerbait hitzez esplikatzeko zaila da?**

Saiatu naiz eta ez zait gogorra egin. Irratian ez dituzu detaile guztiak eman behar. Entzuleak erraz ententitzeko moduan esan behar duzu. Normalean, batek tantoa nola jokatzeko zuten kontatu eta nik bukaera nola izan zen esplikatzeko nuen, eta nahiko ongi eraman dut. Lehenbizian, esperientzia hartu arte, arazo gehiago izan nituen, baina berehala jarri nintzen, eta ustez, erraz egin dut.

**20 urteotan pilota asko aldatu da?**

Bai, aldatu da. Batzuek esanen dute garai bateko pilotariak hobeak zirela eta besteek oraingoak hobeak direla. Lehenago hoberenak zirenak gaur egun ere oso ongi moldatuko ziren, eta gaurko hoberenak garai batekoekin ez ziren atzean geldituko. Hori bai, materiala differentea da. Urteotan batik bat pilotak aldatu dira. Garai batean, orain bezala, pilota biziak ziren,



Iparragirre erdian, Iera Agirre, Goretti Calderon, Naiara Astibia eta Saioa Iraolarekin.



Iparragirre, Bengoetxea eta Barriolarekin. 2008ko buruz buruko finalaren atarian.

baina oraingo pilotek abiadura handiagoa dute, azpitik ibiltzen dira, eta hori da jokoari bizitasuna ematen diona, eta telebistaz ikusten ari denarentzat joko bizi hori politagoa da.

**20 urteotan pilotariekin, enpresako jendearekin... Nolako harremana izan duzu?**

Batik bat pilotariekin tratatu izugarria izan dut. Akaso ez dakidalako bazterrean egoten eta saltsero samarra naizelako, baina beti gustatu izan zait pilotariekin egotea. Irratiko lana hasi aurretik askotan aritzen nintzen haiekin hizketan, baita intendenteekin ere: Jon Apeztexea, Jokin Etxaniz, Jose Angel Balanza Gorostiza, Pablo Berasaluze... Fenomenoak dira.

**«IRRATIAN EZIN DUZU PENTSATZEN DUZUN GUZIA ESAN»**

Askotan behartzen nintzen haiekin pilotari bat elkarrizketatzeko. Pilotarientzat ez dira beti momentu errazak izaten. Ongi jokatu eta erraz irabazitakoan edozein pilotari prest izaten da elkarrizketa egiteko. Baina irratia bere orduak bete behar ditu, eta mikrofonoetara pilotariak edo enpresakoak eraman behar dituzu. Konfiantza eman didate eta ongi etorri zaizkidan gauza franko esan ere bai.

**Baina mikrofonoa aurrean ezin dena esan, ez?**

Hala da. Primizia asko ezin esan, eta beste kontu asko ere ez. Irratiak hori du, edo nik egin dudanean lanean batzuetan ezin duzu pentsatzen duzun guziaz esan. Kontuz hitz egin behar

**«TELEBISTAK PILOTA BEHAR DU BAINA PILOTA TELEBISTA ERE BAI»**

duzu. Hasi berritan, dena botatzen nuen, eta dena ezin da. Bota behar duzuna kontuz egin behar duzu, gainerakoan frontoitik atera eta etxera ailegatzeko mezuak izanen dituzu. Hasieran nire gorabeherak izan nituen, baina gerora esker onak gehiago izan ditut, bai pilotarien aldetik, baita pilotarien gurasoen edo senitarteko aldetik. Txapelkun edo partida ona jokatzeko duen batengatik hitz egitea oso erraza da, baina pilotari batek egin du txarra duenean... Beti esan izan dut gaizki jokatzeko duenean gehien sufritzen duena pilotaria bera dela, ni behinik behin hala nintzen. Hortaz, kontu handia izan behar da zer eta nola esaten duzun. Batzuetan hitz egokiak bilatuko nituen, besteetan ez... baina esker ona gehiago hartu dut.

**Momentu ez hain politen testigere izan zara. Pandemia, adibidez.**

Pandemia oso gogorra izan zen. Frontoietara joan, lau pilotari kantxan eta intendente bat berarekin, ikuslerik gabe... Nik fuerte samar hitz egiten dut, eta batzuetan pilotariak zer esaten nuen aditzen zidaten eta gaizki pasatu nuen. Uste dut irratia uzteko erabakia horko etorri zela. Momentu hartan ez nuen utzi. Pilota asko ematen zen eta ez zitzaidan bidezkoa iruditu. Baina honaino ailegatu nintzela eta urte bukaeran uztea erabaki nuen. Gero, txapelketa bukatu arte segitzeko eskatu zidatelako beste bost hilabetez segitu nuen. Guretzat gogorra izan bazen, enpresarentzat eta pilotarientzat askoz ere okerragoa. Askotan esaten da bi enpresek nahi dutena egiten dutela, eta batzuetan nahi dutena egiten dute, baina beste askotan ahal dutena. Orain, pandemia pasatuta, pixkanaka gora doa pilota, baina kosta egiten da jendea biltzea. Buruz buruko finalean frontoian 3.000 lagun biltzea oso oso polita izan zen, eta lau t'erdikoan eta binakakoan ere betetzen dira frontoiak, baina pilota urte guzian izaten da, eta triste da jende gutxi ikustea. Beharrik

euskal telebistari. Euskal telebistak pilota nahitaez behar du, audientzia ona duelako, baina pilotak edo enpresek ere euskal telebista behar dute.

### **Pilotarien greba ere bertatik bertara ikusi zenuen...**

Hori ere oso gogorra izan zen. Enpresak gauzak oso gaizki egin zituen. Laso, Mariezkurrena, Victor... Horrelako pilotariekin adostasun batera ez ailegatzea oso lotsagarria izan zen. Ez dakit zein eskaintza izanen zuten, eta ez da nire egitekoa, baina horrelako pilotariak kanpoan uztea... Pilotari horiek egin duten lana ikaragarria izan da, sekula baino hobeki prestatu dira, eta emaitzak hor daude. Laso txapeldun atera ez bazen ere, meritu ikaragarria izanen luke, horrenbeste hilabetez kanpoan egon ondoren, ikaragarriko maila ematen ari delako. Eta Mariezkurrenak ere lan bera egin du, binaka gora doan pilotaria da, eta Victor zer esanik ez... Egin duten lana eskertu beharra dago. Nik uste dut enpresari zer pentsatua eman izanen diola. Bi enprestatoko pilotariak Pilotarien Elkarte sortu dute eta oso beharrezkoa iruditzen zait. Espero dut pilotariak kanpoan gelditu aurretik hobekiago moldatzea. **Laso eta Ezkurdiaren arteko finala izan zen irratiko zure azken saioa. Nolako eguna izan zen?**

Oso egun berezia. Partida aurretik frontoira sartzerakoan euskal telebista agertu zen, eta polita izan zen frontoiaren kanpoan Goizuetako osaba Patxi-rekin eta Antton bere lagunarekin topo egitea. Haiek seguru bazekitela telebista han izanen zela, baina ni ezustean harrapatu ninduten. Bukatutakoan beste grabazio bat egin zidaten, nik uste lotsatu eta guzi egin nintzela, ez nuelako horrenbeste merezi. Jaialdia bukatutakoan jende asko agurtzeko esperoan egon zen, 'Julian, suerte izan', 'Segitzen ahal huen'... esanez. Txetxu Urbietak pilotarien kristoren audioak bildu zituen. Inondik inora ez nuen espero horrelakorik.

## Julian Iparragirrekin kontu kontari

### **Pilotari bat?**

Zaila da aukeratzea. Niretzat izar haundienetarikoa bat Julian Retegi izan zen, pilotari ona eta buruz listoen. Gaur egun dagoen mailarekin beharbada ez zituen hainbeste txapel izanen, baina gaur egun ere oso ona izanen zen. Eta gero, Beloki, Eugi, Aimar, Irujo... Irujok pilotan aldaketa ekarri zuen. Ordura arte ia-ia botera jokatzen zen eta bere aireko joko azkarrarekin aldaketa ekarri zuen. Aimarrengatik zer esan, fenomeno bat. Oso pilotari ona zen, eta enpresan ere lana oso ongi eginen duela iruditzen zait. Gaur egungo atzelari bat esan beharko banu, Joxe Jabier Zabaleta aukeratu nuke, elegantea delako. Altuna ere hor dugu 25 urte-rekin horrenbeste txapelekin, Laso ere atera zaigu...

### **Pilotari jaio edo egin egiten da?**

Pilotari izarrek jaio egiten dira. Beste batzuek, lan asko eginez, maila ona har dezakete.

### **Frontoi bat?**

Labrit. Beharbada partidarik gehienak hor eman ditut, jendetza biltzen da, jokatzeo plaza polita da...

### **Telebista edo irratia?**

Kotxean kilometro asko egingdakoa naiz, eta askoz ere ordu gehiago pasatu ditut irratia aditzen telebista ikusten baino. Irratia aukeratu dut.



### **Zein dira zure afizioak?**

Pilota eta mendia. Oraindik ongi nago eta ez dut ibiltzeko minik. Tarteka, Plazaolan, bizikletan ere gustura ibiltzen naiz.

### **Mendi bat?**

Mendaur. Garai batean eta orain ere askotan joaten naiz. Txindokira ere asko joaten naiz, eta egun-pasa Aizkorrira ere bai. Pilotari onak asko dira, eta mendi politikak ere asko. Suerte ikaragarria dugu kotxea hartu eta etxetik ordu erdi edo ordu batera mendirik politenak ditugulako. Itsasoa ere ordu erdira dugu. Pribilegiatuak gara bizi garen tokian bizi garelako.

### **Leitzako txokorik gustukoena?**

Eguzkizko muinoa. Horixe da gehien joaten naizen kaxkoa,

oso kaxko polita da. Garai batean ordu batez igotzen nintzen, eta orain pixka bat gehiago behar dut. Horrek esan nahi du zahartzen ari naizela, baina oso gustura joaten naiz.

### **Eta Arantza aldekoa?**

Bulatsegi polita da, eta gehixeago ibiltzeko Mendaur, gure baseritik hurbil dago. Ekaitza aldea ere gustatzen zait. Arantzak mendi ederrak ditu, eta Mendaurtik Ekaitzara, eta Mendaurtik Ekaitzara, eta herrian bueltan herrira joan eta herrian bazkaltzea plan ederra da. Arantzagatik zer esanen dut... Urte asko daramatzat Leitza, baina berez arantzarra naiz, 18 urtera arte Arantzan oso pozik bizitutakoa. Oso eskertua nago herriarekin, eta batez ere, Bordalarreko auzotarrekin.

### **Geroztik asteburuetakoa martxa aldatu zaizu?**

Bai, lasaiago nabil. Lehenago, bai larunbatetan bai igandetan, bazkaldu eta martxa egiten nuen. Estitxu alaba eta bikotekidea ondoan bizi dira, baina Iñaki semea familiarekin kanpoan, eta askotan ostiraletan joaten ginen beraiengana nik asteburuetan frontoietan ibili behar nuelako. Orain asteburuetan familiarekin gehiago ibiliko naiz. Askok esan didate orain disfru-

tatzeko. Orain arte ere asko disfrutatu dut frontoian, eta orain beste modu batera eginen dut, familiarekin gehiago.

### **Eskerrak nori emanen zenizkioke?**

Hasteko, irratiko lantaldeari, jende zoragarria ezagutu dut. Ez dakit zenbat ikasi dudan, baina asko erakutsi didate. Euskal telebistari ere bai; Euskadi Irratiko Arantxa Arzari eta zuei Leitza elkarriketa egitera propio etortzeagatik; Leitzako eta Arantzako jendea ere bai,

ez nuen espero halako harrera eta oso eskertua nago. Bordalarreko auzotarrak ere aipatu nahi nituzke, baita Arantzako lehen-gusuak ere, eta bereziki Luziari eskerriko asko. Eta noski, familia. Beti esan izan dut bizi honetan aurrena osasuna dela eta gero familia, eta suerte ikaragarria izan dut familiarekin. Andrea, seme-alabak eta haien bikotekideak, bi biloba zoragarr... Ni bakarra gauza pixka naiz inguruko laguntzarik gabe.

## Matxus Perugorria ikerlaria saritu dute Londresen


Emerging Leader Award saria eman dio Gibelaren Europako Elkarteak

### A.LARRETXEA

Gibelaren Ikerketaren Europako Elkarteak Emerging Leader Award (Etorkizuneko Liderren Saria) eman dio Matxus Perugorria ikerlariari. Sari horrek 40 urtetik beheitiko ikerlariak gibelaren azterketan egindako ikerketa lana aitortzen du. Ekainaren 22an jaso zuen saria Perugorriak Londresen egindako Gibelaren Nazioarteko Biltzarran.

Perugorria Biodonostia OII-ko gibeledo eritasunen taldean dago, eritasun hepatico eta gastrointestinalen atalean. Gibeledo gaixotasun kronikoaren, fibrosiaren eta zirrosi hepaticoaren zabalkundean eta gibeledo tumore primarioen garapenean parte hartzen duten mekanismo molekular eta zelularren ikerketan esperientzia handia eta nazioarteko aitortzea dauka.

Bere ibilbidean sari gehiago ere eskuratu ditu ikerlariak. 2019an Europako Gastroenterologia Elkarteak emandako Rising Star Award Saria eskuratu zuen, eta 2020an



Matxus Perugorria ikerlaria. UTZITAKOIA

Ikerbasque fundazioak bere ikerketa ibilbidea saritu zuen.

Perugorriak Nafarroako Unibertsitatean egin zuen doktoretza, gibeledo lesioaren bilakaerari lotutako mekanismo molekularak aztertu ondoren. Gero, doktoretza ondoko egonaldia Newcastleko Unibertsitatean egin zuen, eta Parisiko Unibertsitatean eta Vienako Unibertsitatean ere ibili zen ikerketan. 2012an hasi zen Biodonostian lanean.

## Mugaz gaindiko artzaintzaren diagnostikoa egiteko prozesua abian

### A.LARRETXEA

Lurraldearen garatzen lagunduko duten tokiko ekimenak garatzea ezinbertzekotzat jotzen du Berako udalak, eta bide horretan, sortu dute mugaz gaindiko artzaintzaren inguruko diagnostikoa sortzeko prozesua. 2021etik, Gure Mendia deituriko lan taldea martxan da, eta lan talde horren ondorio da orain sortu dena. Urruña, Azkaine, Biriatu, Ziburu, Sara, Senpere, Ainhoa eta Baztanekin batera lantzen ari dira

Diagnostikoa eraikitzeko lehen urratsa, lurraldearen inbentario orokor bat egitea izanen da, deskribapena, erronkak eta arazoak aztertuz. Horretarako, mendietako artzain eta abeltzainei egingo zaizkie inkestak beren erabilerak, beharrak, artzain-

tza-abeltzaintza erabileraren mailak eta motak zehaztu eta zerrendatzeko. Halaber, mendien bertze erabiltzaileak ere elkarriketatuko dituzte: basozainak, ehiztariak, aisialdia mendian egiten dutenak...

Larhun eta Xoldokogaina eremuko artzaintza-erabileraren mapa kolektiboa izanen da lanaren emaitza. Halaber, abeltzainen behar eta mugen azterketa eta erronken irakurketa komuna eta espezializatu ere egingen dute: larreetan aritzeko eremuak, mugaz gaindiko azpiegituren proiektuak (ur-hornidura), trafiko handia dela eta saihestu beharreko eremuak eta suteen prebentzioan sinergiak bultzatu behar diren eremuak.

Ekainaren 1ean hasi ziren proiektua lantzen, eta 2022ko urriaren 23a arte luzatuko da.

## Espaloiak konpontzeko lanak egiten ari dira

Kanttonberriko zubian hasi, eta Elektrobiaraino espaloiak konpontzeko lanak hasi zituzten pasa den astean, eta aste honen hondarrerako bukatzea espero dute. Udalak erran duenez, lan hauen helburua, oinezkoentzat herria irisgarriagoa egitea da.



Kanttonberriko zubia. UTZITAKOIA

**LABE ZAR**  
Astebenerik ortziralarik:  
07:15etik aitzinera  
Larunbata eta igandak:  
08:00etatik aitzinera  
948 631 076 • BERA

744 484 361  
ttipi-ttapa

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
© 948 630 763 · Alizate, 17 · BERA

*Egin erreseta*  
**Ansonera** ostatu jatetxea  
TXUPINAZO EGUNEAN  
10:00etatik aitzinera  
HAMARRETAKOAK  
Bestetan eguneroko:  
Pintxoak  
Plater konbinatuak  
Bokatak  
Menua  
Eta terraza giro ederra!!  
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

# Gavarniera eta Taillonera irteera larunbatean

Manttalek eta Agerra Mendi Taldeak antolatu dute irteera Taillonon hildako hiru mendizaleen omenez

## A. LARRETKEA

Azkeneko aldizkarian aipatu genuen gisan, Taillonon hildako Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi oroitzeko mendi ateraldia prestatu dute Agerra Mendi Taldeak eta Manttalek. Larunbat honetan, uztailak 16 izanen da irteera, eta nahi duten guztiak parte hartzen ahal dute.

Bi irteera desberdin prestatu dituzte. Bietan errazena Gavarnie herriatik aterako da Bujarueloko lepora igotzeko. Denera lau ordu inguruko ibilbidea eta 600 metroko desnibela izanen ditu. Bigarren irteera, aldiz, gogorragoa izanen da, mendizale zailduagoentzat. Col de Tentetik aterako da, Bujaruelotik pasa eta Sarradetseko aterpetxera ailegatzeko. Bertatik, Errolanen Bretxan barrena Taillonera

igoko dira. Itzulera bide berdinetik egingen dute, eta ibilaldiak denera 6 ordu inguruko iraupena eta 1.200 metroko desnibela izanen dituela kalkulatu dute.

Ondotik, bi martxetako partaideak Bujaruelon elkartuko dira, Taillonon zendutako Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegiren omenezko monolitoan. Omenaldiaren ondoren Gavarnie herri ondoan bazkaria egingen dute.

Txangoa 05:30ean aterako da Iamotenea pareko aparkalekutik eta iluntzean, 21:00ak edo 22:00ak inguruan, ailegatu dira bueltan Berara. Prezioa 25 eurokoa da, eta autobus bidaia, eta bazkaria daude barne.

Izen emateak mugatuak dira eta Agerrako Pikabea Harategian egin behar dira.

## Lasartek eta Erdozainek irabazi dute iazko Nafarroako Mendi Lasterketa kopa

### A. LARRETKEA

Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatutako Mendi Lasterketen XII. Txapelketako Kopa irabazi zuten iaz Gure Txokoa taldeko Ibon Erdozain eta Joseba Lasarte lasterkariak, eta ekain bukaran federazioak antolatutako galan jaso zituzten garaikurrak.

Zazpi lasterketek osatu zuten iazko Nafarroako Mendi Lasterketen XII. txapelketa, eta horietatik seietan partu hartuta lortu zuten garaipena bi lasterkariak. Senior mailan nagusitu zen Ibon Erdozain,



Erdozain txapela buruan duela.

eta beteren mailan Joseba Lasarte.

Aurtengo kopa 14 lasterketek osatu dute eta abenduaren 31n jakinen da irabazlea zein den.



Finalistak, eta Beratik animatzera joandako herritarrak. JOXE MIGUEL LAZKANOTEGI

## Herriko pilotariak Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketako finalean

### A. LARRETKEA

Uztailaren 2an Iruñean jokatutako Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketako haurren mailako finala jokatu zuten herriko pilotariak Donezteberren kontra.

Seinetan, Beñat Goñi Etxalarko Erik Igoarekin batera aritu zen, eta 18-12 irabazi

zieten Elizalderi eta Leizari. Kimuetan, Jon Lazkanotegik Arantzako Ander Etxegarairerkin osatu zuen bikotea, eta 18-5 galdu zuten Leiza eta Ezkurraren kontra. Haurretan Loitzate Goñi eta Markel Kortaritu ziren, eta 18-13 galdu zuten Barbarin eta Madariagaren kontra.

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

**IBARGOYEN**  
SUMINISTROS CARROCEROS

**www.ibargoyen.net**    **943 616 587**  
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Bizibide aurkezpenaren ondotik ibilaldiak egin zituzten txirrindulariak. A. AROTZENA

## Mendi bizikletarako bortz ibilbide prest ditu Bizibidek

Bertze hainbat zerbitzu eskaintzen ditu egitasmoak eta herrietako komertzioetan erabiltzeko bonuak

### AITOR AROTZENA

Mendiko bizikletarekin ibiltzeko ibilbideez gain, bertze hainbat zerbitzu eskaintzen ditu Bizibide proiektuak. Ekainaren 26an egin zuten aurkezpena. Lesakako mendietan barna, XC ibilbideak (BTT) eta enduro ibilbideak sortu ditu udalak. Momentuz, 26 eta 38 km arteko bortz ibilbideren artean aukeratzen ahal da. Bide guztietan, Bizibideko logoa daukaten seinaleak paratu dituzte eta track-ak nahiz datuak deskargatzeko aukera dago webgunean. Proiektua Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bati esker atera da aitzinera.

Harrera-zentroa kiroldegian dago. Bertan, hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte: hala nola, dutxak eta aldagelak, auto-konponketa gunea, garbiketa puntua, bizikleta gordailua, spa eta igerilekuak eta autoa aparkatzeko gunea. Bizikleta garbitzeko eta konpontzeko guneak guztiz doan izanen dira, baina bizikleta gordailuarengatik (5 euro), spa-rengatik (3 euro) eta dutxarengatik (5 euro) ordaindu beharko

da. Hala ere, azken hiru hauek dohainik edukitzeko aukera ere bada, Lesakako udalak sortu duen sistema bati esker, bonu batzuetan eta zigilu batean oinarritzen dena.

### Bonuak

Bisitariak horietako zerbitzu batengatik ordaintzerakoan, ordaindutako kopuruaren balioa daukan bonu bat hartuko du. Bonu hori Bizibide zigilua daukaten Lesakako establezimenduetan erabili ahal du eta bertan, bonuaren arabera deskontua egingen diote. Beraz, dutxa, spa eta igerilekua eta bizikleta gordetzeko zerbitzua dohainik atera daitezke, baldin eta Bizibide-establezimendu batean gastua egiten bada. Establezimendu hauen zerrenda [www.bizibide.eus](http://www.bizibide.eus) webgunean eskuragarri dago, baita bonuetan etortzen den QR kodea eskaneatuz ere. Bizibide-sarean dauden establezimendu hauek, txirrindularientzako zerbitzu gehigarri bat eskaintzen dute guttienez (erreminta kit-a, botikina, elikagai eskaintza egokitua...).



UTZITAKO ARGAZKIA

## Uxuri Portu Espainiako txapeldun

Espainiako trial txapelketa jokatu zen ekainaren 25ean Cartagenan (Murtzia) eta bertan izan ziren, Nafarroako selekzioarekin, Xabier Valverde eta Uxuri Portu. Biek proba bikaina egin zuten, Uxuri Portuk batez ere, txapeldun izan baitzen 9 eta 12 urte arteko nesken kategorian.



UTZITAKO ARGAZKIA

## 'Asmazan prezio zehatza' sariduna

Begoña Alzugarai izan da Zerbitzuen Elkarteak antolatutako *Asmazan prezio zehatza* lehiaketaren irabazlea. Bezeroek, beraien erosketa bakoitzaren truke, erakusleho horren prezioa asmatzen saiatu behar zuten. Prezio zehatza 1.317,95 eurokoa zen eta Alzugarai 1.317 euroekin egin zuen apostu.

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
[zubiondojatetxea.com](http://zubiondojatetxea.com)

**BERRI S.L.**  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65





Kultur etxeko arkupean merienda eskaini zuten. JABIER IRIARTE

## Kultur etxearen 20. urteurrena gogotsu ospatu dute

Lehiaketa irabazi duen logotipoa aurkezteaz gain, proiektzioa, merienda eta trikitilariak izan dituzte

### IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 30a izan zen ospakizun eguna. Kultur Etxearen 20 urteko ibilbidea ospatzeko logo lehiaketa antolatua zegoen, eta logoaren aurkezpen ekitaldiarekin hasi zen besta. Irabazlea Aritz Kabe izan da, eta azaldu zuenez, irudia sortzeko kultur etxeak duen erai-kinaren arkitekturari erreparatu dio eta egurrezko zutabe bertikal eta horizontalen abstrakzio bat sortu du erlojuaren borobila markatuz. Gero, *Etxalarko bestak 1980ko hamarkada bukaeran* proiektzioa jarri zen. Bi ekitaldiak harrera ona




Kultur etxearen logotipoa. ARITZ KABE

izan zuten eta bukatzeko, berrendua eta musika izan zuten. Hurbildutako guztiei eta bereziki herriko trikitilarietara eskerrak eman dizkiete, borondatez eskainitako saioagatik.

## Bestetako kartel eta azal lehiaketan sarituak

Etxalarko Udaleko kultura batzordeak bestetako kartel eta azal lehiaketaren seigarren edizioa antolatu du. Azal saritua Andrea Gouraud beratarrena izan da eta 100 euroko saria irabazi du. Karteletan berriz, ez da irabazlerik atera. Aurten lan gutti aurkeztu dira lehiaketara.



ANDREA GOURAUD



ANA INDABURU

## Bi urte eta gero berriz San Juan suak

Bi urteko etenaren ondotik, urteko gaurik laburrena berezia izan zen. Ohiko egitarauari (kalejira joareekin, afari herrikoia, suaren piztea txistulariekin) 'Sorginen dantza' gehitu zioten aurten (argazkian). Jende aunitz hurbildu zen plaza ingurura ekitaldiaz gozatzera.

**caser residencial**  
www.caserresidencial.es

**Egonaldi motak**

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoen zuzeneko egonaldiak
- Eguneko zentroak
  - 365 egunetan irekiak
  - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
  - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

**ANAKA** | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780  
**BETHARRAM** | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 160

**USOA**  
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244  
**ETXALAR**

**F. LANCHAS**

Akutziladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzaillea jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

## Dantza taldearen lehen emanaldia uztailaren 15ean

Hamahiru urtetik goitiko herriko dantzarien txanda izanen da ortziralean 22:00etan plazan

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Joan den urtean, egoerak hala eskatzen zuelako, dantza taldeak urteroko emanaldia bi zatitan egin zuen. Modu honetan talde bakoitzak bere emanaldia gehiago gozatzeko aukera zuela ikusirik, hemen-dik aitzinera hala egitea erabaki dute; bata, beti bezala, besten aitzineko asteburuan eta bertzea, San Juan egunaren bueltan. Aurtengo ikuskizunaz gozatzeko aukera uztailaren 15ean izanen da, ortziralean 22:00etan, eta 13 urtetik goitiko herritarrak ariko dira.

### San Juan Xar

San Juan eguna urruti xamar gelditu bada ere, aipatu gabe ezin gelditu egun horretan izan zen giroa: meza, dantzariak, kantina, jubilatuen bazkaria... Berrikuntza gisara, autobusa ere izan zen herritik joan etorrian. Bertzalde, ohi-tuei jarraituz, uztaileko igandean ere Meza Nagusia bertan ospatzen dute; 12:00etan eta, Biltoki Tikikoen eskutik kantina ere izanen da bertan tragoxka, pintxo eta San Juan erroskilak erosi eta dastatzeko.

### Hamabortz neska-mutiko hasi dira udalekuetan

Bortzietako Euskara Mankomunitateak udalekuak antolatu ditu. Herrian 15 hurrek eman dute izena eta Ninbe Urtxegi Urrea eta Maiana Sein Arburua ariko dira begirale. Udaleku hauek hilaren 4tik 29ra dira, asteleheneetik ortziralerara 10:00etatik 13:00etara.

### Gazteentzako sexologia tailerra arrakastatsua

Guraso elkarteak Gizarte Zerbitzuakin batera, gazteentzako sexologia tailerra antolatu zuen uztailaren 4an. Izen emandakoen kopurua ikusirik, bi talde egin behar izan zituzten. Gerizpe Elkarteko Iratxe Arretxea eta Itsaso Baquedano sexologia aritu ziren.

### Oihan Telletxea Espainiako txapeldun

Oihan Telletxea Sein futbolaria ari da bere ibilbidea egiten. 14 urtez beheitiko Espainiako txapelketan parte hartu du Euskadiko selekzioarekin. Ekainaren 22an Pontevedran jokaturako finalean Euskadik 3-1 irabazi zion Murtziari. Beraz, Euskadi txapeldun.



UTZITAKO ARGAZKIA



UTZITAKO ARGAZKIA

### Pirinioetako Bidea Igantzin

Uztailaren 2ko ekimenean igantziarrei Unanu mendia egokitu zitzaigun. Larunbatean 19:00etan Lasarte-Oriatik etorritakoekin herriko aparkalekuan elkartu ondotik, 20:30ean berendu-afaria egin eta 22:00etan biztu zituzten argiak. Argazkia atera eta herrirako buelta egin zuten.



**ZUMARBEL**  
creaciones metálicas  
Igantzi (Navarra)  
948 63 74 11



**Lehen A.T.M. S.A.**  
Berrizaun 25,  
31790 IGANTZI  
T. 948 63 74 11  
zumarbel@hotmail.com  
www.zumarbel.es





**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria  
asteleheneetik ortziralerara



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



**MARTIX**

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- BOLETIN INDUSTRIA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

Legia, 23 - BERA

# Arantza Rock-eko taldeen berri eman du gazte asanbladak

Abuztuaren 6ko frontenis txapelketan 22 bikotek eman dute izena

## NEREA ALZURI

Uda bete-betean, atsedetik gabe lanean segitzen du gazte asanbladak. Abuztuaren 20an Arantza Rocken 25. edizioa ospatuko dute eta ekimenaren aldeko pilotakadak eman dituzte azken hilabeteetan. Ekainean esku pilotan aritu ziren eta abuztuaren 6an, frontenis txapelketa jokatu dute. 22 bikotek eman dute izena: Zortzi bikotek haurren kategorian eta 14k helduetan.

Bertetik, abuztuaren 20ko emanaldiak eskainiko dituzten taldeak zein diren ere jakinarazi dute: Ilunabarrean Matraka elektrotxarangak girotuko ditu karririk. Eta arratsean, lau musika talde ariko dira: Modus Operandi, Janus Lester, Kinada eta Patxuko Nice. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira plazan eta sarrera bortz euro izanen da.

## Udako kontzertuak Aterpen

Aterpean ere udako kontzertuekin gozatzeko aukera izanen da, uztailearen 17tik irailaren 3ra, zazpi talde edo bakarlariren emanaldiak antolatu baitituzte.

Igandean, uztailearen 17an, 12:30ean, Estitxu Pinatxo beratarren emanaldia izanen da. Uztailearen 23an, Haitza taldearen kontzertua (22:00) izanen da; eta 30ean, Onki Xin taldea gonbidatu dute (22:00).

Abuztuaren bi hitzordu prestatu dituzte: Abuztuaren 13an, Ruper Ordorika eta Joseba Irazokiren kontzertuak eta afaria izanen dira (19.30). Eta abuztuaren 17an, Arima Soul Sistem (Lidia Insausti eta Makala) eta Makala DJa, 19:30ean eta 23:00etan..

Denboraldiari akabaila emateko, irailaren 3an, Ding Wash reggae taldea ariko da, 19.30ean.



I. UGALDE

## Sanjuan bezperako sua giro ederrean

Ohiturari segituz, guraso elkartearen ekimenez, San Juan bezperako sua piztu zuten parkean. Eguraldiak horretarako aukera eman zuela probestuz, su gainean saltoka ibili ziren haurrak, gaztetxoak eta gurasoak eta ondotik parkean afaldu zuten.



I. UGALDE

## Ekaitza eta Zepuru argiztatuz

Pirinioetako Bidea ekimenaren barrenean, uztailearen 2an, autodeterminazio eskubidea aldarrikatuz, herriko mendi gainak argiztatu zituzten. Herritarrekin batera, Gipuzkoa aldetik etorritakoek Ekaitza eta Zepuru tontorrek argitu zituzten. Hori baino lehen, arratsaldean kalejira egin zuten. (Ikusi 21. or)



I. UGALDE

## Bortziriak dantzan hitzordu polita

Joan den ekainaren 25ean, Bortziriak Dantzan hitzordua izan zen frontoian. Jeiki Hadi taldearekin mutxikoak eta bertzelako euskal dantzak dantzatzen arratsalde ederra pasatu zuten herritarrek eta inguruko herrietatik etorri zirenek.

 <p>Denda, 948 631 217 T. 630 136 863 Julio Caro Baroja, 6 - BERA jaurenabera@gmail.com</p>	<p>Elektrizitate lanak orokorrean Erreformak, etxe berriak Lantegietako mantentze-lanak</p>
	<p>Eguzki-panelen instalazioa eta dirulaguntzen gestioa</p>

<p><b>Ainhoa Alzuguren Mitxelena</b></p> <p>Abokatutza orokorrean · Herentziak Alokairuak · Arazo administratiboak</p> <p>Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko</p> <p>Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com</p>
---

## «Bor-bor» paratu dute euskara Bortziritan

Bor-bor Bortziritako Euskaltzaleen Mugimendua aurkeztu zuten Lesakan uztailaren 2an

### TTIPI-TTAPA

«Bor-bor sortu dugu, Bortziritako euskaltzaleen mugimendua, gure herrietan euskara sendoago aditzeko, esparru berrietara zabaltzeko, geuretik aritzeko, indarrak biltzeko. Mugimendua osatu nahi dugu, bor-bor paratu gure herriak. Elkarrekin ari, batera ekin». Halaxe aurkeztu zuten pasa den uztailaren 2an Lesakan egindako jende aitzineko ekitaldian Bor-bor Bortziritako Euskaltzaleen Mugimendua.

Urtebeteko lan isilaren ondotik jaio da euskararen aldeko Bortziritako elkarteak eta ezagutarazteko aurkezpen ekitaldi xumea egin zuten Lesakan Plaza Zaharrean. Maitte Bidarte kazetariak egin zituen aurkezle lanak, eta Bortziritako eragile ezberdinek hartu zuten parte. Umore tonuan, orain arte egindako bidea azaltzeaz arduratu ziren Ritxi Abril eta Juanen Saralegi antzezleak. Horiekin batera Bortziritako hainbat dantzari hartu zuten parte ekitaldian, eta baita hiru belaunaldi eta herritako bertsolariak ere: Arantzako Kattin Madariaga, Berako Julen Zelaieta eta Lesakako Manolo Arozena.

### «Elkarrekin eta batera»

Arantzako Mentxu Peña eta Etxalarko Beñat Irtzoki euskaltzaleak arduratu ziren elkarrekin sorrera mezua irakurtzeaz. «Euskara dantzan paratu nahi dugu. Mugimenduan. Futbolearen edo pilotan jostetan. Rapean eta bertsoetan. Pantailan eta paperean. Mugimenduan. Bor-bor».

Bor-bor zertarako sortu den ere azaldu zuten: «Orain arte euskalgintzak egin duenetik ikasi, eta bide berriak urratzeko. Bortziritako herritarren arteko indarrak bildu, metatu, pilatu, jauzi bat emateko. Herritarren, zuen guztion, gu guztion kemena bildu nahi dugu, barreneko sentimendu gartsua atera, euskararen alde paratu». Bide hori dena «elkarrekin eta batera» egiteko beharra nabarmendu zuten: «Elkarlanean eta elkarrekin aritu nahi dugu. Euskara gure karraketan aditzeko, eta gure etxeetara, lantokietara, ostaluetara eta eskolara sartzeko. Zernahi lanetan aritzeko. Nonahi mugitzeko».

### Murala herriz herri

Mezua irakurri ondotik, Bortziritako borts herrietako dantzariak aurkezpen egunerako espresuki sortutako agur berezia dantzatu zuten, eta Bortziritako Bertso Eskolako kideen abesti batekin bukatu zen ekitaldia. Hauek abestu bitartean, plazaren ale batean Bor-Borren logoa erakutsi zuten, eta bertzean, aldiz, Unai Ruiz artistak egindako murala. Ekitaldia bukatzeko, irudi hori hartu, eta kalejiran Eskol Ttikira eraman eta bertan utzi zuten.

Sanfermin besta guztiak Lesakan pasatu ondotik, hemen dik aitzinera Unai Ruizek egindako murala herriz herri ibiliko da udan. Irailetik aitzinera abiatuko da, aldiz, elkarrekin jardun iraunkorra Bortziritan euskararen presentzia areagotu, eta herriak euskaraz bor-bor paratzeko.



Juanen Saralegi eta Ritxi Abril antzezleak. TTIPI-TTAPA



Mentxu Peñak eta Beñat Irtzokik irakurri zuten mezua. TTIPI-TTAPA



Bortziritako hainbat dantzari agur berezia dantzatzen. TTIPI-TTAPA



Lesakako Eskol Ttikin paratu zuten murala. TTIPI-TTAPA



Dozenaka lagun bildu ziren Agiñan mendia argiztatzeko. UTZITAKOIA



Baztandarrek Legaten egin zuten bat ekimenarekin. UXUE SALBOTX

## Eskualdeko hainbat tontor argiztatuak Pirinioetako Bidean

Ehunka lagunek egin zuten bat uztailaren 2an Gure Eskuk antolatutako ekimenarekin

### TTIPI-TTAPA

Larhun, Manttale, Agiña, Kori, Unanu, Ekaitza, Otezoiana, Atxuri, Legate... dozena bat baino gehiago izan dira eskualdean Pirinioetako Bidea ekimenak argiztatu dituen tontorrak. Uztailaren 2rako egina zuten hitzordua Gure Esku ekimenak eta Katalunia-ko hainbat elkartek Pirinioak argiztatzeko. 22:00etan ziren linternak piztekoak, eta ordu erdiz argiztatu zituzten «herrien erabakitzeko eskubidearen alde» Hondarribitik Cap de Creusera bitarteko Pirinioetako 300 gailur.

Hitzordua 22:00etarako egina bazen ere, lehenagotik nabari zen mugimendua argiztatu beharreko tontorrak zeuden herrietan. Hainbat herritan txangoak antolatu zituzten oinez tontorrera elkarrekin igotzeko. Giro ederra izan zuten mendian, eta izan zen musika tresnekin igo zenik ere.

Eskualdeko herritarrak, ez ziren ordea, bertako tontorrak argiztatzeko ibili ziren bakarrak izan. Aunitz izan ziren eskualdera bertze lekuetatik etorri-

takoak: Sakanakoak Alkurruntzen eta Gorramakilen izan ziren, Tolosaldekoak Zipurun eta Urkidin, Goierrikoak Mendaurren, Urolatik etorritakoak Manttalen eta Larhun... Euskal Herriko txoko aunitzetako jendea elkartu zen tontorretan. 22:00etan argiak piztu, eta tontorrak argiztatu ondotik, berriz ere itzulerako bidea hartu zuten.

### «Magikoa»


Ekimena burututa, Pirinioetako Bidearen balorazio positiboa egin dute Gure Eskuko eledunek: «Pentsatze hutsa euskal herritar asko etxetik 300 kilometrora joan direla hirumilako bat egin eta gailurrean argia piztera... hunkigarria da», nabarmendu zuten ekimenaren ondotik egindako prentsaurrekoan. Pirinioetako Bideak «erabakitzeko eskubidearen argia pizteko» balio izan duela nabarmendu zuten. Azaldu zuten ekimenaren bidez milaka eta milaka herritarrek adierazi dutela erabakitzeko eskubidearen alde daudela, eta beraiek «anbizioz» jokatu dutela.



Malerrekakoak eta Bertizaranakoak Oteitzoiana mendira igo ziren. UTZITAKOIA



Leitzako eta Aresoko herritarrak Atxuela mendian izan ziren. MIKEL ILLARREGI



Arantzatik Ekaitzako kaskora joandako mendizaleak. UTZITAKOIA



Eskolako ikasle eta irakasleak Peru Harrin. UTZITAKOIA

## Ikasturteari agur polita egin diote eskolan

Azken egunean Doneztebera paseoa egin zuten eta aitzinetik Leitzako Peru Harri ere bisitatu zuten ikasleek

### MAIDER PETRIRENA

2021-22 ikasturteari agur polita egin diote. Ekainaren 22an ikasturteko azken eguna ospatu zuten ikasle eta irakasleek. Goizean ikasle guztiak, paseo bat emanez, Doneztebeko Inzakardi parkera joan ziren. Bertan jolastu eta, urtero bezala, udalak eskainitako gosaria hartu ondotik, LH 6. mailako borts neska eta borts mutileri agurra egin zieten. Lehenik 10 ikasle hauek Itziar beraien irakasleari aureskua dantzatu zioten, Andrea irakaslearen txistu soinuaren laguntzarekin. Ondotik, talde bakoitzak pres-

tatutako dantza eta koreografiak egin zituzten eta bukatzeko irakasleek 6. mailako ikasleei bertso eder bat abestu zieten. Honekin ikasturtea bukatutzat eman zen eta orain denek mereritako atseden garaia hasi dute. Aitzinetik, Leitzako Peru Harrin izan ziren. Denbora lagun izan zuten eta Iñaki Perurenaren eskutik harri-jasotzaile izan zeneko kontuak kontatu zizkieten. Tartalo ere entzun zuten mendian, eta bukatzeko, harrijasotzaile erraldoiaren aurrean argazkia atera zuten. Bikain pasatutako txangoa izan zen.

## Bestetako kartel lehiaketarako lanak uztailaren 15era bitarte aurkez daitezke

### M. PETRIRENA

Santiburtzio bestetarako kartel lehiaketa deitu du udalak. Lanak aurkezteko epea irekia dago uztailaren 4tik 15era. Ortziraleko 15:00 arte aurkez daitezke lanak udaletxean edo [info@sunbilla.com](mailto:info@sunbilla.com) helbide elektronikoan. Gaia, noski,

'bestak' izanen dira eta bi adin tartetan banatuko dituzte parte-hartzaileak: 14 urtetik beheitiko sunbildarrak eta 14 urtetik goitiko sunbildarrak. Nahitaez Sunbillako *Tiburtzio Deunaren Bestak 2022* leloa agertu beharko du. Argibide gehiago udaletxean.



UTZITAKOIA

## 12.137 euro garbi osasunaren alde

Maiatzaren 21eko osasunaren aldeko egunaren kontuak egin eta 12.137 euro garbi atera ziren. Honela, 6.000 euroko txeke bana eman diete Saray Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarteari eta MPS Lisosomales elkarteari. Gainerako 137 euroekin bertze ekitaldiren bat antolatzen hasiko dira.



AMAIA APEZETXEA

## Euskadiko BTT Openean ere garaile


Uztailaren 3an Izkuen jokotutako hondarreko proban hirugarren izan zen Eneitz Bertiz, gorpila bi aldiz zulatu ondotik. Halere, aitzinetik egindako lana baliagarria izan zitzaion eta Euskadiko BTT Opena irabazi du junior mailan. Koldo Herrera hirugarren izan da 23 urtez beheitiko mailan.

**LIDERA**  
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Itzurunubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)  
Tel. 722 662 478 | [lidera@hortzklínika.es](mailto:lidera@hortzklínika.es) | [@lidershortzklínika](https://www.instagram.com/lidershortzklínika)

**BORDAKOIA**

**Carnes Sein Haragiak, S.L.**  
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
T. 943 467 244 | 943 467 444 • [carnessein@bordakoia.com](mailto:carnessein@bordakoia.com)



Mikel Belaskoain erakusketaren inaugurazioan. NAFARROAKO GOBERNUA

## Kultur 2022 abiatzeko 'Lilura' ikusgai Bertizen

Mikel Belaskoain 'Lilura-Olerki magikoak' erakusketa ikusgai da Bertizko natur parkeko hainbat gunetan abuztuaren 30a arte

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatua, Kultur programaren 27. edizioa ekainaren 25etik irailaren 11ra bitartean egiten hasiari dira, Nafarroako 40 herritan eta leku berezitan. Eskualdeari dagokionez, Bertizen abiatu da, olerkiak, pintura eta eskultura batzen dituen erakusketa batekin. Hain zuzen, Bertizko Lorategi Botanikoak, proiektzio-aretoak eta erakusketa-aretoak Mikel Belaskoain artistaren *Lilura-Olerki magikoak* erakusketa erakusten ari dira uztailearen 1etik abuztuaren 31ra.

2022an, proiektu artistikoak garatzeko plataforma eta sorkuntza-fabrika den Arte Berriko Fabrikaren hamar urteko ibilbidearekin bat eginez, koloreari, poesia bisualari eta magiari lotutako hamabortz azalpen-puntu paratu dituzte, Bertizko naturarekin eta haren espazioekin bat eginez. Lilurak bere baitan biltzen dituen harridura, ilusioa eta xarma sortu nahi dituzte. Erakusketa proiektu honek hamarkada

honetan bidelagun izan duten energia laburtu nahi du; eta energia hori opari gisa agertuko zaie uda honetan Bertiz bisitatzen duten pertsoneri. Erakusketan pintura, eskultura, musika, argazkiak eta zinema izanen dira aukeran, lorategietan, erakusketa aretoan eta Bertizko proiektio aretoan banatuta.

**Egunero**, 17:30etik 18:00etara *Luna negra* filma proiektatzen ari dira. Abuztuan bisita gidatuak eskainiko dituzte eta **abuztuaren 4an eta 25ean**, ortzegunak 17:30ean, Holly Mirandaren emanaldia. *Un bosque* eskulturen musikaren konpositorea da Miranda.

### Beran eta Elizondon uztailearen 29an

**Uztailearen 29an**, ortziralean 19:00etan Berako Toki Onako patioan, Hutsun eta JEL Trío taldeen emanaldia izanen da. Egun berean, **uztailearen 29an**, 20:00etan, Elizondoko Foruen Plazan *Generoa* dantza ikuskizuna eskainiko du Kimua Dantza Kolektiboak.

Ondoko asteetan ere segida izanen dute emanaldiek.



TESTUA: JAIONE ARIZTEGI / ARGAZKIA: MAITE BARBERENA

## Udari ongietorria egin diote Urroren ere

Urteroko legez, aurten ere sua izan da protagonista San Juan bezperan. Arratsaldean haurrak etxez etxe ibili ziren paper kartoi eta bertzelakoak biltzen eta gauean afaria izan zen ostatuan. Ondotik, suaren buelta bildu ziren herritarak, saltoka batzuk eta begira bertzeak.



TESTUA: JAIONE ARIZTEGI / ARGAZKIA: MAITE BARBERENA

## Ludoteka zerbitzua lehen aldiz Urroren

Urrozko haurrek udako oporretan goizero hainbat jarduerarekin gozatzeko aukera izanen dute aurten, lehenbiziko aldiz ludoteka zerbitzua baitute. Ekain hondarretik irailera bitarte goizero 09:30etik 13:30era Aiala Mariezkurrenak prestatutako jolas eta bertzelakoetan ari dira.

## The Trikiteens taldeak uztailearen 31n Donamariako frontoian joko du

### TTIPI-TTAPA

Ondoko lerroetan ageri den Kultur 2022 programaren barruan, Malerrekako lehen emanaldia uztailearen 31n eskainiko du The Trikiteens taldeak Donamariako frontoian 19:00etan. Egun horretan, *Lezealde, lur barruko altxorra*

espeleologia jarduera eginen dute Beintza-Labaienen. 10:00etan hasita, hiru orduko ateraldia izanen da. 20 euro ordaindu beharko dute helduek eta 8-17 urte artekoek 14 euro. Izen-ematea [info@orbela-beintza.com](mailto:info@orbela-beintza.com) eta 659 47 73 96 telefonoan egin daiteke.



Joare soinuekin estreinatu zituzten 'Eskola Bideak'. UTZITAKOIA



Hainbat tailer egin zituzten inaugurazio egunean. UTZITAKOIA

## Merezi zuen inaugurazioa izan du Pulunpa eskolak

Ikasturte bukaerako ospakizunarekin batera egin zuten ekainaren 23an, hainbat ekitaldi eta omenaldirekin

### TTIPI-TTAPA

Joan den urteko ilbeltzean, pandemia bete-betea estreinatu zuten Pulunpa eskola berria. Maskarekin, segurtasun distantziak betez, beldurrarekin... Ez zen ametsetako irekiera izan. Hori dela eta, eskolako bestarekin batera, behar bezalako inaugurazio herrikoia egin zioten ekainaren 23an eskola berriari. Tartean, hainbat ekitaldi hunkigarri egin zituzten.

Arantza Diez Aranburu zuzendariak aipatu digunez, «arrunt ongi joan zen dena. Adin guztietako pulunpariok

elkartu ginen: izan ginenak, garenak eta izanen direnak, birramatxiak, atautxi-amatxiak, gurasoak, ikasleak, ikasle ohiak, herritarrak...».

### Horma irudia eta tailerak

Bosgarren eta seigarren mailako ikasleek horma irudi ederra margotu zuten, Juan Carlos Pikabea margolariarekin. Ondotik, Pikabeak berak hartu zuen hitza eta horma irudiaren ondoan azaldu zuen bere lan prozesua.

Hainbat tailer egin zituzten ekainaren 23ko goizean, adin guztietako ikasleak elkartuta:

eskulanak, abesbatza eta mahai-jokoak. Joaldun tikiak ere ibili ziren joareak astintzen eta *Eskola Bideak* proiektuari hasiera emanez eta lau bideak (Latsaga, Aurtitz eta Landako Bidea I eta II) joareen soinuekin eginez eta alaituz. Egoitz Gorosterrazu bertsolari eta ikasle ohiak, berriz, ederki laburbildu zuen inaugurazioaren zergatia zinta moztu baino lehen. Alkateak eta zuzendariak zinta puska bana hartu eta haurrei eman zizkieten, beraiek baitira eskolaren erdigune eta protagonista.

### Omenaldia zuzendariei

Gero, hamar urte pasatuta, zuzendaritza utziko duten Ane Otxandorena eta Arantza Diez Aranbururi ustekabeko omenaldia egin zieten, aureskua dantzatzu eta opariak emanez. Horrenbertze emozio eta sorpresaren ondotik, bazkari herrikoia izan zuten, lehenbizi haurrek eta gero, gazteek

eta helduek. Ostatuan prestatutako menuak sabelen joare soinuak baretu zituen. Bazkariaren eta ekaitzaren ondotik, Trikidantz herriko musika taldearekin dantzaldia izan zen.

Arratsean, guraso elkarteak prestatutako bokata jatea izan zuten, eta gero San Juan suetan saltoka aritu ziren. «Eta honela, sarna kanpora eta ona barrenera egin genuen, elkarrekin, Pulunparen historia marrazten jarraitzeko. Eskerrik asko bihotz-bihotzez parte hartu zuten guztiei eta han ez zeuden baina bihotza gurekin zutenei esan, hurrengoan, uste baino lehenago, gurekin izanen direla», aipatu zuen Arantza Diezek.

## 'ESKOLA BIDEAK' EGITASMOA JOAREEKIN AURKEZTU ZUTEN



**Guillermo LARRAÑAGA doktorea**  
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuarekin
- Tratamendu estetikoak, armaia eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbentzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera  
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507



**MINIESKABAZIOAK**

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK  
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491



**Lizun GAZTANDEGIA**

Sunbilla - Tel: 948 450 862





Lehiaketara aurkeztutako hamar lanak erakusketan. UTZITAKOIA

## Zubietako bestetako logotipoa aukeratu dute lehiaketan

Aurkeztutako hamar lanen artean Manu Elizalde Mitxelena-renak lortu du ehun euroko saria eta kamiseta

### FERMIN ETXEKOLONEA

Zubietako fiestetako kamiseta bat egiteko logo lehiaketa antolatu dute aurten lehen aldiz Zubietako gazteek, herritarrei zuzendua. Nahitaez *Zubietako fiestak* esaldia izan behar zuten txuri-beltzeko diseinuak entregatzeko azken eguna ekainaren 20a izan zen eta denera hamar lan aurkeztu zituzten. Gustura zeuden antolatzaileak parte-hartzearekin. Irabazlea bozketa herrikiolarien bidez aukeratu da eta Manu Elizalde Mitxelena izan da. Beretzat izanen dira, beraz, 100 euroko saria eta

bere logotipoa izanen duen kamiseta. Gainera, beste parte-hartzaileei bezala, logotipoa duen edalontzi berrerabilgarria ere oparituko zaio Elizalderi ere.

Behin logotipoa erabakita, fiestetako ekitaldiak lotzeko lanetan buru-belarri ari dira bai Zubietako udala, baita gazteak ere. Bi urteren ondotik, bada gogo!

### Maestraren etxea

Eki Gerekak hartu du Maestraren etxea errentan, udalak egindako enkantearen ondotik.



Manu Elizalde irabazlea. UTZITAKOIA

## Enaitz Elizalde txapeldun, Endika Santesteban txapeldunorde

Pilota kontuetan ere berri onak izan ditugu azken aldi honetan Zubietan. Nafarroako herriarteko pilota txapelketako txikien kategorian Donezteberekin aritu da Enaitz Elizalde eta txapeldun suertatu da, uztailaren 2an Berako taldearen kontrako finala irabazita. Umeen mailan aritu da eta finaleko partida galdu egin zuen Leizarekin batera, Berako Goñi eta Igoaren kontra (12-18), baina Doneztebeko bertze bi bikoteek irabazi zuten txapela.

Oberena taldean ari den Endika Santesteban, berriz, Iscar aldean ibili da, Valladoliden. Espainiako eskuz binakako txapelketan, zilarrezko domina eskuratu du kadete mailan.

## Bidasoaldeko lehen sektorea suspertzeko langilea nahi dute

### TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur Elkarteak pertsona bat kontratatu nahi du, Bortziriak-Malerreka-Bertizarana eskualdeko lehen sektorearen, merkaturatzeko zirkuitu laburren, talde handientzako sukaldaritzaren eta turismo eta merkataritza sektorearen arteko sinergia-aukeretan oinarrituriko eskualdeko ekintza plana martxan jar dezan.

### Eskakizunak

Lanpostu horretarako eskatzen diren gutxieneko baldintzak hauek dira: Nekazaritza-adar batean, ingurumen-zientzietan eta/edo antzekoetan tituluduna izatea, euskalduna izatea (B2 maila egiaztatu edo balio-kiderek), eta B1 gida-baimena edukitzea. Horiez gain, positiboki baloratuko dute prestakuntza osagarria, lanbide esperientzia eta eskualdea ezagutzea.

### Lanaldi erdia

Lanaldi erdiko kontratua izanen da, abenduaren 31ra arte, eta lana egoki burutuz gero, kontratua luza daiteke.

Curriculumak, hizkuntza-titulazioen kopia konpultsatua eta lanbide-bizitzaren ziurtagiria [info@cederna.es](mailto:info@cederna.es) helbidera bidaliko dira, eta mezuaren izenburua Bortziriak-Malerreka-Bertizaranako Elikadura Teknikaria izanen da.

### Uztailaren 15a baino lehen aurkeztu behar da

Dokumentu hauek aurkezteko epea bukatzeaz dago, 2022ko uztailaren 15ean, 14:00etan, bukatuko baita. Aukeraketa-prozesuari buruzko argibide gehiago jaso dezakezue [www.cederna.eu/eusweb](http://www.cederna.eu/eusweb) gunean edo 948 20 66 97 telefono-zenbakian.

## Elizondoko Xabier Erasunek irabazi du behi azienda piriniotarraren argazki lehiaketa

### TTIPI-TTAPA

Behi azienda piriniotarraren VI. argazki lehiaketaren irabazleak erabaki dituzte. 400 euroko lehen saria Elizondoko Xabier Erasun Eraunzetamurgilek lortu du, *Xut* argazkiarekin. Bigarren saria (200 euro) Getxoko Ezra Gojenola Pertikak

lortu du eta hirugarren saria (100 euro) Galdamesko Arrate Zubigarai Orbeak lortu du. Argazki sariduna irailaren 24 eta 25ean egingen den behi azienda piriniotarraren lehiaketa-enkantearen kartean eta eskuerrian agertuko da. Sari banaketak irailaren 25ean egingen dute.



Saritutako argazkia. XABIER ERASUN



Erreka dantza taldekoak, txupinazoa bota baino lehen. JM ONDIKOL



Bi urteren ondotik, besta gogo handia zegoen. JM ONDIKOL

## Dantza protagonista eta giro ederra San Pedro bestetan

Erreka dantza taldeak bota zuen txupinazoa eta Eduardo Almandoz omendu zuten 20 urtez bandera dantzatzeagatik

### TTIPI-TTAPA

Bi urtez ospatu ezinik egon ondotik, San Pedro bestak gogotsu ospatu dituzte aurten. Erreka dantza taldeko neskak izan ziren txupinazoa botatzeko ardura izan zutenak eta, taldearen izenean, Ainhoa San Miguelek piztu zuen lehen suziria, beste bidea emanez. Udal ordezkariak aipatu zuten bezala, Erreka dantza taldea izan da bestetako suziria piztu duena, «egindako eta egiten duzuen lanarengatik, herritar aunitzen eskariz eta duela bi urte zapuztu zen hamargarren urteurrena goxatzeko».

Erran beharrik ez da Erreka dantza taldekoek «ilusionatuak eta gogotsu» piztu zutela lehen suziria. Gainera, txupinazoa nork bota herri bozketa bidez erabaki da eta horrek ere «ilusio handia egin digu, herriak guregan pentsatzea eta gure lana baloratzea». 2020an ezin izan zuten hamargarren urteurrena ospatu, baina orain «2025ean hamabosgarrena ospatzeko asmoarekin gaude».

San Pedro egun handian ere, dantza izan zen protagonista,

noski. Udalak omenaldi ttiki bat eskaini nahi izan zion hogeigarren urtez bandera dantzatu duen Eduardo Almandoz. Zapia eta lore-sorta eman zizkioten eta horrekin batera Juan Telletxea lagunak bertsoa kantatu zion.

Bandera dantzaren ondotik, Trapatan dantzaren txanda izan zen. Juan Ramon Ostiz buru dela, Amaia Jorajuria, Uxue Ibarrola, Inma Ibarrola, Lorena Almandoz, Mainer Jabalera, Itxaso Estanga, Andrea Mindegia, Lorena Juarena, Andres Ostiz, Joxe Irigoien, Santi Uterga, Alejandro Maylin, Joseba Legarra, Iñaki Telletxea eta Aritz Zulaikak dantzatu zuten. Ondotik, erraldoiak atera zituzten eta Miguel Ostiz eta Enaitz Goñi estreinakoz aritu zen erraldoiekin dantzan.

Ondoko egunetan ere giro ederra izan zen bestetan. Ortziralean udal ttikia izan zen protagonista eta larunbatean, sanpedroetako II. Disc Golf txapelketaz gain, erraldoien konpartsa ibili zen eta herri bazkaria ere umore ederra egin zuten Intzakardin.



Eduardo Almandoz omendua, Leire Ortuoste alkatearen ondoan. ALICIA DEL CASTILLO



Trapatan dantzan parte hartu zuten musikari eta dantzariak. ALICIA DEL CASTILLO



Miguel Ostizek eta Enaitz Goñik dantzatu zituzten erraldoiak. ALICIA DEL CASTILLO



Lasterketa nagusiko irteera. ERREKA KE



Proba nagusiko gizonen eta emakumeen podiumak. ERREKA KE

# Sigueni eta Pacha garaile garaile Doneztebeko 42. herri krosean

Ekainaren 26ko proban Iñigo Lasaga eta Leire Uterga izan ziren herriko korrikalaririk bizkorrenak

## TTIPI-TTAPA

Gure eskualdean hain errota dagoen Doneztebeko Herri Krose berriz ere Doneztebeko karraketan izan zen ekainaren 26an, Erreka elkar-teak Doneztebeko udalaren laguntzaz antolatua. Eguraldia lagun, giro bikaina izan zuten 42. edizioan. Igandean

10:30etik aitzinera hasi ziren ttikienak lasterka eta 11:30ean abiatu da proba nagusia. Gizonetan, ADA Calviá taldeko Hicham Siguenik lehen aldiz irabazi zuen Donezteben, nagusitasunez gainera. Nesketan lehia estuagoa izan zen. Bertan Hiru Herriko Vanesa Pacha suertatu zen garaile.

## Sigueni eta Pacha garaile

Gizonetakoetan, Hicham Siguenik 23 minutu eta 26 segundo behar izan zituen 7.300 metroko ibilbidea osatzeko. Bigarren, Hiru Herri taldeko Roberto Carlos Trejo izan da (23.35) eta hirugarren Portugalteko Aimad Bouzina (24.13). Emakumeetan, Vanesa Pacha 27 minutu eta 47 segundo behar izan zituen eta Beste Iruña taldeko bi kirolariz zituen lagun podiumean: Idoia Nogales (27.57) eta Rebeca Mariño (28.12).

Bi bueltako proban, gizonetakoetan Daniel Martinez izan zen bizkorrena, Javier Tejero eta Julen Ibarren aitzinetik eta emakumeetakoetan, Rosa Orofino, Leire Uterga

doneztebarraren eta Beatriz Altzuartaren aitzinetik. Herriko korrikalarien artean, Iñigo Lasaga, Iñigo Arregi eta Santi San Miguel eta Leire Uterga, Jaione Andueza eta Cristina Mindegia izan ziren bizkorrenak eta beteranoetan, Santi San Miguel bigarren izan zen, Daniel Sanzen gibeletik.

Ttikienaz aitzinera, aurrebenjaminetan Cole Mazon eta Ibai Erkizia, benjaminetan Ane Jauregi eta Luka Mazon, alebinetan Enea Telletxea eta Lucas Ezkurra, infantiletan Enea Erkizia eta Jon Porta eta kadetetan Nerea Apezetxea eta Oier Erkizia izan ziren garaile.

Orain, udako kirol eskolarekin buru-belarri dabil Erreka.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Sanpedroetako II. Disc Golf txapelketa

Intzakardi disc golf zelaian Sanpedroak II. Disc Golf txapelketa jokatu zen uztailearen 2an. Haurren mailan Saioa Irigoien suertatu zen txapeldun eta gaztetxoan mailan Ander Ruiz. Uztailearen 13, 20 eta 27an Intzakardin entrenatzeko eta Disc Golfa ezagutzeko aukera izanen dute, 19:00etan.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

## Herriarteko txikian Doneztebe txapeldun

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa txikiaren finala irabazi du Doneztebek, uztailearen 2an Labriten jokaturako finalean Berari irabazi ondotik (2-1). Umeen mailan galdu arren, kimuen eta haurren kategorian lortutako garaipenei esker lortu zuten txapela ekartzea.



Elkarteko mendizaleak Baztanen egindago irteeran. UTZITAKOA

## Baztanen egin dute ekaineko irteera mendizaleek

59 bazkide elkartu ziren Arizkunen ekaineko irteera egiteko, eta egun ederra pasatu zuten

### TTIPI-TTAPA

Ekainaren 21ean egin zuten elkarteko bazkideek hilabeteroko irteera. Arizkungo Ordoiki industrialdean elkartu ziren, eta Erratzuko Axun eta Juan Joxe gidari zituztela egin zuten txangoa. 09:00etan egin zuten hitzordua, eta handik Erratzuko San Miguel basilizara eraman zituzten autoak, eta tartean galdu ere egin ziren batzuk.

Han 54 lagun abiatu ziren Azkarate-Erratzu aldera, eta bertan gosalduta zuten. Handik Meakako lepora atera ziren, eta ondotik Gorramendi azpiko aldera. Bertan Etxalar alde-

tik joandako bortz lagunekin elkartu ziren. Laino pixka bat zegoen goian eta ez zuten bista izugarrik izan, baina, eguraldi goxoa izan zuten ibiltzeko. Gorramenditik beheiti Itzulegira joan ziren eta hor ia lainorik gabe Amaiur aldera bista ederrak ikusi zituzten San Miguel basilizara itzuliz. Ordu biak zirenez Ordokin otordu eder batekin bukatu zuten ibilaldia.

Mendizaleek mezua bidali nahi izan zioten Pablo Irastortzari: «Zure falta haundia sumatzen dugu eta laster espero zaitugu berriz gure artean!».

## Lourdesera bidaia egin dute elkarteko 65 bazkidek

### TTIPI-TTAPA

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere Lourdesera bidaia egin zuten elkarteko bazkideek ekainaren 9an. 65 lagun joan ziren eta eguraldi hagitz ona izan zuten. 08:00 inguruan abiatu ziren autobusez Lourdesera, eta hara ailega-

tzean Juan Zabalak eman zuten meza kaperan.

Meza aditu ondotik, bertako hotel Acadian bazkaldu zuten denek, eta arratsaldean elkarteko bazkide batzuek prozesioan parte hartu zuten. Iluntzean egin zuten buelta etxera.



Igantzikoko partxis txapelketako saridunak. ARKUPEAK

## Igantzikoko mus eta partxis lehiaketak jokatu dituzte

### TTIPI-TTAPA

Azken aldizkarietan aipatu izan dugun bezala, herriz herri mus txapelketak egiten ari dira elkarteko bazkideak, eta igantziarrak izan dira txapelketa egiten azkenak. Maiatzaren 20an egin zuten bazkaria lesakarrekin, eta txapelketak aitzinerago jokatzekotan gelditu ziren.

Ekainean, besta herrikoia egin zuten mus eta partxis txapelketa eta guzti. Mus txapelketaren irabazleak Jose Mari Mitxelena eta Jose Luis Sein izan ziren, bigarrenak Ignacio Goienetxe eta Antonio Irazo-


ki eta hirugarrenak Ramon Retegi eta Severino Retegi.

Lehenbiziko aldiz, gainera, partxis txapelketa jokatu zuten eta irabazleak Maria Teresa Taberna eta Maria Asuncion Iribarren izan ziren. Bigarren lekuan, aldiz, Korpus Etxeberria eta Felisa Goienetxe sailkatu ziren eta hirugarrenak Juana Urtxege eta Carmen Hita izan ziren.

Ea hurrengo urtean bertze herrietan ere egiten hasten diren eta herrien arteko txapelketa bat egiten ahal duten mus txapelketarekin egiten den bezala.

## Berako M<sup>a</sup> Coro Pikabea ekaineko sariaren irabazlea

Ekaineko galderan 2020an Baztanen hildako margolari famatua Ana Mari Marin zela asmatu dutenen artean zozketa egin, eta Berako M<sup>a</sup> Coro Pikabea izan da irabazlea. Zorionak! **Uztaileko galdera hauxe da: Gure inguruan zein errepidetako portuk du gureko aldea 850 metro inguruan?**



ARKUPEAK



## Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



ARANTXA AGIRRE APEZETXEA  
GAZTELU ITURGINTZA - LEITZA

**«Konfinamenduarekin etxean berrikuntzak egiteko ordua izan zen askorentzat»**

Duela 80 urte ireki zuen Gaztelu Iturgintza Arantxa Agirre-ren aitona Leitzan. Negozio familiarra izan da geroztik; «gure gurasoek hartu zuten ondotik eta orain anaia eta nik. Enpresa ttikia da, sei langile gaude orain, baino gehiago izan zituen duela urte batzuk». Nafarroan zein Gipuzkoan mota askotako zerbitzuak eskaintzen dituzte: komun eraberritze osoak, gas eta berokuntza instalazioak, berokuntza sistema ugariak, saneamenduak, biomasa insta-

lazioa, etxe barruko aireztapena... «denetik egiten dugu». Konfinamenduz geroztik, «lan asko eduki dugu. Jendeak denbora asko pasatu zuen etxean eta berrikuntzak eta hobekuntzak egiteko ordua izan zen askorentzat».



MIGEL MEOKI GOÑI  
ALMACO BAZTAN - ELIZONDO

**«Eraikuntza bat egiteko beharrezko material guztia dugu»**

1973an ireki zuen Jose Mari Meokik Almaco Elizondon eta gaur egun Migel Meoki eta bere hiru anaiak dira nagusiak. «Eraikuntza aunitz egiten ziren eta materialaren beharra ikusi zuen aitak. Hasmentan biltegi ttikia zen, baina poliki-poliki haundituz joan da». Kanpoko materialetan aukera zabala dute: «teilatua, morteroak, fatxadak, zementuak, burdinak, isolatzaileak, oholtzak... denetik». Barneko dekoraziorako ere hainbat produktu dituzte; «zamikak, komunak, parketak, ateak,

leihoak... zerbaite eraikitze beharrezko guztia dugu». Gainera, zerbitzu berria dute; «etxetara joaten gara diseinu aholkuak emateko eta aurrekontu bat egiteko». Makineria alokatze eta materiala garraiatzeko zerbitzua ere eskaintzen dute.



ANA PIKABEA LARRALDE  
LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

**«Udan disfrutatu nahi dute, errutina galduz eta bertze modu batean entrenatuz»**

2008ko martxoan ireki zen Lesakako kiroldegia eta geroztik bertan ari da lanean Ana Pikabea. Hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte, «kirola egiteko eta mugitzeko; spinning, pilates, esekidura bidezko entrenamendua, aktibitate gidatuak, gimnasia, aku aerobika... baina baita erlaxatzeko eta zaintzeko ere, gune termaleko saunekin». Honez gain, bizikletak alokatzen dituzte Katea Bikeren kolaborazioarekin. Zerbitzuak sasoiaren arabera izaten dira, «neguan

aktibitate gidatu gehiago izaten dira eta udan kanpoko igerilekuan disfrutatu nahi dute, eguneroko errutina galduz eta bertze modu batean entrenatuz». Udan egunero irekitzen dute kiroldegia, 10:00etatik 21:00etara.



IMANOL PEROTXENA LOPEZ  
BUATXABAL - LESAKA

**«Produktua bertakoa eta ekologikoa izatea hagitz garrantzitsua da guretzat»**

«Lagun artean maiz erraten dugun hitza da 'buatxabal' eta egunero kamisetak egiten ari garenez, serigrafiatu eta lagunen artean banatu genituen». Horrela hasi zen marka lesakarra, eta orain kirol-jertseak, kamisetak, biserak, poltsak... egiten dituzte. Serigrafiak bertan egiteari garrantzia ematen diote; «herri ttiki batean bizi gara eta bizirik mantendu nahi badugu, bertan ekoiztea hagitz garrantzitsua da». Gainera, material ekologikoak erabiltzen dituzte, «gure ingurua eta on-

gizatea bermatzeko». Horrek «produktua aunitz garestitzen duela» uste dute batzuek, «baina ez du hala izan beharrik. Guk soilik Lesakako dendako eta online salmenta zuzena dugu, bitartekaririk gabe, eta prezioan eragina du».



# Iturengo bestak 2022

Ileapaindegia  
**EIDERA**  
Estetika

Asteartea eta ortzeguna: 09:00 - 14:00  
Asteazkena eta ortziralea: 15:00 - 20:00  
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445



**ALTUNEAK ERRETEGIA**

Kontsejo, 27 · ITUREN  
T. 948 450 410

Ondotik egundik igande eguerdia  
Besta egunetan eta besta besperatan  
Uztailaren 15etik abuztuaren 30era,  
egunero, astelehenera, can ecak

**ONGI PASA BESTAK**



**ITURENGO UDALAK**  
besta zoriontsuak opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiei



**ONGI PASA BESTAK**

**EHEVERRIA**  
ZURGINDEGIA

**PVC LEIHOAK**

Merkatuko leihorik hoberenak egiten ditugu!

6 kamara eta 82 mm-ko perfilak

**A+++**



ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Egiturak	Eskailerak	Ateak	Lurrak
Armarriak	Sukaldeak	Eguneko leihok	Leho mistoak

Leitza errep. - 31745 ITUREN  
M. 676 393 996 - T. 948 388 455 - F. 948 456 164  
carpinteriaecheverria@yahoo.es

## egitaraua



### Uztailak 14, ortzeguna

17:30ean hasita haurren esku pilotako eta frontenis txapelketako finalak. 20:00etan txupinazoa, eta ondotik Mendaurren Trikitixa Eskolako kalejira. 21:30ean Zopak herriko ostatuan eta afaria Alxunea erretegiaren. 00:00etan dantzaldia Hauspolarien eskutik.

### Uztailak 15, ortziralea

09:00etan dianak herriko txistulariekin. 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara puzgarriak. 14:00etan haurren bazkaria. 17:00etan mus txapelketa. 18:30ean bokolate jatea. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia Bizpahiru pelau taldearekin. 21:30ean paella eta zingar jatea. 22:30ean zezensuzkoa.

### Uztailak 16, larunbata

09:00etan dianak herriko txistulariekin. 11:30ean Printzesatik igelara antzerkia. 13:00etan pilota partida profesionalak: Gofii Ilaren itzulera. Bazkaldutik aitzinetik magra eta gaztaren pisua as-

matzea. 14:30ean herri bazkaria plazan. 17:00etatik 21:00etara: Eluba txaranga. 21:30ean xingar jatea. 00:30ean gaupasa Gabezin taldearekin.

### Uztailak 17, igandea

09:00etan dianak herriko txistulariekin. 12:30ean Aizkora apustua eta harri jasotze erakustaldia. Aizkoran Maika Ariztegi eta Nerea Sorondo, Nerrea Arruti eta Laiene Pikabearen kontra. Harri jasotzen Aroa Sanchez. 17:00etan Funbox factory Freestyle Show Team taldearen erakustaldia plazan. 19:30ean Andrea Bidarten eta Mikel Markezen kantaldia. Ondotik-xingar jatea plazan.



ongi pasa bestak!

**AURTIZKO OSTATUA**

Ortzegunetik igandera irekita. 09:00etatik aitzinera.

Errazioak, eguneko menuak, menu bereziak, bokatak, pizzak, hamburgerak, plater konbinatuak...

Baja, 18 Aurtiz  
948 39 54 45  
mariochandorena@gmail.com

**ITURENGO HERRIKO OSTATUA**

Entsalada hotz eta epelak  
Bildots errea  
Arrain aukera zabala  
Etxean egindako postreak

ITUREN 948 38 79 80



# Elgorriagako bestak 2022

## egitaraua

### Uztailak 22, ortziralea

17:00etan haur jolasak, ondotik merienda. 20:00etan txupinazioa eta ezkil jostzea. 21:00etan afaria Herriko Ostatuan, zopak. 23:00etan hasita BIP, Sofokaos, eta Patxuko Niceren kontzertua. **Ondotik**, Üzkülüz DJa

### Uztailak 23, larunbata

14:00etan Paella jate herrikoa. **Bazkaldu ondotik**, Elutxa barangarekin arratsalde pasa 16:00etan ur arranpala. 23:00etan Eztitan Berbena taldea.



### Uztailak 24, igandea

#### Elegante eguna

10:00etan artisau azoka plazoletan. 10:30etik 13:30era haurrentzako puzgarriak plazan. 14:00etan marianito elegantea Herriko Ostatuan. 17:00etan mus txapelketa. 18:00etan Txan Magoaren emanaldia. 20:00etan tortilla eta postre dastaketa (bakoitzak ebetik eramandakoak). 21:00etan La Jodederaren kontzertua.

### Uztailak 24, astelehena

Goizean bistulariak herrian zehar. 12:00etan meza. 13:00etan toka. 14:00etan zikiroa, ondotik musika Beñatekin. 21:00etan afaria.

**elgorriaga**  
Baita, Auzoan  
Baita, Baitan

**BESTA MAUETAN ZATOZ ELGORRIAGAKO BAINUETXERA:**  
buffeta libre, plater konbinatuak, egitarlekoak, errazioak, hamburgerak.

Erretaldeia z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa)  
T. 948 45 60 45 | [www.balnearioelgorriaga.com](http://www.balnearioelgorriaga.com)

**ELGORRIAGAko  
UDALAK**  
*Errespetuz bera egin*

BESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE  
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIAI



# Elizondoko bestak 2022

## «Besta komisioko atepak zabalik daude herritar guziendako»

### Elizondoko Besta Komisioa



Herriko 14 neska-mutilek osatzen dute gaur egun Elizondoko Besta Komisioa, 21-31 urte bitartekoek. Bortz kide berri sartu dira aurreko taldean, baina «irekiak gaude jendea etortzeko eta herritarren laguntza beharrezkoa dugu». Horregatik, urtero zabaltzen dute deialdia.

«Besten antolaketarekin zerikusia duen oro lotzea» da komisioren ardura, bertzeak bertze, musika taldeekin solasatzea, adin tarte guziendako ekintzak antolatzea, ekitaldien ordutegiak prestatzea... «eta horrez gain, besta egunetan ekitaldi guziak koordinatzen ditugu eta dena ongi doala ziurtatu behar dugu».

#### Prestaketetan buru-belarri

Otsail akabaila-martxo aldera hasten dituzte besten prestaketak. «Denborarekin hasten gara lanean, ekitaldi nagusiak

**ongi pasa bestak!**

**Dendako artikuluen  
likidazioa**

**deskontu  
handiak**

 **H. LOPEZ**

Erreforma integralak eta gremioen koordinazioa

Aire girotua • Tximiniak • Igerilekuen salmenta  
Gas, gasolio eta biomasazko galdara eta berogailuak  
Zeramika eta bainugelako altzarien salmenta

Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126  
info@honestolopez.com  
www.honestolopez.com



ahalik eta fiteen lotzeko. Bertzela, konzertuak eta horrelakoak hartuak izaten dira eta zaila izanen litzateke taldeak aurkitzea».

Ardurak «denon artean banatzen» saiatzen dira «ahal den heinean». Besta egunak ere guzien artean banatzen dituzte eta «hiru lagun arduratzen dira bereziki egun bakoitzeko ekitaldi guzietaz». Hala ere, elizondoarren laguntza ere izaten dute; «haurrekin zerikusiak duten jarduerak hainbat gurasoren laguntzarekin prestatzen ditugu, gazte koadrillei bertze hainbat lanetan laguntza eskatzen diegu (adibidez, haurren jokoak prestatzen, egitarauak banatzen eta gradak montatzen) eta herriko hainbat elkarteek ere atea irekitzen dituzte».

### Bestak inoiz baino gogotsuago

«Bi urte gogor hauen ondotik», antolatzaileak «arras gogotsu» daude herriko bestak «berriz ere normaltasunez bizitzeko». Baita herritarrek ere, eta «alde guzietan bezala», Elizondon ere jende bestazalea dagoela diote. «Norberari bere herriko bestek ilusio berezia egiten diote». Baina herrikoak ez ezik, «bailara osoko jendea eta kanpokoak biltzen dira santioetan Elizondoko karriketan».

Santioetatik gehien gustatzen zaiena «herri bazkaria eta eguneko besta» da, «arratseko besta urte osoan gehiagotan bizitzeko aukera izaten dugu baina egunekoak ez».

### Egitaraua denon gustura

Besta komisioa «adin tarte jakin bateko jendeak osatzen duen arren, adin tarte guzientako ekitaldiak antolatzen saiatzen gara». Horretarako, aitzineko urteetan egindako ekimenei begiratzen diete: «arrakasta izan zuten jarduerak mantentzen saiatzen gara, eta zerbait funtzionatu ez badu kontuan hartzen dugu hurrengo urteetarako». Hala ere, «ahal den heinean, bestak aldatzen eta urtero zerbait berezia antolatzen saiatzen gara».

**«Norberari bere herriko bestak ilusio berezia egiten diote eta guretako Elizondoko bestak beti dira bereziak»**

Sosak ere agintzen eta mugatzen du antolakuntza; «ekitaldi aunitz antolatuko genituzke baina alor ekonomikoa kontuan hartu beharreko zerbait da. Aurrekontuari dagokionez, urtero antzekoa izaten saiatzen gara».

Azken urteetan bestak sobera aldatu ez badira ere, «herri eta gazte bazkariak geroz eta indar handiagoa dutela» diote. Besta egunetan lana egitea tokatuko zaie, baina, «doike, bestarekin tartekatuko dugu!».

Azkenik, komisioaren atea «denendako zabalik daudela» azpimarratu dute eta jendea «herrian laguntzera» animatu dute; «taldean urte dezentez lanean dabiltzan kide batzuk daude, eta denon bestak izaki, ideia fresko eta berriekin dagoen jendearen beharra ikusten dugu. Adin tarte eta interes anitzeko jendea edukitzeak denondako besta egokia goak antolatzea erraztuko du».



### LA BAZTANESA S.A



Tel: 948 580 129  
autobuses@labaztanesa.com

Onsi pasa bestak!

### MAPFRE

Ebea, autoa, bizitza, jubilaria...

Jaime Urrutia, 8 • 31700 ELIZONDO • T.948 58 03 76

### ELEKBERRI

INSTALADORE BAIMENDUAK

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
(ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)  
ENPRESEN MANTENIMENDUA  
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK  
TELEKOMUNIKAZIO INST.  
PORTERO AUTOMATIKOAK  
DOMOTIKA

Santiago 118, Elizondo (Na)  
elekberri@gmail.com • 646854825 // 616898065



Onsi pasa bestald!

CITROËN

### SANSIÑENA garajea

TAILER MEKANIKOA  
KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA  
ENGRASEAK  
ERABILITAKO NEKAZARITZA TRESNERIA  
AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK  
ZERBITZU OFIZIALA:



Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406

# AXULAR

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak, aldizkariak, prentsa, tabakoa eta testu liburuak ekartzen dira enkarguz



Ongi pasa berriko bestak! eskertzen ditugu guztiek bezera izateagatik!

Santiago • ELIZONDO • T: 948 581 507

# INTZA TABERNA

Ongi  
pasa  
bestak!

T. 948 580 417



BOKATAK  
PINTXOAK  
RAZIOAK

# Mendi ostatua

Enkarguak hartzen ditugu  
bazkari eta afariak

Giro ederra!

T. 948 580 313

# lpa

linoplaza **arkitektura**

Besta zorientsuak  
opa dizkizuegu!



lino plaza y asociados, s.l.p. | Jaime Urullu 36 - 31700 Elizondo (Nafarroa) | telef. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com



# ALMACO Eraikuntzako materialak

GRUP **GAITIA**



besta zorientsuak pasa!

Errepide nagusia, Elizondo

Tel: 948 580 104

[www.almacobaztan.com](http://www.almacobaztan.com)



<https://es-la.facebook.com/AlmacoBaztanElizondo>

# egitaraua



## Uztailak 24, igandea

**12:00etan** txupinazioa eta baztan-zopak plazan. Ondotik itzulia konpartsarekin (udal-etxea, Jaime Urrutia, Ziga plaza, Txokoto, Braulio Iriarte, Opoka, Santiago karrika, zahar etxea). **16:00etan** ginkana plazan. **17:00etan** erremonte partidak Baztan pilotalekuan, Nafarroako XVII. erremonte txapelketa. **18:00etan** Hodei magoa Iriarte pilotalekuan. **19:30ean** karrika dantza: konpartsa, txistulariak, gaiteroak, txaranga eta banda (herriko etxea, Jaime Urrutia, Ziga plaza, eliza, Santiago karrika, herriko plaza, Jaime Urrutia, zahar etxea). **20:00etan** Salbea elizan, Elizondoko Abesbatza organoaren eta bandaren laguntzarekin. Ondotik karrika dantza eta erraldioen dantza plazan. **22:30ean** kontzertuak plazan: Sofokaos, Brigade Loco, Dinamita eta Tirri&Tery.

## Uztailak 25, astelehena

**09:30ean** argi soinuak. **10:30ean** karrika dantza (herriko etxea, Jaime Urrutia, herriko plaza, eliza). **11:00etan** meza nagusia. Eslavaren Salbea, Elizondoko Abesbatza organoaren eta bandaren laguntzarekin. **12:00etan** karrika dantza (eliza, Santiago karrika, herriko plaza, Jaime Urrutia, zahar etxea). **12:30ean** plazan mutil dantzak, erraldioen dantza Elizondoko Bandarekin eta luntx herrikoia. **17:30ean** perkusio tailerra merkaturko plazan. **17:30ean** herri kirolak Iriarte pilotalekuan, Herriz Herriko Txapelketa. **18:30ean** pilota partidak Baztan pilotalekuan. **19:30ean** bertso saioa plazan: Amets Arzallus, Malen Alzuart, Aitor Mendiluze, Urko Gartzia, Aitor Almandoz eta Alaia Martin. Gai jartzailea: Xabier Silveira. Ondotik mutil dantzak eta dantza herrikoiak plazan. **23:30ean** Txamukos mariaboiak plazan. **01:00etan** dantzaldia plazan: Bizphiru pelau.



## Uztailak 26, asteartea

**09:30ean** argi soinuak Beartzunen. **11:00etan** erraldoi eta buruhandien konpartsa (zahar etxea, Santiago karrika, Opoka, Mendinueta, Benito Menni, Merkatzuzelai, Legate, Xalbador, Txokoto, Santiago, Maria Azpilkueta, Lanbide Eskola). **11:00etan eta 16:00etan** ludoteka Iriarte pilotalekuan: erorketa libre, amerikar pista erraldioa, atezaintza puzgarria, bi futbolin, airezko mahaiak, zurezko jokoak, ludoteka, puzgarriak, birrista eta entzierroa bi zezenekin. **14:00etan** kuadrillen bazkaria Kuarteleko zelaian. Bi euro ordaindu beharko dira materiala alokatzeko. **18:00etan** poteoa Burrenba elektrotxarangarekin elkartzek elkarrekin parketik abiatuta. **19:00etan** dantzaldia plazan: Trikidantz. **20:30ean** mutil dantza eta dantza herrikoiak plazan. **23:30ean** kontzertuak plazan: Los Zopilotes Txirriak eta Trikidantz.

## ANZABAL Inmobiliaria

- Inmobiliaria  
Baserrri, bonda, pisu, etab. salmenta eta alkatzaia
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomen eta Aogari Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Erreeta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



## Albaitaritzza

www.albaitaritzza.com  
Tfno.: 948 580 980

Materiala  
Botika  
Hazia

Osagarri mineralak

Bildots eta aratxeendako esnea

Xaboi eta desinfektatzaileak



Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak

## Albaitack

www.albaitack.com  
Tfno.: 948 506 169



ALBAIKIDE

Tfnoa.: 902 169 169



www.albaikide.com

Albaitari zerbitzua

# Natura Elxea

BELAR-DENDA ETA DIETETIKA



**ONGI PASA BESTAKI**

SANTIAGO, 47 ELIZONDO T. 948 583 203



## EGUZKIALDE OSTATUA

*Ongi pasa bestak!!!*



Eguneko menua  
Errazioak  
Entsaladak  
Sandwichak  
Hamburgesak  
Plater konbinatuak  
Ogitartekoak

T. 948 45 26 26 - Santiago 43 - ELIZONDO

*Ongi pasa bestak!*

# Autxitxia

*Gasnategia*

- ▶ Bertan egindako ardi gasna
- ▶ Gaztanbera eta zenderena enkarguz
- ▶ Behi eta ahuntz gasnak

Ramón Agirre Altzelai  
Jaime Urrutia, 32 • 31700 Elizondo  
657 576 142

## asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
  - Zerbitzu fiskalak
  - Lan-aholkularitza
  - Aholkularitza juridikoa
  - Herentzia eta Testamentuak
  - Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
  - Datuen babesa
  - Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
- [www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 - F. 948 580 548	Ertegarra pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 459 395 - F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 Lesaka T. 948 638 077
---	--	---	---



**ELIZONDO**  
Santiago, 47  
t. 948 580 859

**DONEZTEBE**  
Zazpigorutze, 4  
t. 948 451 332

**LEITZA**  
Landabekoa, 2  
t. 948 610 612

**LESAKA**  
Plaza Zaharra, 17  
t. 948 637 294

**BERA**  
Kanttonberri, 3  
t. 948 630 381

*Besta onak opa  
dizkizuegu!*

**elicetxe**  
suministros electricos

material elektrikoak

*ongi pasa bestak!*

Tel. 948 581 261 Faxa: 948 452 397  
Santiago, 83 Ind. · ELIZONDO  
[elicetxe@elicetxe.es](mailto:elicetxe@elicetxe.es)

[www.elicetxe.es](http://www.elicetxe.es)

**ANTXITONEA**  
Trinketa



23 logela bainuarekin · Aparkalekua · Aire girotua eta telebista gela guztietan  
Gela berezia sukalde eta hotel zerbitzuarekin



*Herri egi-egian Baztan erakaren ondoan*

*Ongi pasa bestak!!!*

Braulio Iriarte, 16 · ELIZONDO · 948 581 8070 · [hotel@antxitonea.com](mailto:hotel@antxitonea.com) · [www.antxitonea.com](http://www.antxitonea.com)



### Uztailak 27, asteazkena

**09:30ean** argi soinuak. **11:00etan** erraldoi eta buruhandien ibilaldia (Lanbide Eskola, Akullegi, Santiago karrika, Datuzelai, Saskaitz plaza, Berekotxea Gotzala, Paularena, herriko plaza, Pedro Axular, Giltxaurdi, Galartza, zahar etxea). **11:00etatik 14:00etara** igerilekuko sarrera librea, puzgarriekin haurrentako. **12:00etan** Recreo de Elizondo bandaren emanaldia plazan. **16:30ean** Elizondoko X. Mus Txapelketa Xalbador karrikan Falfarak elkarteak antolatua. **17:00etan** pilota partidak Baztan pilotalekuan, Txaruta pilota eskolako finala. **18:30ean** txokolatada Ahaztuen plazan. **19:00etan** Inuritako dantzariak Iriarte pilotalekuan. **20:30ean** mutil dantzak eta dantza herrikoiak plazan. **23:00etan** kontzertuak plazan: Galtzagorriak eta Baizera.

### Uztailak 28, ortzeguna

**09:30ean** argi soinuak. **11:00etan** erraldoi eta buruhandien ibilaldia (herriko etxea, Jaime Urrutia, Opoka, Erlategi, Baztan Berri, Maurizio eta Felix plaza, Abartan, Xalbador karrika, Giltxaurdi, zahar etxea). **14:00etan** zikiro jatea Iriarte pilotalekuan. Txartelak salgai uztailaren 15ean 19:00etan herriko etxean. **17:30ean** haurrentako ipuin kontalaria plazan: Ameli. **19:00etan** dantzaldia plazan: Hauspolariek. **21:00etan** mutil dantzak eta dantza herrikoiak plazan. **00:00etan** Gaixoa Ni eta kalejira plazatik abiatuta. **02:00etan** Dj Reimy plazan.



Erotulazian eta diseinuan aritzen gara. Egin nahi duzun proiekturako helburu proposamen ditugu eskaintzeko, eta hori gauzatzen lagunduko dizugu.

Kristalak tindatzea  
Autoak errotulatzeko  
Inprimatze digitala  
3Dko kartel argidunak  
Eranskailuak eta kartelak personalizatzea  
Lokalak errotulatzeko  
Kargo seinaleak  
Publizitate-olanak  
Bisita-bartelak, albaranak, etab.

☎ 948 58 09 77 ☎ 647 00 63 36

Pol. Ind. Zaldubia, 1  
31730 Iurita (Nafarroa)



ferreteria  
**Quevedo**  
burdindegia



Santiago, 31 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tel.: 948 580 234  
info@ferreteriaquevedo.com  
www.ferreteriaquevedo.com

**ONGI PASA BESTAK!**



**LABAYEN OSTATUA**


Etxeko janari goxoa  
Zatozte! eta on egin!

Santiago - ELIZONDO  
948 580 338

**Gonzalez anaiak**  
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F. Joakin Inarte, 5  
Tfnua: 948 580 337  
**ELIZONDO**



**KULTURKARI**  
Disenatu grafikoa | Publikatzea

Zure jabetzeko  
diseinuarekin  
menuak, kartak,  
mahai-oihalak,  
musuzapiak,  
baso-azpikoak,  
etab. pertsonali-  
zaten  
ditugu

kulturkari.com

**Goizalde ostatua**



**Ongi pasa bestak!!**

- Pitbrook
- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Digitalarikoak
- Entsaladak
- Hamburgesak
- Errazkoak

Jaime Urretia 8 - ELIZONDO - Tel.: +34 948 58 17 34 - goizaldeostatua.com

Ongi pasa bestak!!



Estetika aurreratua, aurpegiko eta gorputzeko bioterapiak, presoterapia, manikura, pedikura eta askoz ere tratamendu pertsonalizatu gehiago eskaintzen dizkizugu!

Santiago, 59 behea - Elizondo  
Tel. 948 10 32 00 - M. 676 14 00 61

**GENERALI** MAÑONEA SEGUROS S.L. Agentzia



**ONGI PASA BESTAK!**

**mañonea**  
ASEGURUAK

AGENTE ESCLUSIBOA  
Dirigilatu Zela - C0072871193004

[www.mañonea.com](http://www.mañonea.com)

Kontable, zerga, lan eta juridiko  
**AHOLKULARITZA**  
Barride komunitateen kudeaketa  
(administrazioa, kontuak...).

Braulio Iriarte karrika, 9  
ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA  
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43  
info@mañonea.com

**KARRIKA OSTATUA**  
ongi pasa bestak!!



Jaime Urretia, 11 • ELIZONDO  
948 581 275

**EROSKI city ELIZONDO**

Foru plaza, 3  
ELIZONDO  
T. 948 580 005

Astelehenerik larunbatera 09:00-21:00

**BEA**ARRAINDEGIA **esarte**





**ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA**

**Sami Ouady Dyian**  
Elizondoko gaztea



10 urteko elizondoarra da Sami Ouady Dyian eta Elizondoko eskolan 5. maila akitu berri du. Matematikako klasea du gustukoan, «kalkuluak egitea gustatzen zaidalako». Hala ere, udako oporrak gustura hartu ditu, «oporretan Marokora joaten gara familiarekin, hango familia ikustera eta hondartzan ibiltzera». Baina argi du herriko bestetan Elizondon egon behar duela eta «arras gogotsu» dago santioetarako. Eta badu arrazoirik, beste hasmenta emanen dien txupinazoa botako baitu aurten, marrazki lehiaketara irabazi ondotik. Gainera, eskaera berezia egin du; «txupinazoa nire lagun Oihan Bazterrikarekin batera botatzea gustatuko litzaidake».

Besta komisioak lehiaketako partaide guzien artean aukeratu du Samiren marrazkia eta «super kontent» dago hautatua izan delako. Buruhaundiendientz aitzinetik lasterka ibiltzea da bestetan gehien gustatzen zaiona, ez diotela beldurrik

## «Arras kontent nago txupinazoa botatzeko aukeratu nautelako»

ematen dio, eta hori erakutsi du bere marrazkian; «hiru buruhaundi herriko plazan, gibelean udaletxea, eskuinean Casino ostatua eta ni erdian, txupinazoa botatzen». Eta marrazkia egia bihurtuko da uztailaren 24an eguerdian herriko plazan.

Samiren amak «arras mutiko ona eta inplikaturia» dela dio, «perfekzioa gustuko du eta arras nota onak ateratzen ditu». Baztanen sortu eta hazi baldin bada ere, gurasoak kanpokoak izateak desberdina dela sentiarazten diote «eta aunitz eragiten dion gaia da. Hala ere, guztiz integratuta dago eta baztandar bat gehiago da». Gurasoak 15 urte daramatzate hemen bizitzen eta haiek ere integratu dira; «euskalzegian izan naiz euskara ikasten eta solastatzea kostatzen bazait ere, nahiko ongi ulertzen dut».



**Gureaut**  
TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea, ibilgailuen salerosketa

**ONGI PASA BESTAK!**

Zaldubia industrialdea | 31730 Irurita  
Tel.: 948 880 225 - M. 619 328 148  
gureauto2@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!

**Maite Petirena**


Aseguru agentzia

**Allianz**

Saskaitz plaza - ELIZONDO  
Tel. 948 452 394  
teresa.petirena@allianzmed.es

**JOSEPHINE'S**  
20 ENGLISH 13

Lokal berria!  
Pedro Aznar karrika, 2 Elizondo



**TALDEAK**

Lehen hedakuntza 5. mailatik goiti  
DBH eta Babilergoa (B1 eta B2)

Matrikula irekita  
abuztuaren 31ra arte

Christina Irigoyen

☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

**ONGI PASA BESTAK!**



**LABORRA**  
ARKITEKTOAK  
- Gabriel & Ines -

www.laborra.com

gabriel@laborra.com  
Santago 66, 1º ELIZONDO 948.580.122



**arteka**  
arkitektura arquitectura

Tel. 948500610 Plaza. Dr. Balda 1º. 1. A  
info@artekabaztan.com 31700. Elizondo Baztan  
www.artekabaztan.com

# ESKISAROI

J A T E T X E A

Elizondo / T 948 580 013 / www.eskisaroi.eus

## BC BALLARENA ERAIKUNTZAK

**ELEKTRIZITATEA**  
Instalazio berriak | Berritzeak  
Argindar fakturan aurreztu nahi?



delegatuak gara

**LAN GUZTIETAZ  
ARDURATZEN GARA:**  
teilatuak, zaharberitzeak,  
elektrizitatea, kalefakzioa,  
pladur lanak, iturgintza, etab.



Mortero tematikoarekin fatxadak jantzi eta erabat itxuraldatzen ditugu aintzinako etxebizitzien tradizioa mantenduz



Abartan, 22 behea ELIZONDO  
T. 948 452 395 - M 647 688 988 / 647 688 982  
[www.ballarenaconstrucciones.com](http://www.ballarenaconstrucciones.com)



**Isabel Lacar Abril**  
Elizondoko Abesbatzako zuzendaria

## «Abesbatzek garrantzia handia dute gure kulturaren eta mantentzea gustatuko litzaidake»

Elizondoko Abesbatzak 80 urte beteko ditu aurten. 1942an abiatu zuen Juanito Eraso aresoarrak korua; «hasieran Elizondoko talde batekin hasi zen eta pixkanaka entseatzen, ahotsak osatuz eta lehiaketetan parte hartzen hasi ziren». Inguruko herrietako jendeak ere parte hartzen zuen abesbatzan; «Erasorentzako ahots erakargarria bazuten, koruan sartzerantz animatzen zituen. Ahots bereziena bila aritzen zen beti».

Herriko jende arruntak osatzen zuen taldea; «ez ziren profesionalak, amateurrak edo elizako koruan aritutakoak baizik. Hala eta guztiz ere, sari aunitz irabazi zituzten eta hainbat herrialdetan ibili ziren kantatzen; Frantzia, Belgikan, Austrian, Italian, Hegoafrikan... duela 40 bat urte parte hartu zuten azken lehiaketetan».

«Denetik» kantatzen zuten abesbatzan; «meza batzuetan parte hartzen zuten, erlijio-musika abesten zuten, Aita Donostiaren *Requiem*a adibidez, baita garaiko konpositoreak ere (Belloportu, Debussy, Poulenc...) baina batez ere musika herrikoa lantzen zuten eta errepertorioan beti zeukaten euskal musika. Ez zen parrokiako abesbatza, herrikoa baizik».

### Zuzendari berria

Bere bizitzako azken urteraino egon zen Eraso abesbatza gidatzen eta berak aukeratu zuen oinordekoa: Isabel Lacar lesakarra. «12 urte nituenean musika ikasten nuela jakin zuen eta nire eberra etortzen hasi zen solfeo eta piano azterketak egitera. Abesbatzaren entseguetara eta bere kantu teknikako klaseetara gonbidatu ninduen, aditzeko eta ikaste-



**BB BLOK BAT  
TALLERES**

**Cub Cadet**

Distribuidor oficial

ENDING SERIES™

[www.biokbat.com](http://www.biokbat.com) • ELIZONDO • Tel. (0034) 948 580 898





## Koru anitza

Gaur egun, «koru amateur bat izaten segitzen du. Astelehenero eta hilabetean bi ortzegunetan elkartzeko gara Arizkunenean. Momentu honetan ez gara hainbortze; batzuk hil dira, bertzeak zahartu dira, bertze batzuk pandemia-rengatik utzi dute... 30 izatetik 20 bat izatera pasatu gara. Hala ere, lan aldetik ongi goaz. Ez gara lehiaketak irabazten zituen lehengo koru hura, baina soinu polita dugu eta denetik abesten dugu».

Estilo eta hizkuntza anitzeko erreperorioa dute «eta oraingo musika ere lantzen dugu». Gainera, Giltzarri Abesbatzaren laguntza dute; «bere momentuan Giltzarrin jendea falta genuen eta Elizondokoek laguntzen ziguten, eta orain alderantziz». Korua mistoa da eta ahots mota guztiak lantzen dituzte; «soprano eta kontraltok emakumezkoetan eta tenor eta baxua gizonezkoetan. Gero zatiketarik egiten ditugu musikaren arabera».

Baztanen urtean behin kontzertu bat egiten dute; «dena Elizondon ez egiteko, herriz herri ibiltzen gara». Hartu-emanak egiten dituzte kanpoko abesbatzekin; «aurten, adibidez, Toledoko koru bat etorri da berriki eta urrian gu hara joanen gara». Horrez gain, hurbileko taldeekin ere harremanak izaten dituzte. «Gainerako emanaldiak ateratzen zaizkigun kontzertuak dira, deitzen diguten herrietara joaten gara».

Hurrengo urterako, «proiektu interesgarri bat dugu esku artean. Hendaiaiko René Zugarramurdi konpositoreak *Bidaia* lana sortu du, eta musikaren historia kontatzen du bertan; historiaurretik rock muskaraino. Bortz koruk parte hartuko dugu proiektuan, 130 bat lagunek, eta hainbat kontzertu emanen ditugu». →

ko. 17 urterekin zuzendari gisa trebatzen hasi nintzen eta beti erraten zidan; 'nik ezin dudanean zuk segituko duzu abesbatzarekin'. Eta horrela hasi nintzen».

2002an hartu zuen Lacarrek Elizondoko Abesbatzaren zuzendaritza, baina ez zen bere lehenbiziko korua; «Lesakako abesbatza hasi nintzen kantatzen eta hiru urtez zuzendu nuen. Gero Igantziko abesbatzatik deitu zidaten, zuzendariak utzi behar zuela, eta hangoa zuzentzen hasi nintzen. Handik urte batzuetara Bortzrietako Giltzarri Abesbatza sortu nuen, oraindik zuzentzen dudana, eta Hendaian ere ibili nintzen koru bat zuzentzen. Hendaia utzita Urruñan bertze bat sortu nuen, eta Sunbillakoa ere zuzentzen dut. Momentu hauetan lau abesbatza zuzentzen ditut». Lan handia dela dio, baina «hagitz polita» da, «izugarri gustatzen zait eta erraten den bezala, gustuko tokian maldarik ez». Gainera, kantu klaseak emateaz gain, KEA Ahots taldean abesten du Lacarrek, baita Musikeneko koru pilotuan ere.

Ongi pasa bestaki!

librería **nafarpress**  
liburudenda

ESKATU ZURE TESTU LIBURUAK

Jaime Urrutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO

ONGI PASA BESTAKI

**Belzunequi**  
DESDE 1901

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

ONGI PASA BESTAKI

**Malkorra**

Txokolatea urrakin egina  
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia



Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO  
[www.malkorra.com](http://www.malkorra.com)



**Neli Yanci**  
Maite Iriarte  
ASEGURUAK ETA INBERTSIOAK  
HURBILTASUNA ETA KONFIANTZA



Berri gurenarekin gure digitalizazioa!

Santiago 72 B. ELIZONDO  
T. 948 58 05 04 • 669 32 63 33  
[generalielizondo@hotmail.com](mailto:generalielizondo@hotmail.com)

Ongi pasa bestaki!

**helvetia**  
ASEGURUAK

Tratu pertsonala,  
zure beharrianak asetzeko,  
konpromisoa eta segurtasuna,  
persona erabakigarriak.

Santiago, 78 - ELIZONDO  
T. 948 45 25 29 - M. 628 35 71 38  
[jfagoagaleiza@gmail.com](mailto:jfagoagaleiza@gmail.com)

**ARKUPE**  
Txokolateak  
1984

IRURITA  
Dukea plaza  
T. 948580059  
T. 948452021  
(Obradorra)

ELIZONDO  
Santiago kalea 19  
T. 948452393

[www.arkupegozolegia.com](http://www.arkupegozolegia.com)

Ongi pasa bestak!

**lixue**  
GARBITEGIA

OSTALARITZARAKO ZERBITZUA	ORDUTEGIA
AUTOZERBITZUA	9:00-13:30 15:30-18:00

Santiago 94 - 96,  
31700 Elizondo      621 264 404  
info@lixue.eus

**A. ETXEBERRIA**  
PINTURAK

fatxadak barnealdeak  
etxebitzitzak

Ongi pasa bestak!

Akullegi, 6 - 31700 Elizondo  
Tel (0034) 607 587 196  
etxebeandoni@hotmail.com



## Elizondoko bestetarako prest

Uztailaren 24an eta 25ean, Santia-  
go Egunean eta bezperan, Eslavaren  
Salbea kantatzen dute urtero mezan.  
«Hagitz polita izaten da, bandarekin eta  
organoarekin batera abesten dugu eta  
interesgarria da. Eliza bete-betea ego-  
ten da, elizkoia ez bazara ere musika  
aldetik erakargarria delako».

Gainera, aurten «inoiz baino gogotsua-  
go» kantatuko dute herriko bestetan.  
«Pasa den urtean ia-ia kantatu genuen,  
entseguak ere egin genituen, baina 15  
egun lehenago bertan behera gelditu  
zen Covid kutsadurek goiti egin zute-  
lako. Pena handia izan zen denortzat.  
Horregatik, aurten oraindik gogo han-  
diagorekin kantatuko dugu».



## 80 urte eta aitzinerat

Elizondoko Abesbatzaren 80. urtebe-  
tetzea da aurten baina ezin izan dute  
deus berezirik antolatu koronabirusa-  
rengatik. «Segur aski heldu den urtean  
pentsatuko dugu zer egin ospatzeko eta  
beharbada 80+1 deituko diogu [irriz]». Hala ere, «ilusioa eta gogo» ikusten du  
abesbatzan eta «gustura berratu dute  
koruaren martxa».

Etorkizunera begira, «abesbatzak ber-  
tze 80 urte irautea» gustatuko litzaidake  
Lacari. 2009an Maki eta Kristina Ur-  
tasunek Koro Tiki sortu zuten, haurrek  
ere parte hartzeko. «Gazteen artean  
afizioa sortzeko eta abesbatzari segida  
emateko sortu zen, eta arras ongi fun-  
tzionatzen du». Gainera, koruak «gure  
kulturaren parte» direla azpimarratu du,  
«Euskal Herrian garrantzia handia dute  
eta mantentzea gustatuko litzaidake.  
Hemen beti kantatu dugu; afari batean  
mahaiaren inguruan, kuadrillek karrike-  
tan... eta koruetan».

Azkenik, jendea animatu du korua adi-  
tzera joatera eta parte hartzera. «Ateak  
irekiak daude musika gustuko duten  
guztientzako!».

## Suteia-Zaldain

instalazioak

### IGOGAILUAK

PROFESIONALAK  
KALITATE-BERMEA  
IRISGARRITASUNA  
MANTENTZE LANAK



## Ongi pasa bestak!

1

### KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadan guztiz  
integratuak, portal barrutik  
sarbidea. Inpaktu eta  
eragozpen minimoak.  
Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



2

### BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean  
integratuak. Sarbidea portal  
barrutik, inongo oztoporik  
gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aukian daudenentzako egokitasun.



3

### IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak  
dituzten eta gorpil-aukian  
daudenentzako portalerako  
sarbidea egokitzen dugu.  
Azkar egiten ditugu lanak,  
eragozpen minimoak sortuz.



**EZ ZAITEZTE KEZKATU!** Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com

## Karmen bezperako festa egingen dute ostiralean

Bi urteko geldialdiaren ondoren, ostiralean afaltzeko bilduko dira herritarrak eta segidan sua piztuko dute

### TTIPI-TTAPA

Bueltan da Karmen bezperako festa. Umore Onak berrartu du eta ohi bezala, uztailearen 15ean, ostiralean, egingen da. 20:30ean afari herrikoia egingen dute plazan, norberak bere afaria eramanda, eta ondoren, 21:30etik 22:00etara, sua piztuko dute.



2019ko Karmen bezpera. FELIX LOIARTE

## Goizukoopeko zuzendaritzaren erdia berri dute

### TTIPI-TTAPA

Uztailearen 2an egin zuten Goizukoop kooperatibako batzarra eta 2021eko kontuak azaltzearekin batera, bazkide berriak onartu eta zuzendaritzaren erdia berri zuten.

Kontuen harira, Iñigo Elizegi Goizukoopeko lehendakariak kontatu duenez, «urtetik urtera erregaien salmenta pixkanaka gorantz doa eta zenbakiek osasuntsu jarraitzen dute».

Bestalde, lau lagunek egin zuten bazkide izateko eskaera eta guztiak onartu zituzten. Denetara 210 bazkide dira.

Zuzendaritzaren erdia ere izendatu zuten. Bakartxo Uitzzi, Leire Altsua eta Juanjo Elizalde utzi dute zuzendaritza eta Elizegiren hitzetan, «egindako lana eskertuz batzarraren txalo zaparrada eta berroa jaso zuten». Horien ordez, datozen lau urtetarako lehendakariorde Mirian Makazaga, idazkari Andoni Larralde eta bokal Joxento Apezetxea sartu dira. Horiekin batera, beste bi urtez, Iñigo Elizegik segituko du lehendakari, Luixin Lujanbiok diruzain eta Joxerramon Uitzik bokal lanetan.

## Herritarrak su gainean saltoka ekainaren 23an

Ohitura zaharrak mantenduz, San Juan bezperan su gainean saltoka ibili ziren herritarrak. Su haundiagoan batzuk, ttikiagoan besteak... Baina ez zuten aukera alferrik galdu.



FELIX LOIARTE

## Gazteek binakako pilota txapelketa antolatu dute

Kanporaketak uztailearen 30eko eta abuztuaren 6ko asteburuetan jokatu dituzte eta finala gazte egunean izanen da, abuztuaren 13an. Izena Izkiña tabernan eta estankoan eman behar da uztailearen 25a baino lehen, bikoteko hamar euro ordainduta.

## 53 ume hasi dira igeriketa ikastaroan

Hiru eta hamabi urte bitarteko 53 ume hasi dira guraso elkarrekin Hernaniko igerilekuan antolatu duen igeriketa ikastaroan. Uztailearen 4an hasi ziren eta 28ra arte asteleheneretik ostegunera joanen dira. Bi autobusetan egiten dute joan-etorria, gurasoak begirale dituztela.



ALAITZ ESKUDEROK UTZITAKOIA

## Herritarrak Harrotasunaren Egunean

Ekainaren 28a LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, elkarretaratzeko egin zuten plazan. Bandera koloretsua hartuta, hainbat herritar bildu ziren ekaineko azken asteartean, 20:00etan, egin zuten hitzorduan. Ordukoa da argazkia.



FELIX LOIARTE

## Abesbatzaren ikasturte bukaera

Aurtengo denboraldiari behar bezalako amaiera emateko, Umore Ona abesbatzako kideak kalez kale ibili zen abesten ekainaren 26an. Eguraldi tristea izanagatik, umore ederra eta musika zabaldu zuten herrian Eneko Amundarain zuzendari jarraituz.



Marina Claverrek 87 urte ditu eta mendian ibiltzea eta musika dira bere afizioetako batzuk. BEGOÑA LEONET

## «Aurtengo santio festak bereziak izanen dira»

### MARINA CLAVER APEZETXEA

Lehen eta oraingo festez eta kontuez mintzatu da 87 urteko aranoarra TTIPI-TTAPAREKIN. Festak «asko aldatu» direla dio, eta oraingoak «edade guztietako jendearentzat» egokiak iruditzen zaizkio

#### G. PIKABEA

Santio festetarako gogotsu sumatu dugu Marina Claver Apezetxea (Arano, 1935). Pandemia tarteko, azken urteotako geldialdiaren ondoren, sinetsita dago «bereziak» izanen direla, «festek alaitasuna ekartzen dutelako etxeetara eta herrira eta ondorioz, herritarrongana».

Duela 87 urte Suro auzoko Tereseneko bordan jaioa da Claver. Gaur egun, Beheko Herrian bizi da eta bere burua aurkezteko eskatuta, «baikorra eta alai» dela eta «pertsonei ongi egiteak pozten» duela kontatu du. Bere afiziorik gustukoena, berriz, «mendian ibiltzea, musika eta bilobekin eta familiarekin egotea» omen dira.

«Gerra denboran hazia» da Tereseneko bordako alaba, eta hala, «haurtzaroa eta ondorena gerrak markatu» zizkiola dio, baina «nahiz eta erraza ez izan, familiarekin eta lagunekin orotzapan oso onak» ditu gordeak.

Eta horietako asko ditu gogoan; eskolako kontuak, adibidez. «Eskolara joaten ginen. Suro auzokoa naiz eta neguan aurreko baserrian izaten genuen eskola. Udaberrietik aurrera urte

osoan zegoen eskolara joaten ginen, herrira». Eta eskolatik kanpo, baserrian lanean ez bazen jolasean: «Baserrian nahiko lan izaten zen eta ttikitatik denak lanean aritzen ginen. Hortik aparte ahal genuen guzia jostatzen ibiltzen ginen».

#### Herria «asko aldatua»

Geroztik herria «asko» aldatzen ikusi du aranoarrak: «Urte haietan jende asko joan zen Herna-

**«FESTAK  
ALAITASUNA  
EKARTZEN DUTE  
HERRIRA»**

**«NI HAURRA  
NINTZENETIK  
FESTAK ASKO  
ALDATU DIRA»**

ni eta Donostia aldera bizitzera, lana zegoen herrietara eta hirietara, baita Amerika, Madril edo Bartzelonara ere». Eta tartean Claver bera: «Ni ere Bartzelonara joan nintzen lanera». Bueltan sorterrira itzuli zen eta orain, bere ustez, «herria ttikiagoa da baina, zorionez, gauzak hobekiago daude. Beste herri eta hirietatik bizitzera etorri dira, etxeak berri dituzte eta zerbitzu aldetik asko hobetu da, baita ume kopurua igo ere».

#### Hiru eguneko festak

Festak ere ez omen ziren orain bezalazaten. Haurrazela, «Santio bezperan hasita, hiru egun izaten ziren. Lehendabiziko baserriko lanak egin, eta gero, familiako osaba-izebak gure etxera bazkaltzera etortzen ziren. Goizetan pilota partidak izaten ziren. Orduan hiru taberna izaten ziren herrian bertan eta kanpotik jendea etortzen zen». Gogoan du, adibidez, «Goizuetako autobusa bete-betea» joaten zela Aranora eta «oinenez ere beste asko» joaten zirela. «Santa Ana Egunean hernaniarrak eta beste herrietakoek Aranon bazkaltzen zuten, batzuk ogitartekoak, besteak tabernetan... Urumearrak deitzen diegu eta beraien soinu-jotzaileekin etortzen ziren». Eta bateko eta besteko, «Aranoko herrian giro alai» izaten zela dio. «Arratsalde partean, bertsoak eta musika izaten zen. Jose Mari Tomasena *Etxalar* hiru egunetarako etortzen zen. Klarineta, bateria moduko musika tresna eta eskusoinua joz, hiru musikari batera ere ezagutu ditut».

Bestalde, haurra zela, «Santio hirugarrenean, 27an, Beheko Herrian beti festa eguna izaten zen, eta Suro auzoan ere hasi ziren beranduxeago. Baina urteekin herrian gelditu zen festa egitearena».

Gaztea zela, berriz, Bartzelonatik etorri eta «Aranoko okindegiko jabeentzat egiten nuen lan, neskame, eta urte horiek lanean pasa nituen. Festetan hiru edo lau ordu izaten nituen

arratsaldetan jai eta ahal nuen dantza gehien egiten nuen lagunekin».

**Programa zabala**

Gaur egun, oso bestelakoa ikusten du festetako egitaraua. «Programa asko zabaldu» baita bere ustez. «Gazte guztiak parte hartzen hasi ziren. Nire lau seme-alabak ere gazte-gaztetatik hasi ziren festak antolatzen eta lana egiten festetako egitaraua aurrera eramateko, beste gazteak bezalaxe». Eta hala, festetako egungo egitarauan «euskal dantzen falta» sumatzen badu ere, «edade guztietako jendearentzat» egoiak iruditzen zaizkio. Horrekin batera, «parte hartze handia» nabarmendu du.

**Santio Eguna maiteena**

Lehen eta orain, Santio Eguna du festetako egunik maiteena, eta bereziki pilota partidak. «Aspaldiko ohitura da festetan aranoarren eta goizuetarren arteko pilota partida. Nire senarra Jexux Leonetek ere jokatzen zuen eta oso gustukoa nuen. Orain biloba hasi da eta jarraitzen dut». Horrez gain, «Santio Egunean familiarekin egiten duen bazkaria» aipatu du. Baina ez dira horretara mugatzen bere festak. «Aizkolariak, harri jasotzaileak, bertsolariak, musika...» gustuko ditu, eta zergatik ez, dantzarako aukera baldin badu, hori ere egiten du: «ahal baldin badut dantzan aritzen naiz». Santa Ana Eguneako bazkariak ere ez da ahaztu, «gustukoa» duelako, «kanpoan bizi diren familiakoak eta lagunak etortzen dira, ilobak, bilobak...».

Adinarekin galdu ez duen festetan ongi pasatzeko deia luzatu du Claverrek: «Herri guztietan uda festez beteta dator eta jai zoriontsuak izatea eta ahal duten guziaz disfrutatzea opa diet denei». Eta Aranon behintzat, badute horretarako osagai sekretua, bere hitzetan, «jende alaia eta festazalea garelako». Horren adibide garbia da Marina Claver Apezetxea.



Aurten ere apar festan gozatzeko aukera izanen dute aranoarrek. Irudia 2019ko festetako da. OHIANA KALPARSORO

# Uztailaren 22tik 25era ekitaldiz betetako festak

Bi urteko geldialdiaren ondoren, haur, gazte nahiz helduentzako egitaraua prestatu dute festetan

**TTIPI-TTAPA**

Lau eguneko festak dituzte aurretik aranoarrek, eta bi urtez ospatu ezinik gelditu ondoren, seguru festarako gogoz eta ilusioz egonen direla herriarrek. Uztailaren 22an, ostirala, hasi eta egun handian, uztailaren 25ean, borobilduko dituzte aurtengoak. Azken urteotan hutsik egin ez duten ekitaldiek batera, berriak ere tartekatu dituzte egitarauan. Larunbat eguerdian botako dute festei ofizialki hasiera emanen dien txupinazoa, baina bezperan, 38. mus txapelketa jokatuko dute.

**Uztailak 22, ostirala**

**22:00etan** mus txapelketaren 38. edizioa San Roke elkarrean.

**Uztailak 23, larunbata**

**12:00etan** txupinazoa udaltxeko balkoitik. **Ondoren** 17. azoka eta ohiko patata tortilla lehiaketa. **17:00etan** Gorritiren ikuskizuna. **19:30ean** Valentina Dontsova piano-jotzailearen kontzertua elizan. **21:00etan** herri afaria. **Ondoren** Izer eta Alabier trikitilari eta pandero-jotzailearekin erromeria.

**Uztailak 24, igandea**

**11:00etan** Umore Ona taldeko dantzarien erakustaldia. **12:00etan** haurren pilota partidak. **17:00etan** apar festa. **18:00etan** txokolate jatea. **18:30ean** Bitartean Folk taldearekin erromeria gidatua.

**Uztailak 25, astelehena**

**Santio Eguna**

**11:00etan** meza. **Ondoren** jubilatuentzako hamaiketako Kontsejun. **12:30ean** kadete mailako gazteen arteko pilota partida: Xuban Iturbe eta Mikel Leonet, Oihan Legarreta eta Egoitz Elizegiren aurka. **Ondoren** Arano eta Goizuetaren arteko pilota partida: Egoitz Olaizola eta Markel Lizeaga (Arano), Beñat Apezetxea eta Antton Apezetxearen (Goizueta) aurka. **17:00etan** herri kirol erakustaldia. **19:30ean** bertso saioa: Aitor Mendiluze, Joanes Illarregi, Jone Uria eta Sustrai Colina bertsoetan eta Maider Ansa gai jartzaile.

**KULTURKARI**  
Dinamizazioa | Publikazioa

**INPRENTA-LANAK**

**BULEGO-ENTRESAK**  
Papergintza | Gurutzeak | Txantelak | Zigiluak...

**ARGITALPENAK**  
Aldizkariak | Katalogoak | Bestetako programak | Udako aldizkariak | Ekuariak | Liburuak | Mapak...

Konkontako bidea, 7-1  
31770 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | kulturkari@ttipi.eus  
www.kulturkari.com

**Aranoko Udalak**  
festa zoriontsuak opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei



2018ko mendi martxako argazkia.

## Irailaren 4an egingo dute Aresoko Mendi Martxa

Xehetasunak lotzeko uztailaren 20an bilera egingen dute udaletxean

### ENERITZ IRAOLA

Irailako lehenbiziko igandea aresoarrentzat gorritz margotutako eguna izango da berriz ere. Bi urteko etenaldia egin eta gero, hamahirugarren mendi itzulia antolatuko dute. Ekitaldiari buruzko xehetasunak lotzeko uztailaren 20an 18:00etan udaletxean egingo dute bilera.

2007an antolatu zuten lehenbizikoz Aresoko Mendi Martxa eta azken edizioetan 400 mendizale inguru bildu ditu hitzorduek. Beraz, ez da nolana hiko erronka 200 biztanle inguru dituen herriarentzat.

Orain arteko edizioetan bezalaxe, lauzpabost ordutan inguruko mendiez gozatzeko aukera izango dute parte hartzaileek. 21 kilometroko itzulia, 1.200 metroko desnibela duena, osatu beharko dute. Irteera 08:00etan izango da,

plazatik. Aldapan gora jota, herrigunea utzi eta Ulizarko gainera igoko dira. Handik, Urkita mendira igo beharko dute, haitzetan barna errenkadan bidea eginez. Gero, Pagozelaira jaitsiko dira eta jatekoak eta edatekoak izango dituzte bertan. Indarrak hartuta, Guratz mendira igo beharko dute, hortik plazara bueltatzeko. Mendian egindako ahaleginak sari bikoitza izango du: herritarrek prestatutako paella eta sagardoa eta probako kamiseta teknikoak jasoko baitute parte hartzaileek.

### Izen ematea

Izen ematea [www.mendiz-mendi.com](http://www.mendiz-mendi.com) web orrialdean egin daiteke irailaren 2ra arte, 12 eurotan. Egunean bertan, herriko plazan, izena ere eman daiteke 07:00etatik 07:45era, 15 eurotan.



### Eskolako mendeurren festa urrian

Ehun urte bete ditu aurten Nazabal eskolak eta urteurren festa antolatzen hasiak dira. Urriaren 1erako jarri dute festarako hitzordua eta proposamenak biltzen ari dira. Herritar guztiei zuzendutako festa izango denez, ideia bat duena bileretara azaldu dadila.

### Udan ez da ludoteka zerbitzurik izango

Uztailaren 11tik abuztuaren 5era eskaintzekoa zuten udako ludoteka, baina taldea osatu ez denez, aurten ez da izango. Heldu den urterako gogoeta egin nahiko luke guraso elkarteak eta familien beharretara hobeiki egokitzen diren aukerak aztertu Kirol Mankomunitatearekin.



UTZITAKOIA

### Sanpedroak giro ederrean ospatu dituzte

Lagunarteak antolatuta, ekainaren 24an eta 25ean ospatu zituzten sanpedroak. Trikiti doinuak lagun etxeetara eta baserrietara bisita egin zuten gazteek. Herri afaria ere izan zen Pake Toki elkartearen eta musika lagun festa ordu txikiak arte luzatu zen.



BEA MURO

### Sugarren gainetik saltoka

San Juan bezperako ospakizunak berreskuratu dituzte aurten. Arratsaldean haurrek kamisetak tindatu eta merienda izan zuten. Herri afaria egin eta gero, elkarrekin bildutako kartoi eta zakuak erabilia suak piztu eta garren gainetik saltoka ibili ziren.

# «Odola ematea laguntza emateko beste modu bat da eta hori haundia da»

MIGUEL ANGEL LIZARRAGA ZABALETA ODOL EMAILEA

2021ean 50 odol emate egitera ailegatzeagatik esker on intsignia hartu zuen Lizarragak ekainaren 26an Iruñeko Baluartean. Odola emateko deia egin du, «ez delako deus kostatzen»

## G. PIKABEA

«Eta nik zergatik ez?». Horixe galdetu zion Miguel Angel Lizarraga Zabaleta leitzarrak bere buruari ingurukoak odola ematekotan zirela sumatu zuenean. «25 urte edo» omen zituen aurreneko aldiz eman zuenean, baina haurra zela erakarri zuen ekintzak: «Ttikitan oroitzen dut izeba Asun eta Itziar lehengusua emaile egiteko paperak betetzen, eta atentzioa eman zidan». Gaztaroan eman zuen pausoa: «Handik urte batzuetara arrebak odola eman behar zuela esan zidan. Orduan pentsatu nuen: eta nik zergatik ez? Probatu... eta orain arte».

Hain zuzen, bere elkartasuna eskertzeko omenaldia jaso du berriki. Odol emaileen erantzukizuna eta konpromisoa sarrituz, ekainaren 26an 208 odol emaile omendu zituen ADONA Nafarroako Odol Emaileen Elkarteak Iruñeko Baluartean eta tartean zen Lizarraga, 2021ean 50 odol emate egitera ailegatu zelako. Omenaldia «gure konpromisoa errekonozitzeko» modua izan zen bere ustez, «guretzat ere ordu batzuk, erantzukizun bat suposatzen du. Horretaz aparte, bazkari eder bat egiteko aitzakiarik onena», dio.

Kontatu duenez, «odola bakarrik emanez gero, urtean gizonak lau aldiz eta emakumeek hirutan eman dezakete. Aferesia bada, hau da, odola beharrean plasma edota plaketak eman, hilabeteko tartea behar da gutxienez odol emateen artean».



Miguel Angel Lizarraga intsignia eskuan duen ilobarekin. PATXI LIZARRAGA

Nafarroan 24.830 odol emate izan ziren 2021ean, aurreko urtean baino % 7,5 gehiago. Eta Lizarragak ere «jende dezente ikusten du odola ematen». Hala ere, «hobe da gaintik ibiltzea azpitik baino», gogoratu du. «Gainera, gaur egun, gazte asko hasi da eta motibatuta mantendu behar ditugu, aspertu eta utzi ez dezaten». Odol emaileen keinua ezinbestekoa delako: «Ez dakit jendea ohartzen den odola ematearen garrantzia zenbaterainokoa den. Ni neroni harritu egin nintzen omenaldian bideo batean erditu berria zen emakume batek konplikazioak izan eta zenbat odol, plasma sartu zioten kontatu zutenean. Hori horrela bazen, eske haundia behar du izan».

Bere hitzetan, «odola ematea laguntzeko beste modu bat da, osasun arazo bat daukan edozein pertsona laguntzea, eta hori haundia da, osasuna nahitaezkoa baita behar duguna aurrera egin ahal izateko». Eta horregatik egin du deia, «zalan-tza duenari edo inoiz okurritu ez zaionari, ez dela deus kostatzen, ordu erdi batean dena eginga dela eta minik ez duela ematen lehendabiziko ziztadaz aparte». Umoretsu gaineratu du «gero pintxo bat eta trago bat ematen dizute. Gehiago behar al da?». Bide batez, «erizainen lan aparta» goraiatu nahi izan du: «Beti lanean, beti alai, beti gure gainean edozer pasatzen bada ere. Horie ere omenaldia egin behar zaie».

## Herri Aretoak % 20 ikusle gehiago izan ditu aurtengo denboraldian

### TTIPI-TTAPA

Datu baikorrekin itxi du bigarren denboraldia Herri Aretoak. Irailera arte ateak itxita izanen ditu baina aurretik «oso balantze positiboa» egin du udalak.

Ohar bidez jakinarazi duenez, «2020ko abenduan inauguratu zenetik ia zoko ekainean aurreneko denboraldia itxi zen arte, 3.000 ikusle erakarri zituen Herri Aretoak». Udalak «kopuru handi hori aretoaren berri-tasunarekin eta pandemiaren ondorioz ekitaldi asko antolatzeko ezintasunarekin» lotu zuen, «ikusle kopuru hori ezohikoa zela sinetsita».

Baina azken denboraldiko datuak hobekiaz dira. 2021eko abendutik aurtengo ekainera arte, 3.600 ikusle baino gehiago izan dira, iaz aldi berean baino % 20 gehiago. «Ikusleen % 49 eragileek eta tokiko sortzaileek antolatutako ikuskizunetara joan dira, batez ere, kontzertuak, hitzaldiak eta erakusketak; % 39 zinema emanaldietara, % 10 antzezlanetara eta % 9 beste ekitaldi batzuetara, hala nola, parte hartze prozesuetara eta liburuen aurkezpenetara».

Abenduaz geroztik, kultur teknikaria lanean dela eta otsailetik Nafarroako Antzerkien Sareko kide dela oroitarazi du udalak, baita Udalbiltzaren *Geuretik Sortuak* bekan parte hartu duela ere: «Ezaugarri horien eraginez, kultur programazioa aberatsagoa eta zabalagoa izan da aurtun, bai kopuruari baidiziplina motari dagokionez».

Hori ikusita, «kultur eskaintza hobetzen jarraitzeko apustua» berretsi du udalak, eta «sorkuntza artistikoa sustatzen jarraituko» duela dio, «eragile sozial eta kulturalei eta herriko artistei espazio garrantzitsua eskainiz». Izan ere, «Herri Aretoak izena ez ezik, erabilera ere halakoa izatea nahi du udalak».

# 116 haur hasi dira udako tailerretan eta haur txokoan

Haur Hezkuntzako 36 haur eta Lehen Hezkuntzako 80 haur elkartzen dira, zortzi begiralerekin

## TTIPI-TTAPA

Aurten ere arrakasta handia izan dute Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Euskara Zerbitzuak, udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin antolatutako udako tailerrek eta haur txokoak: 116 haur apuntatu dira.

Ikas mailaren arabera, bi talde berezi dituzte. 36 haur apuntatu dira hiru eta sei urte bitartekoen haur txokoan eta 80 haur sei eta hamabi urte bitartekoen tailerretan. Tikienak Agrikolan elkartzen dira eta zaharrenak eskolako jangela dute bilgune.

Uztailaren 4an hasi ziren eta 29ra bitarte bilduko dira, batzuk aste bakarrean eta besteak bitan, hirutan edo lautan; eta aukeratu duten ordutegiaren arabera 09:00etatik 13:00etara edo 10:00etatik 13:00etara. Haurrekin batera zortzi begirale ari dira, aste bakoitzean izena emandako haur kopuruaren arabera, gehiago edo gutxiago.

Dabid Anaut euskara teknikariak tailerrek eta haur txokoak izan duten erantzuna ikusita «oso balorazio ona» egin du, «haur asko apuntatzen dira eta urtero ongi funtzionatzen dute».



Herri kiroletan ibili zen kuadrilla. UTZITAKOAK

## Jende ugari bildu da Gorritzarango egunean

### JUAN MARI BARRIOLA

Sanpedroetan ospatzen dute Gorritzarango auzoko jaieguna, eta aurtengoan, uztailearen 3an, egun osoko egitaraua izan zuten Usategietako gainean, Basakabi aurrean. Goizean meza, umeentzat jolasak eta herri kirol saioa izan zituzten. Eguerdian bazkaltzeko elkar-

tu ziren. Arratsaldeko mus txapelketa, berriz, Etxeberria anaiek irabazi zuten eta 36. txintxurrin txapelketan umeetan Aritz Baraibar eta helduetan Jon Ander Zabaleta nagusitu ziren. Jende ugari ibili zen egunez eta arratsean euria hasi zuenez Basakabi barruan egin zituzten ekitaldiak.



UTZITAKOAK

## Aurrerako alebinen garaipen bikoitza

Argazkian ageri diren Aurrerako alebinek ere denboraldi bikaina egin dute. Ligako partida guztiak irabazi dituzte eta kopa ere beraia izan da. Ekainaren 4an jokatu zuten kopako finala, eta bina egin ondoren, sei minutuko luzapena jokatu eta penaltietan irabazi zuten Artaxoako Zumadiaren kontra. Zorionak!

## Bost pilota eskolen topaketan giro paregabea izan dute

### TTIPI-TTAPA

Uztaileko aurreneko asteburuan Aurrera, Barañaingo Lagunak Aurrera, Atarrabiako Beti Onak, Bartzelonako Nafarren etxea eta Valentziako Guerrer de Moixent pilota eskolek topaketa egin zuten; uztailearen 2an Leitza eta 3an Atarrabian. Lagu-

nak eginez, esku pilotaz gozatzeko helburuarekin, goiz osoan partidak egin zituzten plazan eta frontoian, eta ondoren, 200 lagun bildu ziren karrapean bazkaltzeko. Aurrerak sortutako «giro paregabea» eta «berriro ere auzolanean» egindako lana nabarmendu ditu.



Goian Aurrerako Markel Bartzelonako eta Valentziako pilotariekin. Behean bazkaria.



# Kiroldegiko proiektua aurreratuta nahi du EBKk udan

Kiroldegiko instalazioaren proiektua aurreratzeaz gain, kooperatibaren hezurdura legalaren zirriborroa egin nahi du

## JUAN MARI BARRIOLA

Leitzeko Energia Berriztagarrien Komunitateak (EBK) lanean jarraitzen du. Ekainaren 30ean komunitatean parte hartzeko interesa erakutsi duten herritarrekin aurreneko bilera egin zuen Herri Aretoan, eta harrera ona izan zuen, 120 bat lagun elkartu baitziren hitzorduan.

156 lagunek eman dute komunitatean parte hartzeko izena eta horiei argindarraren fakturaren eta NANaren kopia bilerara eramateko eskatua zien lantaldeak aurretik. Azaldu zutenenez, «kiroldegiko instalazioaren proiektua interesa dutenen beharretara egokitzeko eta kalkulatzeko» egina zuten eskaera. Baina dokumentazioa denek aurkeztu ez zutenenez, Garbi drogerian biltzekoak zituzten

uztailaren 11, astelehena, baino lehen.

## Instalazioaren proiektuarekin eta kooperatibarekin lanean

Bestetik, komunitateko talde sustatzailean sartzeko interesa erakutsi zutenei ongietorria egin zieten ekainaren 30eko bileran, eta horrekin batera, emanen dituzten hurrengo urratsen berri eman zuten. Aurreratu zutenenez, «uda instalazioaren proiektuarekin aurreratzeke eta sortuko den kooperatibaren hezurdura legalaren zirriborroa egiteko» aprobetxatu nahi dute.

Lan horiek aurreratuta, irailan hasiko dute berriz ikasturtea, eta proposamenak taldean aurkeztuko dituzte. Hausnarketa egin eta erabakiak hartu guztien artean egingen dute.



ITZAIRE HAUR ESKOLA

## Haur eskolen martxa

Haur eskola bakoitzaren eskaerak postontzi batean bildu ondoren, ekainaren 26an plazan bukatu zen Nafarroako Haur Eskolen Martxa. Itzaire eta Lekunberriko eta Basaburuko haur eskolen eskaerak orduantxe sartu zituzten postontzian. Bestalde, haur eskolek greba bertan behera utzi dute.



TESTUA: JUAN MARI BARRIOLA. ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

## Pirinioak argizatuz

Leitzarrek ere ez zuten hutsik egin, eta herritarrekin batera, Areso, Lekunberri eta Larraungoek elkarrekin argiztatu zuten Baztango Atxuela mendia. Pirinioetako Bidea hitzorduarekin bat eginez, uztailaren 2an erabakitzeke eskubidearen aldeko aldarria egin zuten.



TESTUA: JUAN MARI BARRIOLA. ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

## San Juan Bezpera jendetsua

Egun handia izan zen San Juan Bezperakoa. Arratsaldean 140 haur eta gaztetxo bildu ziren ingurutxoak dantzatzeko, eta ondoren, freskagarriak eta txistor opilak banatu zizkieten. Herri afaria ere jendetsua izan zen, 600-700 bat lagun bildu baitziren. Gauerdia aldera suak piztu eta saltoka ibili ziren herritarrek.

## Espainiako Gobernuak Erdizko galdeketari ezezkoa

Erdiz Bizirik plataformak Magnaren UGEPa ez onartzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuari

### TTIPI-TTAPA

Espainiako Gobernuak, Lurralde Politikako Ministerioaren bitartez, Erdizko harrobiaren inguruko herri galdeketari ezezkoa eman dio. Baztango Batzar Nagusiak otsailean onartu zuen galdeketaren espedientea eta galdera zehaztu zuen; *Erdizko herri bazkalekuaren okupazioa Magnari baimentzearen alde zaude?*. Txostena Nafarroako Gobernuari bidali zioten eta handik Espainiako Gobernura, estatuaren eskumena baita erreferendum bidezko herri galdeketak baimentzea.

Espedientea aztertu ondotik, ministerioak erabaki du eskaera ez onartzea afera «ez delako udalaren eskumenekoa, ezta izaera lokalekoa ere». Magnesitas Navarras enpresak proiektua Udalez Gaindiko Eragina duen Plan gisa tramitatzeko eskaera egin du, Baztango Udalaren eskumenetik kanpo dagoena. Ministerioak ondorioztatu duenez, «Erdizko bazkalekuaren okupazioa UGEparen araberakoa izanen da» eta beraz, Nafarroako Go-

bernuaren eskuetan egonen da proiektua onartu edo ez.

### UGEParen kontra

Erdiz Bizirik ekimenak adierazi duenez, Magnak «udako oporren tenorea baliatu nahi du UGEPa erregistratu eta alegazio epea oharkabean pasada din», eta «herritarren erantzun ahalmena isilarazi nahia» salatu dute.

Nafarroako Gobernuari UGEPa ez onartzeko eskatu diote. Hasteko, «legez kontrakoa dela» argudiatu dute, «eremua Natura 2000 sarean dagoelako». Gainera, bere osotasunean «Baztango lurrei eragiten dieenez, baztandarroi dagokigu gure aldeotasuna edo kontraktotasuna adieraztea». Honez gain, UGEPa «inposaketa hutsa» eta «gure komunalean ebasgoa» izanen litzatekeela salatu dute. Azkenik, «Magnak proiektua erregistratu eta tramitazioarekin aitzinera segitzen badu, alegazioen epea luzatzeko» eskatu diote Nafarroako Gobernuari. Herritarrei, berriz, «erne egoteko» eskatu diete.

## Baztango Udalaren Lixura enpresak haur eskola kudeatuko du

### TTIPI-TTAPA

Ekainaren 23an egindako osoko bilkuran, Baztan Haur Eskolaren kudeaketa Lixura Baztan sozietate publikoari emateko akordioa hartu zuen udalak.

EH Bilduren, Ezkerraren eta Geroa Bairen aldeko hamar boto eta Navarra Sumaren kontrako hiru zituen erabakiak. Bilkura berean, kudeaketa eredu aldatsen duen txosten teknikoak onartu zuten.

Haur eskolaren kudeaketa publikoa egiteko, apirileko osoko bilkuran Lixuraren es-

tatutuak aldatu zituen udalbatzak, enpresaren helburuen artean sartuz zentroaren kudeaketa. Estatutuen moldaketaz baliatuz, kudeaketa behin betiko publikifikatzeko pausoa eman dute.

### Zerbitzua hobetzea eta egonkortasuna helburu

Kudeatzailearen aldaketa honekin, Baztango Udalak «haur eskolaren zerbitzua hobetu nahi du». «Proiektu pedagogikoari segida» eman nahi dio eta aldi berean, «langileei egonkortasuna» eman.



AINTZANE ARIZTEGI

## LGTBI+ Harrotasunaren eguna

Hainbat herritar bildu ziren ekainaren 28an Elizondoko plazan, Ernaik eta Baztan Iñarrosik egindako deialdian, «harro bezain aske» bizi nahi dutela aldarrikatzeko. Sexilioaren inguruko hausnarketa bat irakurri zuten, «guneguru baten bila lekutzen diren» pertsonen buruz.

**ZIGA**  
ELEKTRIZITATEA

**647 77 31 33**

Eguzki plaken instalazioak,  
argiztapen-azterketak  
eta elektrizitate lanak orokorrean



Iñarrea Alpeetan izan zen joan den abuztuan. ARTXIBOTIK

## Atlas mendikatean eginen du Iñarrea erratzuarrak hurrengo erronka solidarioa

### TTIPI-TTAPA

Mendizaletasuna erronka solidario bihurtuta, Draveten gaixotasuna ikusgai egiteko munduko tontorrik adierazgarrienak igotzen ari da Jose Manuel Iñarrea Rekarte (Erratzu, 1970). Bertzeak bertze, Europako mendietan, Pirinioetan, Alpeetan eta Andean ibili da, eta uztailaren 17an eta 18an Afrikako iparraldean, Marokon, dagoen Atlas mendikatera joanen da, bi egunez hiru tontor igotzeko.

Joan den urtean elkarrizketatu zuen TTIPI-TTAPAK erratzuarra. Kontatu zuenez, «betitik» izan du mendirako afizioa baina azken urteotan haratago eraman du bere zaletasuna, eta Draveten sindromea ikusgai egiteko munduko mendirik adierazgarrienak igotzeko erronkarekin ari da buru-belarri. Hasieran hurbileko men-

dietan hasi zen Apoyo Dravet elkartearen bandera tontortarara eramaten eta 2019an mendi altuetan hasi zen, bere hitzetan, «horrek ematen duelako ikusgarritasuna».

2019ko uztailaren Mont Blanc (Frantzia-Italia, Alpeak, 4.808 m) igozuen eta 2020ko otsailan, Aconcaguara (Argentina, Andeak, 6.961 m) joan zen. Hirugarrena Kilimanjarora (Tanzania, 5.885 m) egiteko zuen, baina Covid-19agatik joan ezinik gelditu zen. Horren partez, Pirinioetan bertze erronka handi bat egitea erabaki zuen.

Aurten, berriz, Atlas mendikatea du begiz joa, eta uztailaren 17an eta 18an, bi egunez, Toubqal (4.167 m), Ras (4.083 m) eta Timezguida (4.089 m) igo nahi ditu. Hurrengo erronka Kilimanjaro (5.895 m) izanen du, Tanzanian, 2023ko otsailan.



UHAINA APEZTEZ

## Melillako sarraskiaren kontra Oronozen

Hainbat herritar bildu ziren ekainaren 30ean Oronoz-Mugairin, Melillan gertatutakoa eta «bertze hainbat sarraski» salatzen. Argi utzi zuten «migrazio politikak politika hiltzaileak direla» eta «ez direla heriotzak, erailketak baizik». «Europako muga hiltzaileen aitzinean justizia» eskatu zuten.



JAUME ANDREU PHOTOGRAPHY

## BRT Menditarrak Sitgesen bikain

BRTk Sitgesera bidaiatu zuen ekainean, Kataluniara, denboraldi akaberako bidaiari. Zazpiko errugbi txapelketa bat jokatu zuten bertan, baina ezohiko eremu batean: hondartzan. Legarretara egokituta, finalerdietara ailegatzea lortu zuten eta «arras kontent» daude. «Mila esker, Piku!».

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ  
T. 948 452 143 - 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN, S.L.**  
ERREKONSTRUKTIOA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
**abokatua**

Dibortzioak, herentziak,  
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C ELIZONDO

**ANELAN**  
LAN BERTIKALAK

Egiten ditugun lanak:  
Faxaden konponketak,  
segurtasun-sistemen  
instalazioak, teilatuen eta  
azpiegituren mantenimendua, etbar.

948 031 174  
info@anelan.pro



«Baztandarren Biltzarra denon artean posible izan dadin», herritarren laguntza eta inplikazioa eskatu du elkarteak. UTZITAKOIA

# «Denok egiten badugu lan, denok egiten ahalko dugu besta»

**ELISA ALMANDOZ IRIGOIEN** BAZTANDARREN BILTZARRA ELKARTEKO KIDEA

15 urtez aritu da Elisa Almandoz lekaroztarra Baztandarren Biltzarraren antolakuntza lanetan eta egun berezi honen goiti-beheitiez aritu da TTIPI-TTAParekin

## R. OSKARIZ

Duela 15 urte sartu zen Elisa Almandoz Irigoien lekaroztarra Baztandarren Biltzarra elkartearen, beraz, «esperientzia dezente» dauka egun hau antolatzen. 1963an sortu zen elkartearen, eta 59 urteko beteko ditu aurten. «Baztandarrenen 60. urteurrena ospatuko dugu heldu den urtean».

## Nola aldatu da egoera hasi zinetik?

Uste dut orokorrean gizartea aldatu dela, eta horrek jendearen parte hartzean eta inplikazioan eragin du. Gero eta gehiago ibili behar gara jendearen gibeletik eta laguntzeko eskatzen. Auzolana gehiago kostatzen dela ikusten

du, gazteria aldatu da eta ez dakit bertze interesak dituztelako edo zergatik den, baina parte hartzeko eskean ibili behar gara gero eta gehiago. Besta, hala ere, bere horretan mantendu da azken urte hauetan.

## Zenbat lagun zarete elkartearen?

Arras guti, aktiboki lanean aritzen garenak 12 inguru izanen gara. Gero besta egunean jende gehiago izaten da baina urtean egindako lanetan ez. Jende gehiago sartzea behar dugu, hemen gaudenak urte aunitz daramazkigu eta ez dugu erreleborikikusten. Egunean bertan laguntzeko jendea baldin badago ere, elkartearen segida arras kolokan dago.

## Zein izaten dira elkartearen ardurak?

Baztandarren Biltzarra ez da egun batera mugatutako lana. Garai batean euskarazko kultur ekintzak sustatzeko elkarre bat zen eta urte osoan kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak eta horrelako ekimenak egiten genituen. Azken urteetan Baztango Udalaren proposamena euskarari dagokionez aunitz handitu da eta alde horretatik pixka bat lasaitu gara. Horrek ez dakit onura edo kalte egin ote digun, motelago ibiltzen baikara urte osoan eta eguna ailegatzean aktibatzen garelako.

## Noiz hasten dituzue prestaketa lanak?

Eguna prestatzen urtarril edo otsail aldera hasten gara, betiko galdera planteatuz; *aurten egin behar da edo ez?* Egia da pandemiak ez duela lagundu eta aurten arrankatzea kostatu zaigula, baina galdera urte hasmentan planteatzen dugu. Gero mantsoxeago hasten gara martxan jartzen.

## Nola bizi izan dituzue azken bi urteak?

Baztandarren Biltzarra ospatuko litzatekeen egunean seinalea egiten saiatu gara. Lehenbiziko urtean bideo bat egin genuen, Baztango herri guzietan parte hartu zuten, dantzariak, musika... herri guzietan Baztandarrenekin zerikusia duen zerbait plazaratzeko. Polita izan zen baina ez zegoen biltzeko aukera gehiago eta horixe gelditu zen. Iaz ere musika eraman genuen herri guzietara giroa animatzeko eta arras polita atera zen, baina gogotsu ginen berriz ere normaltasunera bueltatzeko eta uste dut aurten jendeak ere gozoz hartuko duela besta.

## Noiz erabaki zenuten aurten baietz?

Otsail aldera planteatu genuen eta pandemiak uzten bazuen, argi genuen aurten bai egin nahi genuela, behar genuela. Erabaki beharrekoa zein for-

matutan egin izan zen, baina ez pandemiarengatik, jende faltarengatik baizik. Jenderik ez bagenuen, bazkariko lagun kopurua jaistea planteatu genuen. Eta hori aukera bat izan zen berriki arte. Ekainaren 20an erabaki genuen beti bezala mantentzea, baina kolokan egon da.

#### Gogotsu?

Bai, gogo handiarekin. Erran bezala, bi urte geldirik egon ondotik martxa hartzea kostatu zaigu, baina azken egunetan motibatzen ari gara eta saltsan sartzen hasi gara. Sukaldeko gauzak prestatzen, jendea biltzen, orgak egiten, boletoa saltzen... jendea mugitzen hasi da eta giroa orain sortzen da. Horrek aktibatu gaitu eta jendearen gogoia pizten laguntzen du.

#### Baztandarrak ere gogotsu egonen dira, ezta?

Bai. Egia da kezka bazegoela eta aunitzek galdetzen zigitela ea aurten egingen den edo ez. Hala ere, prestakuntzetan laguntzeko aunitzek eman dute izena eta orain talde lanak nola antolatuko ditugun ikusi eta martxan jarriko gara.

#### Zer espero duzu aurtengo besatik?

Berriz ere betiko Baztandarren Biltzarra izatea, betiko besta, eta jendeak kontzientzia hartzea; bestak lana eskatzen du eta gibeletik lantalde bat dauka. Baina bereziki, uztailearen 17an denok Elizondoko karriketan elkartzea, euskaraz eta euskararen alde, eta ongi pasatzea. Eta eguraldia lagun baldin badugu, bikain.

#### Baztandarrendako egun berezia da, ezta?

Bai, dudarik gabe. Urteko egunik politena da guretako eta ilusio handiarekin bizi dugu, lana da baina gogo handiarekin hartzen dugu. Elkarte batean hainbetez urtez lanean aritzeko eta hainbetez ordu sartzeko ilusioa beharrezkoa da eta horrela bizi dugu. Jendea probatzera animatu nahi dut, dudarik gabe merezi delako.



15 urte daramatza Elisa Almandozek elkartean. UTZITAKOIA

#### Galdetegi batzuk banatu dituzue jendeak izena emateko. Nolako erantzuna izan du?

Bai, guretako lan handienak direnak formulario batean bildu genituen, jendea zertan

egonen litzatekeen laguntzeko prest jakiteko, eta sare sozialen bidez lau haizetara zabaldu genuen. Kontent gaude, erantzun polita izan du eta jende aunitz apuntatu

## Bertako artisten aldeko apustua

Elkarteak bertako artisten aldeko apustua egiten du kartelaren egilea aukeratzeko. «Lehen lehiaketa egiten genuen kartela aukeratzeko, baina bertako jendeari protagonismoa ematea pentsatu genuen eta baditugu urte batzuk hemengo artistekin egiten dugula».

Horretarako, portfolio bat sortu dute bertako artistekin, «eta aurten Elizondoko Malmön egitea erabaki dugu. Kartela librea izaten da, beraiek proposatu zizkiguten ideiak eta egin zuten diseinua. Arras kontent gaude emaitzarekin».



da. Orain dena antolatzen eta bakoitzak zein egunetan lagunduko duen erabakitzen ari gara.

#### Zertan behar izaten duzue laguntza gehien?

Bazkariko momentua izaten da kudeatzeko zailena eta jende gehien behar duena. Zerbitzari aldetik gaztetxoak aritzen dira gehienbat, baina mahaien bilketa ere lan gogorra izaten da, eta zeregin aunitz izaten dira. Ostaturko txandak ere prestatzen ari gara; herriz herri joaten gara eta herri bakoitzak bi urtean behin bi orduko txanda egin behar izaten du. Orain ordezkariak biltzen ari gara herri bakoitzetik txanda horiek betetzeko, eta egia da hori kostatzen dela. Beraz, jendea animatzea espero dugu, denon artean posible izan dadin.

#### Jendea prest egoten da lehenagotik laguntzeko baina ez egunear bertan lan egiteko?

Bai, hori gertatzen da. Aitzineko egunetan lan egin behar da baina igandean ere bai, eta guk bakarrik ezin dugu. Denok egiten badugu lan pixka bat, denok egiten ahalko dugu besta. Languztia denon artean eginda erraz egingen dugu, baina guti batzuk baldin bagara, neketan. Horregatik da hain inportantea denon parte hartzea.

#### 15 urte elkartean aunitz dira. Zein dira zure asmoak etorkizunera begira?

Nire hondar urteak izanen direla pentsatzen dut, elkarreko aktibo bezala bederen. Hala ere, gero beti hortxe egonen naiz dudarik gabe behar denean laguntzeko. Ez dakit nire azken urtea zein izanen den, baina uste dut ordua dela gibeletik heldu direnak sartzeko eta erreleboa hartzeko. Horretarako, doike, jendea etortzea behar dugu. Baztandarrek probatzera animatuko nituzke, lan handia da baina beti ilusio eta gogo handiarekin egiten dena eta uztaileko egun hauek arras bereziak izaten dira.

# Aroztegiko enpresak indemnizazioa eskatu dio gobernuari

Aroztek herri ekimenak «eskandalagarria» dela adierazi du, «nafar guzien kontura aberastu nahi dute»

## TTIPI-TTAPA

Aroztek herri ekimenak jakinarazi duenez, «berriki izan dugu Salvador Urbistondok Palacio de Arozteguia, S.L. enpresaren izenean Nafarroako Gobernuan iaz aurkeztutako eskaera baten berri. Eskaera horretan Nafarroako eta Espainiako Gobernuari indemnizazio eskaera egiten dio. Aroztegiko proiektuko obrak gelditzeagatik, bertze gauzen artean, 43 milioi euroko kalte-ordaina eskatu du».

Hau «eskandalagarria» dela adierazi du plataformak; «behin eta berriz herri lurak eta herritarren nekazal lurak modu lotsagabearen bereganatzen saiatu direnak, herritarren borondatearen gainetik proiektu hau inposatu nahi izan dutenak eta pelotazo urbanistiko baten bitartez aberastu nahi izan dutenak, inpunitate osoarekin berriz ere diru publikoa bereganatzeko trikimailu berri bat asmatu dute». Gainera, «onartezina» deritzote «ondasun publikotik bidegabeki aberasten saiatu direnak orain biktimaren ja-

rrera hartu eta nafar guztien kontura aberasten saiatzea».

«Beren kexa nagusia gobernuak polizia gutxi bidali zuela eta kanpatuen kontrako jarrera ez zela aski gogorra izan» eta «obra gelditzeko lanean aritu zirenen bortizkeria» salatu du enpresak. Honi erantzunez, ekimenak oroitarazi nahi izan du kanpaldiak iraun zuen bitartean poliziaren presentzia «itogarria» izan zela eta «hautetsiek eta herritarrek pairatu dugun eta oraindik pairatzen ari garen jazarpen judizial eta ekonomikoa» nabarmendu dute.

## Obra ilegalak

Azkenik, «obren esleipena legez kontrakoa izan zela» oroitarazi dute; «lege guztiak beren alde egonda ere, ez dituzte betetzen. Inpunitate osoa dutela uste duten jauntxo hauei jakinarazi nahi diegu inposatutako proiektuen aitzinean herri batek bere burua defenditzea ez dela delitua eta herrien burujabetza kapitalaren pilaketa bidegabearen gainetik dagoela».



NAFARROAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA

## Baztan garaile Herriarteko txapelketan

Uztailaren 2an jokatu zen Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa absolutua eta Baztanek Larrauni irabazi zion. Lan ederra egin zuten Sagardiak eta Apeztegiak kadeteen mailan, Iturraldek eta Ballarenak gazteen kategorian eta Ariztegiak eta Oskozek helduetan. Zorionak!



MANTTONI

## Giro bikaina Erratzuko bestetan

San Pedro bestak ospatu dituzte Erratzun eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Zopak eta zikiroak «ikaragarritzko arrakasta» izan zuten eta jendea besta egiteko «arras gogotsu» ikusi dute. Herritarren kolaborazioa ere nabarmendu dute; «adin guzietako jendeak lagundu du».

**BRIKO BAZTAN, S.L.**

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jarzea

Pinturak  
Fatzadak  
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura  
Birgaitzeak eta obra berriak  
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052  
San Andres, 66 - NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

**JOSENEA ZONE AUTO**

**GARBIKETA ZENTRO BERRIA AUTOZERBITZUA DANTXARINEAN**

MERKATUKO MAKINARIK BERRIENAK

- 2 garbigailu 8 kilona arte
- 2 garbigailu 14 kilona arte
- 4 lehorgailu 14 kilona arte

Ordainketa: **Speed Green** app-aren bitartez egin daiteke

**PREZIO ONEAN**

+34 948 599 236 • [www.josenea.es](http://www.josenea.es) • [centrauto@josenea.es](mailto:centrauto@josenea.es)  
Egunero 7/7 irekita, 08.00 - 20.00

Josenea Zone Auto (Dantxarineko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarinea Nafarroa.



Kadete mailan lehiatu zen Barberena. GABRIEL LAIGLESIA

## Joritz Barberena lekaroztarra Espainiako Eskolarteko Txirrindularitza txapelketan

### TTIPI-TTAPA

Espainiako Eskolarteko Txirrindularitza txapelketa jokatu zen uztaileko lehenbiziko asteburuan Valladoliden. Eskualdeko hainbat txirrindularik parte hartu zuten Nafarroako Txirrindularitza Federazioarekin; horien artean, Ekiñe Bertiz sunbildarra infantil mailako mendi bizikletan, Aitor Igoa sunbildarra kadete mailan eta Ugaitz Otxandorena saldiastarra jubenil mailan. Baztango ordezkaria Joritz Barberena Meoki lekaroztarra izan zen, infantil mailako errepide bizikletan.

Lan txukuna egin zuen Barberenak eta «izugarri gozatu zuen». Ortziraleko linea proban pelotoi buruan izan zen eta azken esprintean 33. postuan sartzea lortu zuen. Lasterketa azkarra izan zen eta lehendabiziko taldean sartu zen. Taldeka nafarrek 6. postua lortu zuten.

Larunbatean ginkana eta erlojupeko banakako proba izan zuten, teknika, abilezia eta abiadura neurtzeko, eta 16. gelditu zen lekaroztarra. Taldeka, nafarrak ia podiutera igo ziren 4. postuarekin. Zorionak!



ONDIKOL ETA ARIZKUN ROCK

## Arizkun Rock eta bestak giro ederrean

Ohiko moduan ospatu dituzte aurten Arizkunen San Juan bestak eta ekainaren 24an musika izan zen nagusi Arizkun Rock jaialdiarekin. Drunken Barrels, The Lio, Skakeitan eta Tirri&Tery izan ziren oholtzaren gainean eta jendetza bildu zuten. Ondoko asteetan ekimenaren bideoa kaleratuko dute.

# OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

[www.oteizaarquitectos.com](http://www.oteizaarquitectos.com)

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia

Etxetresnak  
Pareta-irmairuak  
Sukalde eta bainugelako altzariak

📞 948 450 925

📞 624 47 57 25

Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

[www.electrodomesticosmiguelena.com](http://www.electrodomesticosmiguelena.com)

Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kanttonberri, 1 | BERA

📞 T. 948 631 218

✉️ [joxemi@kateabike.com](mailto:joxemi@kateabike.com)

🌐 [www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)

# ZUGARRAMURDI



Zugarramurditik joandakoak Atxuria argitzen. KORO ETA MARIFA

## Atxuria ere argiztatu dute uztailaren 2ko ekimen jendetsuan

Herritarrak ez ezik, Bizkaiko Sopelatik ere autobus bat jende etorri zen mendira igotzera

### KORO ETA MARIFA

Gure esku dago ekimenak antolaturik, uztailaren 2an koadrila polita igan zen Atxurirat, Pirinioetako bideko argiak piztera. Erabakitze eskubidearen alde, euskal herritarrek eta katalanek Pirinioetako ia 300 tontor argiztatu zituzten uztaileko lehen larunbat horretan eta zugarramurdiarrek ere gogotsu hartu zuten parte ekitaldi polit honetan.

Sopelako autobus bat jende ere etorri zen horretarako. Haietako batzuk mendiratgan ziren, baina bertze batzuk herrian gelditu ziren eta triki-



Mendirako bidean. UTZITAKOA

tixarekin giro polita eman zuten plazan. Gero, 22:00etatik 20:30era lau mendi argiztatu ikusteko aukera izan genuen herritik: Atxuria, Iban-telli, Jaizkibel eta Larhun.



KORO ETA MARIFA

## Elkartasun azoka arrakastatsua

Ekainaren 25 eta 26ko asteburuan merkatu solidario tiki bat eman zen Herriko Etxeko gorapean. Batean Mugarik Gabeko Medikuek elkarterako eman zen, eta bertzea Xaretako Maddiren trajeria pastoralerako. Horien inguruan bertze bizpahiru ere eman ziren, txoko polita eskainirik.



KORO ETA MARIFA

## San Juan suak lezean

Azken 50 urteetan San Juan suak ez dute toki finkorik izan. Non animatu diren antolatzaileak, han egin dira suak. 1970eko hamarkadan plazan egin ziren. 1980koan Beitiko karrikan. Gaupasa garaian lezean bidean egin izan dira. Duela guti arte Azketan egin ziren, eta azken urteotan lezean egiten dira.

IBARDIN 31780 Bera BEHOIRA 20305 Irun LUZAIDE 31660 Luzaide DANTXARINEA 31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

KULTURKARI  
Dizain grafikoa | Publikazioa

INPRENTA-LANAK

BULEGU JENPRESAK  
Papegintza | Gutun-azalak | Txartelak | Zigiluak...

ARGITALPENAK  
Aldizkariak | Katalogoak | Bestetako programak | Udal aldizkariak  
Eskuzkariak | Liburuak | Mapak...

Koskontako bidea, 7-1  
31770 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | kulturkari@ttipi.eus  
www.kulturkari.com



# 50. urteurrena hilaren 14rako prest du errugbi taldeak

Ortzegunean errugbi matxak jokatuko dituzte, gero aperitifa eta bazkalondoan musika izanen dute

## GANEX

Sarako Izarra Errugbi taldea sortu zutenetik 50 urte bete dira aurten. Maiatzaren 28an egitekoa zuen urteurrenako ospakizuna, baina egun hartan euskal ligako finala jokatzea (eta irabaztea) egokitu zitzaion talde nagusiari. Orduetik, liga irabazteko ospakizunak egin dituzte, baina 50. urteurrenako besta handia uztailaren 14an, ortzegunean, eginen dute. Kari horretara, 10:30etik goiti martxa tiki batzuk eginen dituzte lehen-go errugbilariak, oraingoak, gazteak eta aurten hasiak diren neskek, denak nahasirik Animatean. Ondotik, eguerdian bazkaria izanen dute, menua: aperitifa txistorrarekin, pastiza, arno beltz eta gorria, eta kafea ondokoarekin. Sarrerak hilaren 9a baino lehen



Hiru jokalaritxapeldunen koparekin.

hartu behar ziren). Bazkaria eta bazkalondoa musikariak alaituko dute eta 19:00 aldean, eguna finitzeko DJa izanen da musika jartzen.

1972an sortu zen errugbi taldea eta 1974an egin zuten zelaia Animatean. 1990ean ailegatu zen lehen garaipen handia, hirugarren mailan Frantziako txapeldun izan zen. 1995ean bi titulu lortu zituen eta iaz eta aurten, euskal ligako txapeldun izan da.



GANEX

## San Josepe eskolaren eguna

Ikasturte bukaeraraekin batera, bere eguna ospatu zuen ekainaren 25ean San Josepe eskolak. Arratsaldean, haurren beraien erakusketa ederrak egin zituzten eta ondotik, aperitifa eta afaria egin zuten, 250 bat heldu baziren etorriak haur horien sustengatzera. 20 lota zozketatu zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Korrikako 3.600 euro AEKrentzat

Herritarrek parte hartu zuten apirilaren Korrikaren 22. edizioan. Partikulazki ostatu guziek bazkaria prezio ttipi batean eman zuten, herriko elkarteek lagundurik. 3.600 euro bildu zituzten eta AEKri emanak izan dira. Parte hartu eta lagundu duten guztiak eskertu dituzte.



GANEX

## Beti Gaztek 62 kide elgarretaratu ditu

Beti Gazte elkarteak bigarren elgarretaratzea egin zuen ekainaren 25ean Pikassarrian. 62 bazkide baziren etorriak eta Jeannot Etxeberrigarai lehendakariak, elkartearen partez, denak eskertu zituen. Aurtengo azken elgarretatzea Zugarramurdiko Azketa jatetxean eginen dute udazkenean.

## Sara Oinez mendi itzuliak 80 lagun bildu ditu

80 jende ibili da ekainaren 26an Sara inguruan ibilbide zoragarrian. Aroak izitu du jende anitz, baina ausartu direnek ez dute damurik. Antolatzaileak arras kontent dira, ohar onak izan dituzte eta heldu den urtean berriz antolatuko dute, agian aroa lagun.



Mendizaleetako batzuk. UTZITAKOIA



Musikariak, dantzariak eta musikariak frontoian. ARANTXA ETA IRAIA

## 'Maddiren trajeria' pastoraleko mustraka bikaina

Musikari, kantari eta dantzariak uztaillaren 3an aritu ziren errejentaren

### ARANTXA ETA IRAIA

Joan den uztaillaren 3an, igandearekin Xaretan antolatzen ari diren *Maddiren Trajeria* pastoralaren mustraka oro-korra izan zen herrian. 15:30 inguruan hasi eta 20:00 bitartean arizale, musikari, dantzari eta kantariak jo ta ke aritu ziren herriko frontoian lanean, zuzendariak edo errejentak lagundurik. Herritar eta inguruko jende andana hurbildu zen datorren urrian estreinatuko den pastoral honen ikustera eta primizian jantzi, musika, dantza eta kantu paregabeak entzun ziren



Mustrakaren irudi bat.

arratsalde osoan. Urriko emanaldirako hainbat ukitu falta badira ere, itxura bikaina du pastoral honek. Urriaren zain geldituko gara azken emaitza ikusteko!



ARANTXA ETA IRAIA

## Erabakitzeko eskubidearen aldeko argia

Uztaillaren 2an Euskal Herriko eta Kataluniako hainbat mendi argitu zituzten erabakitzeko eskubidearen alde eginez. Inguruan hainbat mendi argitu zituzten: Atxuria, Lizartzu, Larhun... Herritarrak ere igo ziren eta giro paregabea aldarrikapen honekin bat egin zuten.



ARTXIBOKOA

## Ikaburua lezearen eguna larunbatean

Uztaillaren 16an lezearen eguna ospatuko da Ikaburuko lezean. Urtero bezala ekitaldi andana antolatu dira egun berexi honetarako larunbatean. Bisita gidatuez gain, emanaldiak eta artisauen azoka egonen dira lezeen inguruan. Animatu egun eder honetaz gozazerat!

**TTIPI-TTAPA**  
SARE SOZIALETAN

**facebook**  
[www.facebook.com/ttapi.ttapa](http://www.facebook.com/ttapi.ttapa)

**Montxo**  
JATETXEA • ERRETEGIA  
@asadormontxo

**Etxekoak berriz bueltan**

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21

BISITATU

# URDAZUBI-DANTXARINEA PLANIK ONENA DA!

**100 saltoki baino gehiago zure eskura**

Moda, aisialdia, pintxoak, lurrin-dendak, likoreak, janari-dendak,  
arropak, oroigarriak, bitxiak, jatetxeak...

**BENTAK ZABALIK DAUDE URTE OSOAN ZEHAR ASTEKO 7 EGUNETAN**



**Eta honako hauek bisitatzeko aukera eskaintzen duen Nafarroako herri eder tipiko bat:**  
Lezeak, museoa, monasterioa, erakusketak, ibilbideak, errota...



[www.urdax-dantxarinea.com](http://www.urdax-dantxarinea.com)

## Lau herritar atxilotu eta egun berean libratu dituzte

Bizitegien eskasa salatuz martxoan egindako tindaketa batzuetan parte hartzea leporatu zieten

### JL BESSONART

Ekainaren 22an, asteazkena-ekin, iragan zen gertakaria, laster hedatu zen eta arratseko zazpiak aldean, herriko etxeko plaza mukuruko bete zen, sustengua ekarri nahizik *Utz gazteria bakean. Errepresiorik ez, atxilotuak askatu!* lelopean. Honetan bereziki senpenterrek parte hartu zuten. Senpere Bai herriko talde abertzaleak atxilotetak gaitzetsi zituen: «Polizia frantsesaren operazio horrek Euskal Herriko gazteria kriminalizatzea du helburu». Goizarekin geldituak izan ziren herriko lau gazteak, batzuk manera bortitzean kriminal handiak balira bezala, leporatuz hauen parte hartzea martxoan agertu ziren tindaketa batzuetan, baita «gaizkile talde bateko kide izatea eta hiltzeko mehatxuak egitea»



Elgarretaratzea atxilotuen alde.

ere. Garai hartan salatua zen bizitegien eskasa, baita hauek sortzen duten izugarritzko espekulazioa ere.

Eusko Elkargoak ere bere aldetik gaia honi erantzun bat plazaratua zuen, haatik epaitegiak erabakia hankaz gora ezarri du. Egoera minberatsu honen sugarrak berpiztu baik ez zituen egin poliziaren ekintzak. Halere, galdeketa libratu zituzten.



Lion's Club taldekoek txekia eman zioten Idiart auzapezari. JL BESSONART

## Lion's Club elkartearen oparia herriko obra sozialaren alde

Hamabortzaldi kulturean, herriko etxea eta zonbait elkartaren partaidetzarekin, galdegina zen azkeneko hauei ekitaldi batzuk antola zituzten, bakoitzak bere usaiako aktibitateen arabera. Lion's Club elkarteak, Senperen duen adarrarekin, ekimen polita asmatu du: herriko zazpi ostalari-ekin (Le Fronton, Pyrenees Atlantique, La Nivelle, L' Auberge Basque, Kinka, Anaiak eta Santiago) ekimen eder bat plantan ezarri dute: Sukaldarien Eltzekaria. Apirilaren 16an eta 23an, larunbateko merkatuarekin, saldu zituzten eltze-

kariz betetako botilak, orotarar 140 pinta. Botilatze lanak elkartearen gain, azken finean 700 euroren mozkina sortu dute. Ekainaren 24an herriko etxean, elkartearen zuzendaria den Dospital andereak 700 euroko txekia eman zuen auzapezaren eskuetan herriko obra sozialaren alde (CCAS). Dominique Idiartek eskertu zituen herriaren izenean, segurtatuz ongi erabilia izanen dela. Bertalde Lion's Clubek, inguruko okindegiz/bizkotz dendeekin, errege pastizaren bitartez 3.500 euro bildu dituzte, onkologia zerbitzu baten laguntzeko.



JL BESSONART

## Euskal Hedabideak elkartearekin bat

Herriko etxeak tokiko eta euskarazko Hedabideak elkartearekin hitzarmena izenpetu du, ofizialtasuna emanik, Larreko kulturgunean. Azpimarratzekoa da Senpereko herria dela lehenbizikoa, partaidetza huntan sartzen, atea zabalik utzirik bertze herriko etxe anitzi euskararen erabilera sustatzeko.

## Amotzeko bestak ospatuko dituzte uztailaren 14tik 17ra

Amotz auzoak ospatuko ditu bere bestak uztailaren 14aren eta 17aren artean, Santa Madalena ohoratuz. Larri-larria: uztailaren 13an gauzez Ball Trap; 14an AmotzRaid lasterkaldia 15ean arratsean Trinkean esku-huskako finalerdiak, zintzur bustitzea eta zikiroa animatua, Holako Deluxe taldearekin; 16an, goizean petanka, gero gosari-bazkaria, arratsaldean palantxa finalak eta arratsean gaualdi alaitua, Xups, Bulego, Skasti eta Kolorak taldeekin. Urririk eta aterpean, ostatu eta erre-



Aurten ere giro ona izanen dute.

kiak bertan. Igandean, meza, joko-garbi, zintzur bustitze, bazkaria. Arratsaldean trinkean esku-huskako finala eta ondotik, kantaldia Menditarrak taldearekin.



Pilotuak, kopilotuak eta Ziharka Sporteko ordezkariak aurkezpenean. A. AROTZENA

## Lesakako XIX. Rallysprinta uztailaren 23an

Patricia Izquierdo, Itxaso Etxabide eta Ainhoa Arrieta izanen dira kopilotu ANELaren alde egindako zozketan saridun suertatuta

**AITOR AROTZENA** LESAKA  
Uztailaren 23an egingen dute Lesakako Rallysprintaren hemeretzigarren edizioa. Bertan parte hartuko duten hiru piloturekin batera lasterketa kopilotu moduan egiteko zozketa antolatua zuen Ziharka Sport automobilismo taldeak, ANELA elkartearen alde, eta

uztailaren 4an egindako aurkezpenean atera zituzten zenbaki saridunak. Honela, Alkaiagak Patricia Izquierdo Iñaki Zozaiaren Porsche 911 GT3 autoan izanen da kopilotu; Itxaso Etxabide lesakarra Joseba Beolaren Mitsubishi Lancer Evo X autoan izanen da eta Donamariako Ainhoa

Arrieta (106), Iñigo Alustizaren Peugeot 208 R2an joanen da.

Aurkezpena gidatu zuen Aitor Ibarrek erran zuen bezala, «kopilotu izateko beharrezko ekipazioa eta baimen guztiak tramitatuko zaizkie, dena legala izanen da eta amestetako aukera hau gauzatze-ko modua izanen dute». Aitzinetik egin beharreko prestatuntzaz ere aritu zen txanxetan Iñaki Zozai pilotua: «igual goizean magra eta arrotzeak gosaltzera joanen gara. Egun horretan lasai etorri eta gozatu bertzerik ez dute egin beharko!». Beraientzat ere lehen aldia izanen da.

### 9,3 kilometroko ibilbidea

Uztailaren 23an egingen den Lesakako XIX. Rallysprinta 9,3 kilometroko proba izanen da. Lau txanda egingen dituzte, Lesaka-San Anton bitan eta San Anton-Lesaka bertze bitan, denera 37,2 kilometro. Uztailaren 15ean, 20:00etan bukatuko da izena emateko aukera. Errepidea 11:30ean itxiko da eta lehen parte-hartzailea 12:30ean abiatuko da. Egiaztapenak 08:30ean egingen dituzte Lesakako plazan eta sari-banaketa arratsaldean egingen dute.

## Gipuzkoako Itzuliko etapan garaile Ugaitz Otxandorena

Atarrabiako Vizcay txirrindulari taldeko Ugaitz Otxandorena Artze saldiastarrak junior mailako txirrindulariei zuzendutako Gipuzkoako Itzuliko azken etapa irabazi zuen ekainaren 26an Seguran. Otxandorenak bakarka ihesean egin zuen etaparen zati handi bat, baina azken kilometroetan, sailkapen nagusiko lider sendoa zen Ibai Azanza bere ondora ailegatu zen, hau ere tropeletik ihes eginda, eta biak batera, eskutik heldu ziren helmugara. Beraz, etapa saldiastarrantzat eta sailkapen nagusia Azanzarentzat.



Saldiastarra kontent garaipena lortuta.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

## Pilotari gazteak Espainiako txapelketan

Haur eta kadete mailako federazio arteko Espainiako pilota txapelketa jokatu zen ekainaren 23tik 26ra Iscarren (Valladolid). Kadetetan txapeldun suertatu ziren Goiuri Zabaleta leitzarra eta Kattin Madariaga aranztarra eta infantiletan Nahia Bertiz sunbildarra.



NEREA MAZKIARAN/DIARIO NOTICIAS

## Aimar Otxoteko hirugarren Triku Trailen

VIII. Triku Trail mendi lasterketa egin zen ekainaren 26an Etxarri Aranatzen. 21 kilometroko ibilbidea egiten Sestaoko Walter Becerra (1.45.34) eta Irunberriko Xabier Zarranzen (1.48.26) gibeletik, hirugarren izan zen Beti Gazte lasterka taldeko Aimar Otxoteko Larrarte lesakarra (1.50.01).

## «Pilota mundu osoko ondare izendatzea da gure helburuetako bat»

**TIBURTZIO ARRAZTOA** NAFARROAKO PILOTA JOKOEN KULTUR ELKARTEKO (NAPIKE) KIDE

Nafarroako Pilota Jokoen Kultura Elkartea sortu berri dute eta zuzendaritza batzordeko kide da Tiburtzio Arraztoa. Pilota joko tradizionalen kultur balioak babestea eta zabaltzea dute helburu

**AITOR AROTZENA** DONEZTEBE

Sortu berria den NAPIKE elkarteko zuzendaritza batzordeko kide ez ezik, Laxoa Elkarteko kide ezaguna den Tiburtzio Arraztoak aipatu digunez, «Nafarroako Pilota Jokoen Kultura Elkarteko estatutuak Navarra Arenan otsailan egindako bilera batean onartu ziren eta elkartea ere orduan osatu zen, baina ideia zaharra da. Urteak daramatzagu gai honi buruz solasean eta bueltaka eta, azkenean martxan jarri dugu».

Arraztoaren erranetan, «kontuan hartu behar da joko tradizionalak gutxien ezagutzen direnak direla eta elementu batzuk desagertzeko zorian daudela. Orain arte pilota gehienbat kirol bat edo kirol bat gehiago bezala kontsideratu dugu; normalean ez dugu pentsatu pilotak dituen kulturaren eta ondarean. Komunikabideetan eta liburuetan ere pilotari buruz argitaratzen diren albisteek normalean kirol arloa tratatzen dute».

**Interpretazio zentroa eta museo**

Elkartearen lehen urratsetako batzuk pilotaren interpretazio zentro bat eta museo bat egitea izan daitezke. Alde horretatik, «euskal pilotari buruzko museo bakarra dugu, Senperekoa hain zuzen. Eta interpretazio zentroak? Inbidia ematen digu, nahiz eta Euskal Pilotatik kanpo egon, bertze



Prim, Iriarte eta Arraztoa, Iruritar bueltatutako botarriarekin. ONDIKOL

### Iruritako botarria Iruritar bueltan

Amasa-Villabonan (Gipuzkoa) izan ziren Baztan eta Malerrekako pilotariak ekainaren 4an, Laxoa Elkarteko zenbait kiderekin batera, bertako Behar-Zana pilota elkartearen 75. urteurreneko ospakizunetan. Pilotariak, paxaka partida jokatu, eta etxera bueltatu ziren, baina Txuma Prim eta Tiburtzio Arraztoa klubak antolatutako erakusketa ikusteko gelditu ziren. Ustekabean, erakusketara sartu orduko, gazte denboran ezagutu zuen botarriarekin topo egin zuen Arraztoak. Ez zuen zalantzarik izan, hura zen Iruritako botarria, baina momentuan ez zuen deus erran. Argazki batzuk atera zituen, etxean zitzenarekin konparatzeko eta erabat konfirmatu ahal izan zuen hura zela Iruritako plazatik 1988an desagertutako botarria. Laxoa Elkarteko kideak Pello Iriarte Iruritako alkatearekin harremanean jarri eta botarriaren 'itzulera operazioa' abiatu zuten. Jakin zuten, Iruritako botarrik urteak zituen Abaltzisketako baserri batean eta erakusketan jartzeko utzia zioten Behar-Zana elkarteari. Abaltzisketara nola ailegatu zen bertze istorio bat da, oraingoz kontatu ezin daitekeena, baina «beharbada noizbait norbait libururen bat idaztera animatuko da» dio irriz Arraztoak. Eta honetaz zerbait badaki, laxoaz eta pilotaz hainbat liburu idatziak baititu. Botarria bueltatzea eskatu eta, inolako arazorik gabe, egun guttura Iruritan bueltan zen, 34 urte eta gero.

lurraldetan (Valentzia, Italia, Holanda, Belgika) gai honetan gu baino aitzinerago daude. Helburu hau ere ez da oraingoa. Gure asmoa da Iruñea edo Nafarroa gai honetan erreferente bat bihurtzea, baina, noski, horretarako instituzioen inplikazioa behar da (lekua, dirua...). Orain arte talde politiko, udal eta instituzio guztiek ideia bikaina dela erraten dizute, baina inork ez du pauso bat ere eman», dio Laxoa Elkarteko kideak.

Beraz, ez da kirol kompetiziorik antolatuko duen elkartea izanen, kultur arloa landuko dute bakarrik: «Guk ez dugu txapelketarik edo kirol kompetiziorik antolatuko; horretarako daude federazioa, klubak, etab. Guri pilotaren kultura, ondarea, historia, tailerrak, ikastaroak... bakarrik interesatzen zaizkigu».

**Pilota munduko ondare izendatua izan dadin lanean**

Nazioartean ere ezagutzera eman nahi dute pilota eta frontoiak UNESCOren ondare izatea eskatzea ere ez dute baztertua. Arraztoak adierazitakoaren arabera, «Euskal Pilotan laxoa bakarrik dugu Kultura Intereseko Ondasun izendatua eta Valentziako Generalitateak ere Valentziako Pilota orain dela urte batzuk ondare izendatu zuen. Iparraldean ere gai honi buruz lanean ari dira. UNESCOk pilota (ez bakarrik euskal pilota, baizik eta pilota orokorrean) mundu osoan ondare izendatzea da gure helburu bat. Horretarako orain dela urte pare bat Valentziako bi ordezkari eta nik Espainiako Hezkuntza Ministerioan bilera bat izan genuen, Madrilen, eta gai hau aurkeztu genuen. Arras ongi eta interesa handiarekin hartu zuten eskaera. Jarraitu beharreko pausoak zein diren erran ziguten, gaia luze joan daitekeela, baina posible dela. Gero pandemia etorri zen eta hor gelditu zen dena. Baina gaia berreskura-



Tiburtzio Arraztoa, pilotari buruz argitaratu dituen lan ugarietako batekin, Iruñeko Labrit pilotalekuan.

tu behar dugu. Gainera NAPIKE elkartearekin indargehiago egin dezakegu».

Ondare kontuekin segituz, Madrilgo Beti Jai pilotalekua merkataritza gune ez bihurtzeko idatziren bat ere presatzeko asmoa azaldu du NAPIKEk. «Madrilgo Beti Jai pilotalekuaren afera ere aspaldikoa da. Orain dela urteak pilotalekua salbatzeko plataforma bat osatu zuten eta sekulako borrokak egin dira. Egia errateko, gaur egun nahiko baikor gaude, orain baino aise okerrago egon delako afera hau. Baina, noski, beti bezala, azken hitza politikoei dute. Zoritxarrez, Iruñean Euskal Jai pilotalekuarekin ez zen gauza bera gertatu. Hura

ere ondare bat zen, baina betiko galdu da», dio Arraztoa.

#### **Laxoa plazak kontserbatu eta gehiago ez desagertzeko helburua**

Hurbilagoko kontuetan, NAPIKE bezalako elkarte baten sorrera laxoarentzat ere onuragarria izan daitekeela uste du Arraztoa: «Orain dela aste pare bat Nafarroako Unibertsitateko Kultur eta Hizkuntz Katedrak Iruñean eta Iruritan

antolatatu zituen ekitaldiak NAPIKEk proposatuta egin ziren. Noski, Laxoa Elkartearendako albiste ona eta onuragarria da horrelako elkarte bat sortzea eta seguru elkarlanean jarraituko dugula. Azken finean, helburu berbera dugu: kultura eta ondarea».

Laxoa Elkartaren helburuetako bat orain dauden plazak kontserbatzea eta gehiago ez desagertzea dela behin eta berriz errepikatu dute. Izan

**«LAXOA PLAZA  
DESAGERTZEN  
BADA JOKOA ERE  
DESAGERTZEN DA»**

**«IRUÑEKO EUSKAL  
JAI ERE ONDAREA  
ZEN, BAINA BETIKO  
DESAGERTU ZEN»**

ere, «herri batean laxoko plaza desagertzen bada, jokoa ere desagertzen da—dio Arraztoa—. Eta bertze helburu bat, ahal diren plazak berreskuratzea. Urte honetan Beintza-Labaienen eta Lamiarritan antolatu ditugun partidak bikainak izan ziren; jendeak ekitaldia errepikatzeke eskatzen zigun. Agian txapelketa-koak ez, baina horrelako erakusketako partidak tarteka antolatzeko aukera anitz daude, bai Baztanen, bai Bertizaranan, bai Malerrekan baita bertze leku batzuetan ere. Guri gustatuko litzaiguke horrelako esperientzia gehiago egitea eta gure inguruko herrietan gure ondare hau erakustea».

Laxoa Elkarteko kideak hausnarketa eta mezu batekin akitu nahi izan du bere solasaldia: «Ondare hau kontserbatzea, Nafarroan bakarrik kontserbatzen den gure ondare hau mantentzea, alegia, ez da Laxoa Elkartaren edo laxoa jokoa maite dugunon lana bakarrik, erakunde guztien lana eta ardura da. Laxoa bizirik dago, bai, eta erran dezakegu gaur egun osasuntsu mantentzen dela, baina berriz ere edozein momentuan desagertzen ahal da».

Horregatik, gustatuko litzaieke ondare izendapen hau teoria mailan bakarrik ez gelditzea, «praktikan jokoa bera eta joakoaren inguruan dauden elementu materialak kontserbatzea—aipatu digu Laxoa Elkarteko kideak—. Hasteko, plazak; gelditzen direnak kontserbatu eta ahal bada bertze batzuk berreskuratu. Helburu honek lehenasuna behar luke. Garai batean herri guztiek bere pilota plaza zuten, baina pixkanaka gehienak desagertzen joan dira. Eta herri batetik plaza desagertzen bada, berekin batera, jokoa desagertzen da. Botarriak eta pilota-soroak kontserbatu eta seinalizatu beharko liriateke eta artisauek babestu, batez ere eskularrugileak».

## UZTAILAK 14 - 28

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



NAFARROA BERRIZ ALTXA

### AMAIUR Amaiurko konkistaren 500. urteurrena

Ezpata dantzarien topaketa, ekitaldi nagusia monolitoan, dantzaldia, bazkari herrikoa eta musika. Uztailaren 16an, 11:00etatik aitzinera. Bazkariko txartelak 35 eurotan [www.amaiur.eus](http://www.amaiur.eus) webgunean.

### JARDUNALDIAK

#### SARA

##### Izarra Errugbi Taldearen 50. urteurrena

Errugbilarien martxa, bazkaria eta musika.

Uztailaren 14an, 10:30etik aitzinera.

#### GOIZUETA

##### Karmen bezperako festa

Afaria eta sua.

Uztailaren 15ean, 20:30etik aitzinera.

#### URDAZUBI

##### Ikaburuko lezearen eguna

Artisauen azoka, bisita gidatuak eta emanaldiak.

Uztailaren 16an.

#### AMAIUR

##### Amaiurko konkistaren 500. urteurrena

Ezpata dantzarien topaketa, ekitaldia monolitoan, bazkari herrikoa eta musika.

Uztailaren 16an, 11:00etatik aitzinera.

#### ELIZONDO

##### Baztandarren Biltzarra

Orgen desfilea, bazkaria eta dantzaldia.

Uztailaren 17an.

#### LESAKA

##### Lesakako XIX. Rallysprinta

Uztailaren 23an.

### AZOKAK

#### ERRATZU

##### Artisau azoka

Plazan, uztailaren 24an, 11:00etatik 15:00etara.

#### AMAIUR

##### Artisau azoka

Plazan, uztailaren 25ean, 11:00etatik 15:00etara.

### ERAKUSKETAK

#### ARIZKUN

##### Xabier Soubeleten pintura erakusketa

Uztailaren 9tik irailaren 9ra, ortzegunetik igandera.

#### BERTIZ

##### Lilura-olerki magikoak

Mikel Belaskoain artistaren eskutik.

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra. Lorategi botanikoan 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era, erakusketa gelan 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara eta proiektzio aretoan 'Luna negra' egunero 17:30etik 18:00etara.

#### ELIZONDO

##### Memoria bat, mila kolore. Gaztelu bat, mila irudi

Gaztelu Elkarte, Baztango Udala eta Nafarroako Gobernua.

Arizkunenean, uztailaren 8tik urriaren 12ra. Asteartetik igandera 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

##### Jose Luis Alzugarayren pintura erakusketa

Jaime Urrutia 3, uztailaren 15etik urrira arte. Asteazkenetik ortziralerara 18:30etik 20:30era eta asteburuetan 12:00etatik 13:30era eta arratsaldean.

### DANTZAK

#### IGANTZI

##### Dantza taldearen emanaldia

Plazan, uztailaren 15ean, 22:00etan.

#### ELIZONDO

##### Kimua dantza kolektiboaren emanaldia

Plazan, uztailaren 29an, 20:00etan.

### KONTZERTUAK

#### ARANTZA

##### Estitxu Pinatxoren kontzertua

Aterpean, uztailaren 17an, 12:30ean.

##### Haitza taldearen kontzertua

Aterpean, uztailaren 23an, 22:00etan.

##### Onki Xin taldearen kontzertua

Aterpean, uztailaren 30ean, 22:00etan.

#### BERA

##### Hutsun eta JEL-Trio taldeen kontzertua

Toki Onako patioan, uztailaren 29an, 19:00etan.

#### DONAMARIA

##### The Trikiteens taldearen kontzertua

Frontoian, uztailaren 31n, 19:00etan.

### BERTZELAKOAK

#### BERA

##### Gavarnie eta Tailonera irteera, Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi gogoan

Agerra Mendi Taldeak eta Manttalek antolatua Uztailaren 16an. Izen ematea Pikabea harategian 25 eurotan.



## «Bikoizketa egunerokoan dugu eta ez da behar bezala baloratzen»

IBAN FERNANDEZ RODRIGEZ ELBETEKO GAZTEA



«Betitik marrazki eta magia mundu batean bizi zan den gaztea» da Iban Fernandez (Elbete, 1998), «burua ideia fantastikoz bete» du eta orain, pertsonaia hauei ahotsa ematen die. Bikoizketa gradua akitu berri du eta bere bizi-tzako «esperientziarik onena» izan dela dio.

### Ametsa bete nahian

«Ongi moldatu izan naiz beti ahotsak paratzen eta aldatzen, jendea istorio batean sartzeko edo kantatu eta interpretatzeko». Marrazketa ere gustuko du Fernandezek, eta bi elementuak bateratuz, bikoizketa du zaletasun berria, «pertsonaia aunitzetan bilakatzeo aukera» ematen diolako.

35mm online eskolan ikasi du bikoizketa. «Irakasleak ezin egokiagoak ziren baina nor-

beraren lana da garrantzitsuen, ahotsa zaintzen ikasi behar da eta egunero praktikatzeko». Ikasketa prozesua «nire bizi-tzako esperientziarik onena izan da, baina erran beharra da zail xamarra izan zirela lehenbiziko egunak».

Marrazketarekin duen loturak bulkatu zuen gradua egitera; «betitik marraztu izan ditut nire manga arraro eta dibertigarriak, baina badago gauza bat ezin dena marraztu; ahotsa. Pertsonaia hauen larruazalean sartzeko da nire ilusioa eta pixkanaka hau egiten ikasi dut».

**«PERTSONAIA AUNITZETAN BILAKATZEKO AUKERA DUT»**

### Ikasitakoa praktikara eramaten

Bilboko bikoizketa estudio tiki batean egin zituen praktikak Fernandezek, «bortz pertsona zoragarriekin batera. Han ikasi nuen dakidan ia guzia, irakasleengandik ez ezik, bertze aktoreengandik ere».

Bikoizketa «nahiko zaila» dela dio, «lotsari aurre egin behar zaio eta ahotsa moldatzen ikasi behar da. Eguneroko lana garrantzitsua da, zailtasun pila bat ditu baina ilusioarekin hartuz gero arras dibertigarria da».

Gizartean «behar bezala baloratzen ez dela» dio, «nahiz eta egoera aldatzen ari den». Jendea konturatzen ez bada ere, bikoizketa egunerokoan dago; «pelikulak, serieak, iragarkiak... erdaraz zein euskaraz, bikoizketa gure bizitzan dago egunero».

### Ahotsa moldatzearen garrantzia

Bikoizketa on bat egiteko, «gauza pila bat hartu behar dira kontuan, baina niretako garrantzitsuen ahotsa ongi doitzeko da, hau da, testua ahotsan eta denboran ongi kokatzeko. Gero hori ongi interpretatu behar dugu ikusleak bikoiztua dagoela ez nabaritzeko, ahalik eta gehien disfrutatu dezan».

«Mundu guziak bere ahotsa duela» dio Fernandezek, eta «niri, adibidez, ahots batzuk kostatzen zaizkit, baina orokorrean nahiko erregistro handia dudala erranen nuke». Aktore guziak «pertsonaia mota batzuekin bertzeekin baino hobe moldatzen dira, batzue-

tan zure ahotsarekin egin behar duzu lan eta bertzeetan erregistroa aldatu behar izaten da, hori pertsonaren arabera koa da».

Berari dagokionez, «marrazki bizidunak eta fantasiazko filmak» bikoiztea du gustuko, «ez bakarrik gogoko ditudalako, baizik eta marrazki bizidunetan erregistro zabalagoak dituztelako eta pertsonaia pila bat egin daitezkeelako. Fantasiazkoetan berdin, aktoreez gain dragoi, ipotx edota mamuetan bilakatzen ahal naiz».

### Etorkizunera begira

Euskal bikoizketan «aktore bikainak» daudela dio Fernandezek, «orokorrean jendeak dakiena baina gauza gehiago bikoiztu egin dira». Hala ere, «aktoreen falta» nabarmendu du; «film batean aktore bakar batek sobera paper inportante egiten ditu eta hori nabaritzen da. Normalean aktore bakarrak paper bat baino gehiago egin dezake, baina ez hainbertze eta pertsonaia garrantzitsuekin».

Ikasketak eginda, «honetan lan egitea» du helburu. Argi du «bikoizle lana aurkitzea zaila dela, baina esfortzu eta ilusioarekin dena lor daiteke». Bere ametsa «Tolkienen pertsonaiaren bat euskaraz bikoiztea» da; «*Hobbita, Eratzunen jauna...* nik dakidala ez dira inoiz euskarara bikoiztu eta horrelako mito baten pertsonaiak interpretatzea ametsa litzatzen».

Azkenik, nabarmendu nahi izan du «titulua edukitzea ez dela hain garrantzitsua, ahotsa lantzen ikastea baizik. Ez baduzu ahotsarekin jostatzen eta moldatzen, ez dizute deituko. Zail bezain ederra da lanbide hau eta egitan espero dut noizpait euskarazko bikoizketa handiren bat egitea eta jendeak nire ahotsarekin disfrutatzea».

**«EUSKAL BIKOIZKETAK AKTORE BIKAINAK DITU»**

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI

**BORTZIRIAK.** Borda salgai. Deitu gaeuz. ☎647 58 81 63.

**IGANTZI.** 85 m<sup>2</sup>ko pisu zaharbertua salgai. 3 logela, egongela eta sukaldea bat eginak, komun bat, balkoi bat, trastelekua eta garajearekin. Argitsua. Interesatuak arratsaldean deitu. ☎649 11 06 11.



**ARANTZA.** Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

#### ERRENTAN EMATEKO

**BERRIOZAR.** Irailetik ekainera 3 logelako pisua errentan emateko. Iruñera autobusak 15 minutuero. Guztiz mobleztatua. ☎609 26 70 46.

**IRUÑEA.** Emakume gazte batek logela bat errentan emateko du, komunarekin. Unibertsitateko oso hurbil. Pisu handia, argitsua eta giro lasaia. ☎635 95 64 79.

#### ERRENTAN HARTZEKO

**ELIZONDO.** Pisu edo etxe bila. 50 urteko emakumea, lana duena. ☎630 45 21 89.

**DONEZTEBE.** Lanagatik pisu edo logela bila. Errentan hartzeko. ☎625 36 00 26.

### LANA

#### ESKAINITZAK

**DONAMARIA.** Udan goizetan haurrak zaintzeko lagun baten bila. ☎606 32 00 38.

**URDAZUBI.** Hotel Irigoienean garbiketarako langilea behar dute. Lantaldean harreman onak, hitzarmenaren arabera soldata, prestazio guztiak. Berehala lanean hasteko. Deitu edo idatzi: *reservas@irigoiena.com*. ☎675 58 82 83.

**DANTXARINEA.** Maspormenosen jendea behar dute lanaldi osoan lan egiteko. Bidali curriculum *xabi@maspormenos.net* helbidera. Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute.

Iturgintza lanak eta instalazio elektrikoak egiten dituen enpresa batek esperientzia duen langilea behar du egun osoz aritzeko. Bidali curriculum *jpinstalazioak@gmail.com*

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.engan.eus](http://www.engan.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

**ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

**Bizum** bidez ([engan.eus/tpv/ordainketa](http://engan.eus/tpv/ordainketa))

TTIPI-TTAPA ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

helbidera edo deitu. ☎679 35 49 47.

**BERA.** Urbicain gasolindegian langilea behar dute berehala lanean hasteko. ☎629 08 35 67.

**ARIZKUN.** Betiko lantegian, langileak behar dituzte fabrika aritzeko. Deitu edo idatzi *produccion@beti-kopvc.com* helbidera. ☎649 74 67 95 / 948 45 32 59.

#### ESKARIAK

**LEITZALDEAN** neska euskalduna haurrak zaintzen aritzeko prest, uda aldean. ☎640 39 91 91 / 617 80 88 48.

39 urteko emakumea interna moduan lanean aritzeko prest. Erizaintzako ikasketak dituena. ☎603 10 06 89.

Esperientzia duen 19 urteko neska elizondoarra udan haurrak zaintzeko prest. ☎693 79 15 72.

### ZERBITZUAK

#### ZURGIN LANAK

## ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA  
647 810 144 - 626 093 181

### ANIMALIAK

#### OPARITZEKO

Border Collie arrazako bi **txakurkume** oparitzeko, arrak. Gurasoak artzaintzan ibiltzen dira. ☎661 52 15 88.



Martxoaren 8an jaiotako **txakurkumeak** opari. Ama Enkarterrieta-ko Villanoa eta aita Border Collie zakur nahasketak. ☎646 54 35 69.

Hainbat koloretako **oilarrak** oparitzeko. ☎690 15 46 44.



**LEITZA.** Katakumeak oparitzeko, arrak zein emeak. Ama ehiztari bikaina. Jostariak eta alaiak. Hainbat koloretakoak. ☎671 48 44 56.

### DENETARIK

#### SALGAI



**Pago egurra** salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

**ELIZONDO.** Ohe artikulatua salgai. ☎678 59 54 34.



**Bi sofa** salgai. Berriak dira. Prezioa 175 euro biak. ☎697 96 60 50.



**Sofa** salgai, erdi berria oso gutxi erabilia. Prezioa 250 euro. ☎650 62 88 85.

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

##### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,94
- 1.koa 4,82
- 2.koa 4,70

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,05
- 1.koa 4,91
- 2.koa 4,80

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

##### Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

##### Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

##### Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 160,00

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,86/4,96
- Zaldi-behorrak 2,18/2,35

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,10/7,20
- 8-10 kilokoak: 5,80/6,50

#### ZERRI-AZIENDAK

**Zerrikumea** (19 kilo): 58 €

**Zerri gizona** 1,651 €

**Zerramak** 0,660€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua ekainaren 24tik uztailearen 1era bitarteko prezioak)

URTEBETETZEAK

GALDU-AURKITUAK



**BERA.** Eztegara frontoiaren kanpoko aldean smartwach erlojua agertu da. ☎646 35 69 83.

MOTORRAK

SALGAI



**BERA.** Yamaha Tracer 700 motoa salgai. 3 urtekoa. 8.700 Km. Erorketarik gabekoa. Atzeko maletarekin. Beti garajejan altxatua. Berria bezala. ☎600 75 07 29.

TAILERRAK



Aunitz urtez, **June!!!!** Legasako **June Mendiburu Andresenak** uztailaren 12an 9 urte bete ditu. Espero dugu zure egunaz disfrutatu izana, muxu eta besarkada potoloak zure familiaren partetik.



Aunitz urtez, **Arai!!!!** Uztailaren 23an **Arai Arteaga Andresenak** 9 urte beteko ditu. Disfrutatu zure egunaz. Muxu eta besarkada potoloak zure familiaren partetik!!



**Jose Mari Zabaleta** eta **Maria Teresa Gomezek** urrezko ezteiak ospatu dituzte uztailaren 9an. Zorionak familiaren partez.



Aunitz urtez **Xuban!** Uztailaren 29an 7 urte beteko dituzu eta ongi-ongi pasa zure eguna! Muxu haundi-haundi bat familia guziaren partez.



**Irene Petrirenak** 40 urte bete ditu uztailaren 12an. Zorionak eta gora San Fermin!



Zorionak printzesa! Lesakako **Izaro Irigoien Madariagak** uztailaren 11n 6 urte bete ditu. Muxu haundi bat atta, ama eta bereziki Oierren partez!



Aunitz urtez **Andrea!** Uztailaren 20an urteak beteko ditu **Andrea Escagüés** beratarrak. Disfrutatu eguna eta muxu haundi bat lagunren partetik!




Uztailaren 23an amaxi **Mari Karmenek** urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu bat familiaren partetik.

Panelak - Biniloak

Seinaletikarekin zerikusia duten materialak  
Aluminiozkoak, PVCzkoak, biniloak, olanak eta abar

PANELAK-TOTEMAK



**INFORMAZIO PANELAK**  
Egurrezko egiturekin edo gabe

**Ezaugarriak:**  
Galdetu neurri eta materialen aukerak

**ALUMINIOA**  
Sandwich panelak  
Arinak eta iraukorrak  
Lodiera: 3 mm  
Koloretan

**PVC**  
Forex panelak  
Arinak eta iraukorrak  
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm  
Koloretan

**METAKRILATO**  
Gardenak eta opakua  
Lodiera: 4 eta 10 mm  
Koloretan



ROLL-UP



**ROLL-UP**  
Garraio poltsarekin  
**Ezaugarriak:**  
Galdetu neurri eta kalitate aukerak

BINILOAK



GAUZA GEHIAGO



**INFORMAZIO GEHIAGO:**  
Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58  
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com

SORTZEAK

- **Mia Taberna Mindegia**, Igantzikoa, maiatzaren 16an.
- **Lore Lastra Jorajuria**, Sarakoa, ekainaren 18an.

HERIOTZAK

- **Patxiku Irigoien Etxeberria**, Lesakakoa, ekainaren 12an, 91 urte zituela.
- **Agustin Apeztegia Tapia**, Lesakakoa, ekainaren 17an, 85 urte zituela.
- **Cristobal Ansorena Sagastibeltza**, Leitzakoa, ekainaren 18an, 91 urte zituela.
- **Jose Antonio Azpiroz Noain**, Leitzakoa, ekainaren 20an, 76 urte zituela.
- **Txaro Azpiri Miota**, Elizondokoa, ekainaren 25ean, 67 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Cristina Legarreta Mitxelena**, Igantzikoa, ekainaren 28an, 87 urte zituela.
- **Gloria Huizi Apeztexea**, Aranokoa, ekainaren 30ean, 87 urte zituela.
- **Manuel Mariñelarena Zubitur**, Leitzakoa, ekainaren 30ean, 90 urte zituela.
- **Martin Iribarren Salaburu**, Igantzikoa, uztailaren 3an, 92 urte zituela.
- **Justo Igarzabal Telletxea**, Lesakakoa, uztailaren 3an, 80 urte zituela.
- **Hipolito Agesta Larretxea**, Arantzakoa, uztailaren 5ean, 72 urte zituela.




- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira

**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidade

Info +:  
Tel: 948 63 54 58  
kulturkari@tpi.eus  
www.kulturkari.com

URTEURRENA

**Mari Xan BENGOTXEA**  
1925/09/04-2021/08/18  
I. URTEURRENA

**Maite AROZARENA**  
1958/07/18-2014/07/27  
VIII. URTEURRENA




*Ama-alabak zaudete elkarturik,  
Guri indarra ematen urrunetik,  
Hurbilean sentitzen zaituztegu, bizi-bizirik  
Egunen batean ikusiko garelarik.*

Maiteren aldeko mezak uztailaren 30ean Urdazubin eta 31n Amaiurren.  
Mari Xanen aldeko meza abuztuaren 20an Urdazubin.

**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70  
www.tanatoriosirache.es



**BAZTAN BIDASOA**  
Berebizitza Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian  
MALERREKA: DONEZTEBEAn Aparan ind. 1-3

web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50  
365 EGUN | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeka*



**IZARRA**  
HERRI ZURE ONDOAN  
ARABA ETXERAN



Gure lurra,  
gure jendea,  
gure sustraiak


TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe


948 05 90 90 [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# HITZ GEZIDUNAK

	Telebista omanaldia	Pl., edukiera unitatea	Gabezia	Segurusk	Usadura
	Giuzakiek bez- len dituzena	Zer gauzak?	Lerro, marra	Samiyak	Estualdi, staka
	Ruziak, letrakunak				
	Zabaltasuna- ren neurria				
◆ Deitura	Arotzaren lanabesa			Kakali	
Nabaskuzeko herrizara	Bikunak, biltzarak			Tona, labur-labur	
Gorai		Urrea		Molia, nasa	Putresk, hegati sarraskija- leak
Ibura ederrakak		Bokal errepikatua		Egunaren zati	
			Kontso- nantea	Freskagari marka	
			Ez ahal	Musika estilo	
Ergela, tentela		...-PW			Musika nola
◆ Izena		Goratu			Izotz, jala, horma
		Berdur, ikara			
		Txakur			
Jatari atrakia		Eguneroko jaki		Merkatu, azoka	
Zaberrentziak		Kontso- nantea		Kontso- nantea	

◆ Ikerlari leitzarra

## GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Pluralean, hortzetako esmalte gainean metatzen den gai horixka.
- [2] Gure lurraldeko herria, Baztanen.
- [3] Lezoko herritar.
- [4] Lilia.
- [5] Nahastura trinkoa.
- [6] Zoro.
- [7] Nafarroako ibaia.
- [8] Jausi.
- [9] Bera, hori bera.
- [10] Berriz.
- [11] Nafarroako udal-erria, izen bereko ibarrean, Zangozako merindadean.

## ERANTZUNAK



- LERTZOAK
- LEKARUZ
- LEZOAR
- LOREA
- ERO
- ERRO
- ERORI
- BERORI
- BERIRO
- ERROIBAR

# PLAZAN BAZAN



## ITZALA

Erreka harririk  
harri igaro nahi  
duen turista  
honek zein du  
itzal zuzena?



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiturri)



## INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

## HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu inurri eta madalena hauek, handienetik txikienera, letik 7rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 7).



## ZEEER?!

Bide batez, ezaba itzazu WAV, YNQ eta JUF guztiak eta zakur-katuok zer esaten ari diren ulertuko duzu.

WAV WAV  
TXOJUFRIZONAV  
HARRIJUFGAWAVRRI YNQ  
SAMAWAVRRA JUF HALJUFXE  
YNQ, BELAWAVRRAK JUF EYNQRE  
WAYZAPOWAVRE JUF  
HOWAVBEA YNQ WAV  
DU



YNQ WAV  
WAV HAYNQU WAV  
JUFDAWAV ARTAYNQ  
-BUWAVRLIYNQA

**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Kaskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**809** zenbakiko  
irabazleak >



**ZOZKETAK**

**Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**  
Anuntxi Bereau Bergara | ARANTZA

**Buatxabal - Kamiseta bat**  
M<sup>a</sup> Belen Irulegi Arregi | LEITZA

**Arkupe - Lote bat**  
Juan Bengoetxea Ibarrola | UROAZUBI

**Mendukilo - Bi sarrera**  
Juan Miguel Ariztegi Ariztia | OIZ

**Irrisarri Land - Sarrera bat**  
Miren Edurne Tapia Altzugarai | LESAKA

**Kukuka- Haurrendako lote bat**  
Lidia Petrirena Vaquero | ELIZONDO

**Wow Park - Bi sarrera**  
Maite Iturburu Etxandi | ERRATZU

**Ikaselkar - Bi liburur**  
Lucio Juanikorena Gorosterrazu | ZUBIETA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Bi sarrera

**ONDDO TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**MARTIKO**

[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



Lote bat

**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)



Sarrera bat

**BKZ ABENTURA**

[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)



Sarrera bat

**ELIZONDO**

[www.giltxaurdi.eus](http://www.giltxaurdi.eus)



Bi sarrera

**WOW PARK**

[www.wowpark.fr](http://www.wowpark.fr)



Bi sarrera

**Wowpark**  
Votre Parc Aventure



**MU  
SI  
KA**

3 CD

**baga-w-biga**

[www.baga-biga.eus](http://www.baga-biga.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.airakamusic.com](http://www.airakamusic.com)



[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)